# Musulmanak Euskadin

## Erlijio-profila, jarrerak eta sinesmenak

Hithem Abdulhaleem



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

Immigrazio Zuzendaritzaren ikerketen bilduma
Colección de investigaciones de la Dirección de Inmigración 2

# Musulmanak Euskadin

## Erlijio-profila, jarrerak eta sinesmenak

Hithem Abdulhaleem

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka


| | |
|---|---|
| Argitaraldia: | 1.a 2010eko iraila |
| Ale-kopurua: | 500 |
| © | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa<br>Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila |
| Internet | www.euskadi.net |
| Argiraratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia<br>Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco<br>c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Fotokonposaketa: | Composiciones Rali, S.A.<br>Particular de Costa, 8-10, 7ª - 48010 Bilbao |
| Inprimatzea: | Estudios Gráficos ZURE, S.A.<br>Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio Goikoa (Bizkaia) |
| ISBN: | 978-84-457-3080-5 |
| L.G. | BI 2305-2010 |

Egiptoko andre zahar batek honako galdera hau egin zuen Egiptoko herria, Ibn Taimiyya epailea agurtzeko, kalean zegoela ikustean (1263-1328): «Nor ote da zorioneko harrera handia merezi duen hori?» Honela erantzun zioten: «Isilik egon emakumea, Ibn Taimiyya da, Jainkoa badagoela frogatzeko tamaina handiko hamar liburu idatzi zituena». Eta andreak, berriz: «Okerrago harentzat, indar gutxiko fedea duen seinale. Bestela ez zukeen hainbeste liburu idatzi beharrik izango eguzkia bezain argia den gai baten inguruan…».

Hasib Kiali (1921-1993), Siriako eleberrigilea

* * *

Eta amak «Zer idazten duzu Hanna?» galdetzen zidanean, nik gezur batekin erantzuten nion: «Tartsoko San Pauloren historia». Amak gurutzea egiten zuen bular gainean, honako hauek esatearekin batera: «Loria harentzat…. oso ondo, seme, eta eska iezaiozu laguntza, arren, miseria honetatik atera gaitzan». Eta horrela geunden ama eta biok, biok ere gauza bera irrikatzen. Gure egoerak hobera egin zuen, baina amak zeruari erreguka jarraitzen zuen; nik, aldiz, lurrean eskatzen nuen.

Hanna Mina (1924-), Siriako literatura-idazlea

* * *

Israelgo espetxean nengoela, amak egin zidan bisita, eta fruta eta kafea ekarri zidan. Presozainak, ordea, kafeontzia konfiskatu zuen, eta kafea lurrera isuri. Ez ditut sekula amaren malkoak ahaztuko. Horregatik, nire gelan eserita, barne-barneko hitz batzuk idatzi nituen amarentzat, tabako-pakete batean. Honela zioten: «Samintasunez oroitzen dut nire amaren ogia… eta nire amaren kafea… eta nire amaren laztanak… eta egunetik egunera nabariago sentitzen dut haurtzaroa nire barruan… baita bizitzeko gogoa ere… izan ere, hilko banintz, lotsatu egingo nintzateke amaren malkoengatik».
Hitz horiek haur baten amarenganako barkamena baino ez zutela adierazten uste nuen nik une hartan, handik gutxira milioika haur arabiarrek kantatuko zuten kanta bihurtuko zirela jakin gabe.

Mahmoud Darwix (1941-2008), Palestinako poeta

# Esker onak

Gizakiok besteen laguntza behar izaten dugu betiere edozein lan burutzeko, lan hori oso erraza izanagatik ere. Eta horregatik, edozein lan amaitzerakoan, bidezkoa da egileek eskerrak ematea era batera edo bestera proiektua aurrera eramaten laguntza eskaini duten guztiei. Horren haritik, lerro hauetatik eskerrak eman nahi nizkieke, modu sinbolikoan, proiektua errealitate bihurtzeko denbora eta esfortzua jarri duten guztiei. Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzari, 2009. urtean, zuzendaritzaren helburuak bete arte, eskaini digun babesarengatik. Bereziki Josebe Alonso Marigómez andreari, bere profesionaltasunarengatik, edukazioarengatik eta pazientziarengatik, dohain horiei guztiei esker jarraipen arduratsu eta iraunkorra egin duelako, prozesua ongi garatzeko lagungarri. Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioko zuzendari Miguel Gonzalezi, eta zuzendari ohi Roberto Marro Ibarra jaunari, eskuzabaltasun osoz gure ikerketa-proposamenean konfiantza jarri dutelako, gai horri buruzko azterlanak egiteari merezi duen garrantzia emanez eta gizartearekiko goreneko sentsibilitatea erakutsiz betiere.

Halaber, gure eskerrik zintzoena Luis de Nicolás y Martínez jaunari, Deustuko Unibertsitateko psikologia-irakasle emerituari, ikerketa honi jarraipen arrakastatsua emateko egin duen orientazio- eta zuzendaritza-lan bikainarengatik. Haren esperientzia, aztergaiari buruz egin dituen zehaztapenak eta prest egoteko betiere ageri duen jarrera funtsezkoak izan dira guretzat. Eskerrak ere, jakina, Javier Acha irakaslearentzat, landa-lanaren azterlanaren zati handi bat garatzeko laguntza handia eman digulako, ikerketa-metodologia guztiak ongi ezagutzen dituen eta estatistika-azterketarako programak ezin hobeto erabiltzen dituen neurrian. José Javier Pardo jaunari, Deustuko Unibertsitatean hainbat baliabide eta gune jarri dizkidalako eskura, ikerketa egiteko.

Esker bereziak José Luis Villacorta nire lagunari, Deustuko Unibertsitatean erlijioen historiako irakaslea denari, hainbat ideia eta hausnarketatan aholku eman didalako, Giza kalitate bikaineko eta tolerantzia handiko pertsona da, eta kultura eta erlijioen arteko elkarrizketaren aldeko bultzatzaile sutsua. Taoismoari buruzko eskoletan entzutean, taoista amorratua zela pentsatu nuen. Budismoa hizpide hartuta entzun nionean, aldiz, budista liluratu bihur-

tua zela zirudien, baina, pixka bat geroago, Islamari buruz ari zen egun batean, zera ondorioztatu nuen, ezbairik gabe horixe zela haren benetako erlijioa, benetako musulman batek egingo lukeen bezala hitz egiten baitzuen...

Azkenik, nabarmentzekoa da elkarrizketatutako pertsonak direla ikerketa honen benetako protagonistak. Euskadin finkatutako komunitate musulmaneko kideak dira guztiak, eta haien laguntzarik gabe ezinezkoa zatekeen ikerketaren emaitzak argitaratzea eta liburu hau editatzea. Zorretan gaude, beraz, galdesorta betez eta gure galdera luze eta batzuetan gogaikarriei erantzunez gure azterlanean parte hartu nahi izan duten gizonezko eta emakumezko musulman guztiekin, eta horien guztien ekarpenak gogora ekarri nahi ditugu une honetan. Eskerrik asko guztiei, pazientzia agortezina izan duzuelako, laguntza ezin hobea eskaini diguzuelako, eta eskuzabaltasun eta zintzotasun handiz jokatu duzuelako.

# AURKIBIDEA


Hitzaurrea ........ 11

Sarrera ........ 19

1 Erlijioa, aniztasuna eta immigrazioa ........ 27

1.1. Erlijioaren faktorea immigrazioan ........ 27
1.2. Erlijio-aniztasuna gizarte sekular baten esparruan ........ 28
1.3. Immigratutako Islama: irudi eta errealitateen historia ........ 30

1.3.1. Irudi bat sortzea ........ 32
1.3.2. Mendebaldea Islamaren aurrean: adostasunak eta desadostasunak ........ 34

1.4. Komunitate musulmanaren integrazioaren erronka eta harrerako gizartearen erronka ........ 37

2 Tradizionalismoa, integrismoa eta fundamentalismoa ........ 41

2.1. Aldez aurretik, terminologia argitu ........ 41
2.2. Termino-nahaspila ........ 42
2.3. Aurrekari nagusiak ........ 44

2.3.1. Tradizionalismoa ........ 44
2.3.2. Integrismoa ........ 46
2.3.3. Fundamentalismoa ........ 51

3 Islamiar fundamentalismoa ........ 59

3.1. Islamiar fundamentalismoa: hiru erantzun krisiaren aurrean ........ 59
3.2. Arrakastaren ezaugarriak eta gakoak ........ 62

4 Kontrastatze enpirikoa eta ikerketa metodologia ........ 73

4.1. Sarrera ........ 73
4.2. Galdesorta eraikitzeko eta balioesteko prozesua ........ 74
4.3. Galdesortaren deskribapena ........ 75
4.4. Aldagaiak identifikatzeko irizpideak ........ 77
4.5. Aldagaiak eta horien justifikazioa ........ 80

4.5.1. Autokritika ........ 80

4.5.2. Isolamendua .......... 82
4.5.3. Erlijio-tolerantzia .......... 85
4.5.4. Moderazioa .......... 87
4.5.5. Autoritarismoa .......... 89

5 Landa lana eta datuen azterketa .......... 91

5.1. Landa-lana .......... 91
5.2. Aldagai soziologikoak .......... 97

5.2.1. Jatorrizko herrialdea .......... 98
5.2.2. Adina .......... 99
5.2.3. Sexua .......... 100
5.2.4. Euskadiko bizilekua .......... 101
5.2.5. Gainditutako ikasketak .......... 101
5.2.6. Euskadin bizitzen daramaten denbora .......... 102
5.2.7. Erlijiosotasun-maila .......... 102
5.2.8. Jarduerak eta erlijio-erakundeetako kide izatea .......... 103

5.3. «Fundamentalismoa neurtzeko galdeketari» elkarrizketatuek emandako erantzunen azterketa eta eztabaida .......... 103

5.3.1. Barne- eta kanpo-autokritika neurtzen duten galdeketako zazpi galderak eta elkarrizketatuen erantzunak .......... 105
5.3.2. Galdeketako «isolamendua» aldagaiari buruzko zazpi galderak .......... 114
5.3.3. «Erlijio-tolerantzia» aldagaiari buruzko zazpi iritziak .......... 121
5.3.4. Elkarrizketetan parte-hartzaileen «neurritasun» maila neurtzen duten zazpi iritziak .......... 131
5.3.5. «Autoritarismo» aldagaiari buruzko zazpi iritziak .......... 139

6 Azken kontsiderazioak .......... 149

7 Bibliografia erreferentziak .......... 157

8 Eranskinak .......... 163

I. Fundamentalismoa neurtzeko galdesorta .......... 163
II. Fundamentalismoa neurtzeko galdesortaren arabierazko bertsioa . 168

# Hitzaurrea

Lehenik eta behin eskertu beharrean nago orain liburua osatu behar duen ikerketa ikuskatu eta orientatzeko lana nire esku utzi izana, niretzat eta liburuaren egilearentzat garrantzizko errekonozimendua den heinean. Egindako tutoretza-lanak are balio eta garrantzi handiagoa du ikertutako gaia gaurkotasun handiko gaia dela aintzat hartuta, irailaren 11ko hondamendi larriaren eta AEBek Afganistanen eta Iraken zuzendutako esku-hartze militarraren ostean bereziki, immunitate-sindromea esaten zitzaiona aldatu egin baitzen txikizioa ekarri zuten gertaera horien ostean. Harrezkero erreferentziazko gertaera historiko garrantzitsuak dira horiek, pertsonei banan-banan edo taldeei edo gizarteari oro har eragiten dieten larrialdi-egoeren (hala nola zoritxarrak, atentatuak eta zirkunstantzia traumatiko eta trauma-ondokoak oro har) kudeaketan dihardugunontzat (De Nicolás et al. 2000). Eta areago oraindik gertaera horien egiletza fundamentalista deituriko taldeei leporatzen zaiela aintzat hartuta.

Fundamentalismo islamikoa Euskadiko musulmanen ikuspegitik ikasteak ausardia eta sormena eskatzen du, baita erlijioak herritarren ongizatean duen garrantzia onartzea ere. Kontuan hartzekoa da Justizia Ministerioaren ustetan »nabarmen sustraituta» dauden sei erlijioetako bat azterlan hau egiteko ikertu duguna dela, eta, egilearen esanetan, «musulman guztien identitatea eta erlijio-adierazpenak fundamentalismoarekin uztartzeko tentaldia gero eta nabariagoa» dela. Eta gainera, kasu honetan, 2007-2009ko Immigrazioari buruzko II. Euskal Planean jasota geratu diren Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren adierazpenen arabera, «etorkinak integratu behar dira elkarrekiko errespetuan oinarrituta, pertsona bakoitzaren, edonondik datorrela ere, eskubide eta betebeharrekin bat datozen bizikidetza-ereduak adostu eta onartu ondoren».

Bestetik, gauza jakina da immigrazioan identitate bat eraikitzen dela, eta herrialdez aldatzeak familia-jarraitutasunaren galera dakarrela, baita historia pertsonala eta testuingurua galtzea ere; areago oraindik, *selfa* zatitzea eragin dezake lekualdatzeak. Etorkina ingurune batera moldatu behar da, eta horrenbestez uko egin behar dio bere identitatearen zati bati, aldi baterako behintzat. Aldaketa eta banantzea onartu behar ditu ezinbestean. Maparen mugak aldatu egiten dira: lehen ikusezina, ohikoa zena ezezaguna da orain, zalan-

tzazkoa, arriskutsua. Eta mugak nahasten dira, desagertzeraino edo psikosozialki erraldoi eta gaindigaitz bihurtzeraino. Izan ere, denok dakigu neoarrazakeria diferentzialak edo arrazarik gabeko arrazakeriak zer dakarren berekin: kultura-desberdintasunak gainditzea ezinezkoa dela aldarrikatzen du, kaltegarria litzatekeelako mugak ezabatzea, kultura jakin batzuen (etorkinen kulturak) bizimoduak eta tradizioak beste kultura batzuen (harrerako herrienak) bizimodu eta tradizioekin guztiz bateraezinak baitira. Kulturak nahastea bidegabekeria izan daiteke beraz, ikuspegi horren arabera, bere identitateari eutsi nahi dionak eta helburu hori besterik ez duenak bakartu behar duelako, eta, aldi berean, «bestea», elementu faltsua alegia, baztertu edo kanporatu. Ospe handiko Doty soziologoaren ustetan, obsesio horren ondorioz gizarte-talde batzuk (etorkinak, bereziki) «arrazializatu» egin dira, oro har kanpokotasunarekin eta lizunkeriarekin zerikusia duten bereizgarri negatiboak esleituta gainera.

Julia Bristeva psikoanalista europarraren ustetan, kultuen eta muturreko nazionalismoen gorroto-erreakzioa dago zatiketa horren oinarrian. Besteekin harremanetan jarri ezin daitezkeenek beste horiek gorrotatzea errazagoa dela pentsa dezakete, eta, komunikazio-ezintasun hori justifikatzeko, gurearen bestelako jatorria dutenak gorrotatu, besterik gabe. Erraza da gu bezalakoak ez diren «beste» talde horiek baino «gehiago» garela pentsatzea, etikoagoak, zintzoagoak eta gizatiarragoak garela pentsatzea alegia. Hortik aurrera, gero eta errazagoa izango da haien aurkako bidegabekeria onartzea. «Azken batean desberdinak dira» esan ohi da.

Etorkinak, nolanahi ere, eta etorkina den aldetik, «desberdina» dela sentitzen du benetan, kultura berriaren aldean. Kasu horretan, atzerritarra ez dago gure barruan soilik, kanpo-esperientzia ere bada, herri berriaren egunerokotasunean betiere indarrean egongo dena. Etorkinak eta etorkinen familiak prozesu oso bat egin behar dute: atzerritarrak izango dira lehenbizi, arrotzak gero, eta talde bateko kideak azkenean. Nolanahi ere, taldera bildu ostean ere, egoera berezi batean geratuko da, bertakoen aldean arrotza izaten jarraituko duelako. *Diferentzia* (barnekoa, etnikoa, erlijiozkoa, arrazazkoa, soziala edo politikoa) eta taldera biltzearen eta taldearekin bat guztiz ez egitearen arteko borroka, onartu eta errespetatu behar dira. Izan ere, azken batean, lan honen egileak dioenez, «kultura arteko txokeak ez dira *diferentzia* horren ondorioz sortzen, diferentzia horren inguruan antolatzen dugun ikusmoldearen ondorioz baizik».

Nolanahi ere, immigrazioaren esperientzia erronka pizgarria ere bada, aldi berean estresa- eta neke-iturria bada ere, baita *selfa* zabaltzeko prozesu bat ere. Etorkinek egia erlatibizatzen ikasten dute. Izateko eta jarduteko modu bat baino gehiago badaudela ohartzen dira, eta askatasunez pentsatzen ikasten dute. Askatasuna sentitzen dute nolabait, nahiz eta egoera horrek, jakina, antsietatea ere badakarren. Dagoeneko ezer ere ez da automatikoa izango, dena zalantzazkoa izango da. Eta, lan honen egileak oso ondo adierazi duenez, «kontzeptu bat aztertu behar da bereziki: fundamentalismoa», eta erlijio baten barruan eta komunitate musulman baten eta Euskadiko testuinguruaren barruan aztertu behar da gainera.

Horren ildotik, egileak gaiari heltzeko erabilitako ikuspegi teorikoak eta ikerketa enpirikoak erantzunak ematen dizkigute komunitate musulmana harrerako herrian, euskal gizartean kasu honetan, txertatzeari dagokionez sortzen diren galderen inguruan. Egileak, teoriaren barnean, hausnarketa bat landu zuen erlijiositatearen aldagaiari garrantzia emanez, eta hausnarketa hori garrantzitsua da etorkinen kultura-identitateen garapenean. 121 pertsona elkarrizketatu ditu horretarako, bi sexuetakoak, EAEn (Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian) bizi diren musulmanen ordezkariak diren heinean: zentro-zuzendariak, imanak, jardueren arduradunak, zuzendaritza-batzordeetako kideak eta, beren erlijioaren berezko errituak betetzeko, meskitetara maiz joaten diren musulmanak.

Psikologiaren ikuspegitik dagoeneko ikus dezakegu erlijioen psikologia gero eta indar handiagoa hartzen ari dela psikologiaren diziplina zientifikoa deiturikoaren barnean, eta, areago oraindik, diziplina horretara biltzen ari dela ere ikus dezakegu, une honetan espiritualtasunaren kontzeptua gehien balioesten duen psikologia transpertsonala esaten zaionaren laugarren indarra baliatu beharrik gabe. Aspaldi, Amerikako psikologiaren aitak, W. James jaunak, zehatz-mehatz jardun zuen erlijiozko konbertsioaren eta fenomeno horrek psikean eragiten dituen ondorio osasungarrien inguruan. Ezin dugu giza izaera aintzat hartu baldin eta erlijioa alde batera uzten badugu (James, W. 1902). Erlijiositatea benetako jarduera psikikoa dela hartu behar da aintzat, anormaltasun psikikoko iritzi erraz eta arina ematen bada ere argitu ezin daitekeena, gertakari psikiko guztiek erlijio-tonua har dezaketela kontuan hartuta. Erlijiosoa pertsonalena eta afektiboena da, errealitate behinen eta jainkotiar baten aurrean handitzat, seriotzat eta zirraragarritzat jotzen dugun guztia adierazten

duelako. Gainera, dohain baten modukoa da, eta ez du zerikusirik esfortzuaren, tentsioaren eta kanpoko erritu edo adierazpenaren antzera agertzen den esperientzia moralarekin.

Erlijioaren gertakariak bere ezaugarri bereziak ditu, eta, hala, guztiz gizatiarra, erreduziezina eta iraunkorra da, askotariko adierazpenetan, alderdi sozial eta banakoetan eta giza bizitzaren garapenean. Eta erlijiositatearen zein sinesgogortasunaren barnean jarduera psikikoa aztertzeak ohiko jarduerak bereizteko aukera ematen digu, baina ez erlijiositatearen izaera eta esanahia bereizteko aukera, betiere psikologiaren aukeren mugak gainditzen ez baditugu, kanon zientifikoei jarraiki, psikologiak judizioa existentziala baino ezin dezakeelako egin, balio-judiziorik egin gabe, eta erlijiositatearen alderdi kognitiboak osagarritasun-harremanetan bakarrik har ditzakeelako aintzat, eta ez elkarrekiko bazterkerian oinarritutako harremanetan. Psikologiak erakusten digu erlijiositatea ez dela arrazoibide soila, ezta sentimendu mugagabea edo atsedenik gabeko asaldura ere, koordinazioa eta gizakiaren erabateko konpromisoa baizik. Buru-osasunaren orekan erlijiositatea hartu behar da kontuan, gizakiongan sakon sustraitu baita, eskakizun biologikoak bezainbat (Zunini-De Nicolás). Erlijioa babesgarria da osasuna berreskuratzeko eta sustatzeko bidean. Egileak dioenez, «erlijioak ez ditu musulmanak emigratzera bultzatzen […], baina migrazio-prozesuaren gorabeherak eramaten eta arintzen laguntzen die». Nire erlijioak zerbait eskatzen badit, litekeena da zerbait hori beste batzuentzako onuragarri izatea. Beste batzuen portaera kontrolatzen ahalegintzen bada, ordea, ia seguru kaltegarria izango da beste horientzat.

Horiek guztiak etnikotik eta multikulturalismotik askoz haratago doaz. Identitatea beste pertsona batzuekiko harremanetan garatzen da, nolabaiteko testuinguru soziokultural baten barruan. Eta, horri jarraiki, egileak barneko eta kanpoko autokritikaren aldagaiak aztertzen ditu norberaren kulturari eta besteen kulturari atzera begiratzeko baliagarri diren heinean. Erlijio-tolerantzia ere aztertzen du ildo beretik, harremanetan jartzeko eta zintzotasunez eta inposiziorik gabe hitz egitea errespetatzeko ahalmena adierazten duen heinean. Moderazioa sustatu behar da, bitarteko jarrerak bilatzeko mugak gainditu gabe, helmugako gizartearekiko orekari eutsiz. Hala, separatismoa ahalbidetzen duten isolamendua eta autoritarismoa baztertu egingo lirateke. Izan ere, besteen mehatxuen aurrean gure garbitasunari eusten ahalegintzen bagara, pertsona zorrotzak, erasokorrak eta erradikalak bihur gaitezke, gizartearen

printzipio demokratikoen aurka doan autoritarismoa gailenduta. Fanatismoak, sozialki partekatutako ideia batekiko erabateko afektibitate-atxikimendua dakar berekin, eta fanatikoek balio absolutua ematen diote ideia horri eta ideia horren izenean suntsitu egin ditzakete aurrean jartzen zaizkien oztopo guztiak. Gainera, nortasun jakin batzuek, autoritarioak adibidez, horretarako joera erakusten dute, eta hortik joera fanatikoak sortzen dira, intolerantzian oinarrituta ideiak inposatu nahi dituztenak, baita horretarako indarkeria erabili behar badute ere. Psikologo sozialek diotenez, goian aztertutako hiru jarrera horiek bide emango lukete jarrera fanatiko horiek saihesteko (Javaloy, 1983).

Kontuan hartzekoa da bizi den testuingurua testu bihurtzen dela: etorkinak balio jakin batzuen gainean antolatzen du bere eguneroko bizitza, eta balio horiek sustraitu eta ainguratu egiten dute komunitate berriko kide gisa. Testuingurua aldatzen bada, testua ere aldatzen da. Etorkinentzat, aldaketa hori drastikoa eta azkarra da aldi berean. Hasieran aipatu dudan bezala, etorkinaren identitateak zenbait fase zeharkatu behar ditu, identitatea mehatxupean ikusteko esperientzia adibidez, eta horrek nahasmendura eta galera-sentsaziora darama gerora. Lehengo izaerak ez dira nahikoak dagoeneko. Testuinguru berrian denborak aurrera egin ahala, zenbait balio berenganatzen dituzte. Jokabide desberdinak agertzen hasten dira, eta batzuetan, haiekin bat egiten dute. Denborarekin ezaugarri berri horiek finkatu egiten dira, baina etorkinaren identitatearen barnean betiere izango da jatorrizko herrialdeko balio zaharretako batzuetarako tokia. Arian-arian hasierako shocka gainditurik, kultura berria onartzen du, poliki-poliki. Aldi berean, aldez aurreko identitatea interpretatzen du berriz ere, eta identitate horri eusten dio. Pixkana-pixkana, testuinguru berriko kide izatearen sentimendua nabarmenduko da gizarte-elkarreraginetan, aurreko kulturarekiko hasierako irrika biziaren hondarrari behin betiko eutsiko badio ere. Identitate berri bat sortu da, antzinakoa eta berria uztartuta, eta argi dago bi identitate horien arteko borroka betierekoa izango dela.

Komunitate integratzaile batek testuinguru argi bat sortzeko gauza izan behar du, kideei euskarria eta kide izatearen zentzua emateko gai izango dena. Egokitzeko gai izan behar du aldi berean, zirkunstantziak aldatzearekin batera. Eta etorkizunean iraungo du baldin eta transakzio-eredu alternatiboak eskuragarri baditu, eta malgutasunez jokatzen badu beharrezkoa denean eredu horiek mobilizatzeko.

Zenbait erlijio-instantziarekin immigrazioari buruz eztabaidatzea lagungarri izan daiteke immigrazioa ulertzeko modu berri bat sortzeko. Aurreiritzia, isolamendua, estatus sozioekonomikoaren beherakada eta tentsio soziokultural eta erlijiozkoek immigrazioaren esperientziarekin zerikusia izan dezakete, eta berriz ere antola daitezke. Horren ildotik, diferentziak kaltegarri izateari utzi eta balio bihur daiteke, estigma bihurtu beharrean. Itxaropena, konplexutasuna, aberastea, eta, are garrantzitsuagoa dena, aldez aurreko esperientzietatik ekarri dituzten gauza baliagarriak eta etorkinak izatearen esperientziaren inguruan sortu zaizkien galderak, lagungarri izan daitezke elkarren artean narratiba berri bat sortzeko, berria eta zaharra, jasotakoa eta galdutakoa, uztartuko dituena. Ospe handiko Eva Hoffman terapeutak dionez, «bi mundutakoa izatearen mina eta poza» integratzea da kontua.

Immigrazioaren esperientziari buruzko azterketa, eta immigrazio-prozesuaren narratiba berri bat bateratzeko eta batera sortzeko ahalmena baliagarri dira norberaren esperientziari eta historiari esanahi berri bat eta esanahi aberatsago bat emateko, eta, horren ondorioz, portaera aldatu egingo da. Komunitate berri horrekiko harremanak eraiki behar dira, jatorrizko herrialdearekiko loturak apurtu gabe. Egoerarik onenetan ere, galera-sentimenduak ez du alde egingo. Toki berria izugarri onuragarria izanagatik ere, atzean utzitakoak bere zama izango du beti. Ezkutuko altxorrak eta kide izateko arazoak lantzeak indartu egin dezake identitate-sena, eta lagungarri izan daiteke, halaber, elkarmendekotasun bizkortzaile bat ahalbidetzeko. Etorkinen familia den heinean —zaharra eta berria uztartzea, egokitzeko moduko giza sistema— familia baten identitatearen sustraiak zenbat eta sendoagoak izan, familia horretako kideek orduan eta aukera gehiago izango dituzte goiari eusteko eta berria berenganatzen asmatzeko. Herri globaleko herritarrak garen heinean, sustraitze berri hori sustatu behar dugu, landareari sendotzen eta hazten ahalbidetzen dioten belarrak landuz. Egileak honela dio: «egungo gizarte-eztabaidari ekarpen txiki bat egin nahi diogu, kultura eta erlijioen artean hain beharrezkoa den elkarrizketa bultzatzeko eta egozentrismo eta harrokeria kulturala gaitzesteko».

Honako galdera hau sortzen da, nola daramate aldi berean kide izatearen eta kide ez izatearen arteko etengabeko borroka hori? Aurkitutako datuen azterketa oso interesgarria da, eta egileak honela ikusten du: «Europara emigratzen duen musulmanak nahitaez heldu behar dio, zuzenean edo zeharka, bere kultura- eta erlijio-identitatea berreraikitzeko prozesuari. Horrek ez du esan nahi

bere fedearen funtsezko printzipioei uko egin behar dienik, etorkin musulmanen ustetan, printzipio horiek, haienganako sakoneko sentimenduak biltzeaz gain, Europako sistema sekularraren balioekin, hots, erlijio-aniztasunarekin, gizarte-berdintasunarekin eta tolerantziarekin, bateragarri direlako. Horren ildotik, zera ikusten da, Euskadiko musulmanek elementu jakin batzuk berenganatzen dituztela Europako gizartetik, hain zuzen ere haien ustetan beren sinesmen eta balioen sistemarekin antza dutenak edo sistema horretan ondoen uztar daitezkeenak: printzipio demokratikoak barneratzen dituzte; pluralismoa eta tolerantzia defendatzen dute; herrialde hartzailearen gizartearekin bat egiten ez badute, gizarte horretan zenbait ezaugarri positibo ikusten dituzte behintzat, eta abar.».

Nolanahi ere, nahiz eta etorkina izateak arrotza izatearen sentsazioa iraunaraztea eta sentsazio hori identitate bihurtzea dakarren berekin, hau da, etorkinak, bizi den tokiko kidea badela, baina kide izate hori oso modu berezian, arrotz baten antzera alegia, sentitzen duen heinean, horrek lagungarri behar du egun munduan bizi garen guztiok Etxe Komun berean bizitzen asma dezagun, guztiok ere Lurreko herriak garen neurrian.

Jakin badakigu aldeak murriztu egiten direla benetan edo birtualki edonora joan eta munduko beste muturrarekin konekta gaitezkeen neurrian. Alabaina, globalizazioa, unibertsoa eta munduko herritartasuna indarrean egonagatik ere, espezifikoaren eta partikularraren aldeko borrokak gogortu egin daitezke, eta fundamentalista bihurtu. Giza familia unibertsal handiko kide garen heinean, guztion arteko bizikidetza nagusitu behar da, eta bizikidetzan, errespetuan eta tolerantzian bizitzen ikasi behar dugu, balio horiek, Boff, L. (2007) egileak dioenez, bestelako mundu posible bat sortzeko oinarrizko eta ezinbesteko bertuteak direlako, gizateriak beharrezkoen eta preziatuen duen bakearen ongiaren oinarri. Espero dugu lan hau ikaskuntza-prozesu horretan lagungarri izatea.

Luis De Nicolás y Martínez
Irakasle emeritua, Deustuko Unibertsitateko
Psikologiako katedraduna

# Sarrera

> Bere burua da fanatikoaren aurreneko biktima; jarraian, haren gertuenekoak, eta, azkenik, haren intolerantziaren eta gorrotoaren jomugan jartzen dituen pertsona guztiak.

Europako Goi Erdi Aroko enperadore eta erregeek VII. mendetik zuten erlijio musulmanaren berri, hain zuzen ere Arabiako basamortuan aditzera eman zuten unetik. Ondoren, 1094. urtetik 1156. urtera bitarteko aldian, gutxi gorabehera, Pedro Beneragarriak, Clunyko abade ospetsuak, Korana latinera itzultzeko lehen itzulpena agindu zuen, edo, besteak beste, Avizenaren (980-1037) eta Averroesen (1126-1198) lanak Europako hizkuntzetara itzuli zituzten. Gaur egun, Europako herritarrok, gure azterlanaren jomuga den Euskadikook barne, ondo asko dakigu Islama egon badagoela, eta, hori ez ezik, ezinbestean eta era batera zein bestera, egunero-egunero Islamarekin harremanetan jarri behar dugula. Hala eta guztiz ere, Europan mundu islamikoari buruz pentsatzen eta argitaratzen den guztia aztertzen badugu, oso erraza da, oso kasu bakanetan izan ezik, honako tankera honetako esaldiak aurkitzea: «Islama oso ezezaguna da», «mundu islamikoarekin zerikusia duen guztia arrotza eta ulertezina da guretzat», «Islamaren aurrean, aurreiritzi eta estereotipoak dira nagusi», «diferentzia-horma handiak daude Europaren eta kultura musulmanaren artean» eta abar luze bat. Eta gure buruari galdetzen badiogu horrelakoak noiz arte entzun beharko ditugun, erantzun ohikoena zera da, itxura guztien arabera, epe laburrean ez direla desagertuko, egungo egoera ilun-iluna ikusita.

Hala, eta zehazkiago, Espainian, edo Euskadin, finkatutako musulmanen kolektiboa oso desberdina edo bateraezina delako uste hori dela-eta, gaizki-ulertuak, beldurrak eta kezkak areagotzen ari dira bi aldeetan. Bestetik, uste hori lagungarri ere bada, musulmanen identitatea eta erlijio-adierazpenak fundamentalismoarekin lotzeko joera gero eta handiagoa sustatzeko. Badira zenbait arrazoi identifikazio hori ohiko bihurtu izanaren atzean:

1. «etsai-irudi» bat sortu da, eta, prozesu horretan —aurrerago luzeago hitz egingo dugu horren inguruan—, aurkari eta etsaitzat jotzen direnen irudi negatibo bat eman nahi izan da, norberaren egintzak justifikatzeko eta norberaren irrika psikologiko eta sozialak asetzeko,

2. musulmanek darabilten diskurtsoa ez da eraginkortasunez iristen Europako solaskideen belarrietara. Azken horren harira, diskurtsoa eta autosustapenerako erabiltzen dituzten bitartekoak nahiko eskasak direla esan dezakegu. Musulmanen komunitateko ordezkari edo bozeramaile guztiek ez dute harrera-herrialdearen hizkuntza menderatzen, ezta haren kode kultural eta sozialak ezagutzen ere. Askotariko arrazoiak daude errealitate horren atzean, eta, arrazoi horiek sakonetik aztertu gabe, zera esan dezakegu, musulmanek elkarrizketaren aldeko espiritua eta jarrera izanagatik ere, elkarrizketarako *tresna egokirik* ez dutela eskura, eta horrek are zailago bihurtzen dituela musulmanak beren egoera eta benetako ikuspegia azaltzeko eta haienganako aurreiritziak uxatzeko egiten ari diren ahaleginak. Azkenik,

3. Palestinako okupazioa, atentatuak (irailaren 11koa eta martxoaren 11koa, bereziki), Estatu Batuek eta mendebaldeko beste herrialde batzuek Afganistanen eta Iraken aurrera eramandako esku-hartze militarra, Israelek Libanon edo Gazan jaurtitako bonbak, eta abar. Gertaera horiek guztiek, batetik, *areagotu* egin dituzte Islamak, erlijio eta printzipio sorta den aldetik, obskurantismoarekin eta fundamentalismoarekin izan dezakeen loturari buruzko eztabaida sozial eta politikoak, eta, bestetik, zera utzi dute agerian, «Mendebalde harroputzak» aurrera jarraitzen duela mundu islamikoan oro har eta Ekialde Hurbilean bereziki hamarkada luzeetan aurrera eramandako politika arduragabe eta zoroekin.

Nolanahi ere, zer dela-eta lotzen da musulmanen komunitate osoa fundamentalismoaren fenomenoarekin? Zer arrazoibide eta erlijio-kontzeptu aldarrikatzen dituzte musulmanek? Edo, zehazkiago, Euskadin bizi diren musulmanak fundamentalistak al dira? Zer jarrera hartzen dute fenomeno horren aurrean? Fundamentalismoaren adierazgarri al dira haien kontzeptu eta jarrerak? Galdera horien eta antzeko beste batzuen gainean eraiki dugu ikerlana, gure ustez funtsezkoa delako erantzun egokiak bilatzea eta aztergai horren inguruko hausnarketa lasai eta koherenteak garatzea. Gure asmoa da egungo gizarte-eztabaidari ekarpen txiki bat egitea, kultura eta erlijioen artean hain beharrezkoa den elkarrizketaren alde eta egozentrismoaren eta kultura-harrokeriaren aurka.

Hortaz, ondo asko ikusten denez, lan honek helburu espezifiko bikoitza dauka: batetik, fundamentalismo islamikoaren fenomenoaren berri ematea, euskal gi-

zartean finkatutako musulmanen komunitateak nola definitzen duten eta komunitate horretan nola agertzen den (agertzen baldin bada) aintzat hartuta. Horrekin zera lortu nahi dugu, oro har fundamentalismoaren eta bereziki fundamentalismo islamikoaren errealitatearen deskribapen eta azterketa ahalik eta zehatzena eskaintzea. Bestetik, komunitate islamikoen eta harrerako gizarte europarren artean garatutako elkarrekiko irudia, zoritxarrez eta gure uste apalean behintzat, oso itxaropentsua ez dela kontuan hartuta, EAEn finkatutako musulmanen kolektibora hurbiltzea izan da gure bigarren helburua, kolektibo horretako kideen jarrera, ezaugarri eta erlijio-osagaiak sakonetik ikertzeko, eta, aldi berean, normalean fundamentalistatzat jotzen diren jarrerekin zenbaterainoko antza duten edo jarrera horietatik zenbateraino urruntzen diren egiaztatzeko, eta horri dagokionez zer jarrera duten eta non kokatzen diren ikusteko.

Oinarrizko helburu horiek ezarri ondoren, lana bost atal nagusitan banatu dugu, askotariko metodologia eta ikerketa-tekniken konbinazioaren haritik etorri direnak. Azterlanaren lehen kapituluan, hausnarketa egin dugu immigrazioaren erlijio-faktorearen inguruan, zehazkiago, faktore horrek duen garrantziaren inguruan eta beren burua fededuntzat eta erlijiosotzat jotzen duten etorkinen kolektiboak harrerako gizartean integratzeko prozesuetan betetzen duen zereginaren inguruan. Europako gizarteak laikotzat edo sekulartzat jotzen du bere burua, eta, horren haritik problematika gogaikarria sortu da, Europako gizartearen kultura-aniztasunaren errealitate berri hori kudeatzean etorkinen erlijiositatea aintzat hartzeko dauden aukeren inguruan. Guk problematika hori ikertu nahi izan dugu, sakonetik ikertu ere. Europako gizarteak, beraz, gaindituta zeuzkan erlijioak bizitza publikoan bete behar duen zereginaren inguruko eztabaida, eta, antza denez, erlijioa «pribatizatzeko» prozesua abian jarri beharra zegoela ondorioztatua zuen. Alabaina, hainbat etorkin iritsi dira gurera, askotariko ikuspegi eta pentsamoldeen jabe direnak, eta horren haritik eztabaida horiek berriz ere piztu dira, eta berriz ere agerian geratu da gure gizartea eraiki behar dugula une honetan nagusi den mundu-ikuskera aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta. Gainera, azterlan honetarako ezarri ditugu helburuekin bat etorriz, musulmanen kolektiboak Europako gizartearen baitan dituen dimentsio guztiak aztertu ditugu bereziki, hau da, musulmanak gizarte honetara biltzeak ekar ditzakeen erronkak, eta, asimilaezintzat eta digeriezintzat aurkeztuz, kolektibo horren inguruan sortu diren mitoak.

Bigarren kapituluan, gai horri buruzko hainbat datu bildu eta aztertu ditugu. Ikuspegi teoriko bat eta hausnarketa pertsonal bat garatu ditugu fase horretan, fundamentalismoaren ezaugarriei, historiari, arrazoiei eta bilakaerari buruzkoa, fundamentalismoa, ezbairik gabe, fenomeno unibertsala izanik, gai horri buruz dagoeneko egindako azterlan ugariak oinarritzat hartuta. Horren haritik, eta kontuan hartuta «fundamentalismoa» hitz anbiguoa dela, horren eta horri lotutako zenbait hitzen —«tradizionalismoa», «integrismoa» eta abar— esanahia argitu behar izan dugu, elkarren artean bereizteko.

Gainera, hirugarren kapituluan, gai bakarra landu dugu: fundamentalismo islamikoaren fenomenoari buruzko hausnarketa teorikoa. Mundu arabiar-islamikoaren egungo egoera sozial eta politikoaren inguruko azalpena egin dugu, eta horren haritik azaldu dugu mundu horren krisiak lagungarri gertatu direla erlijio-mugimendu islamikoak agertu eta politikan barneratzeko, krisiari aurre egiteko bitarteko politiko eta ekonomiko eraginkorraren antzera, eta, gizarte horretan, islamaren erreferentzia eta garai bateko lidertza berreskuratzeko. Beste zenbait faktore ere aztertu ditugu, herrialde arabiar eta islamiko gehienak erlijiositatera itzultzean eta erlijiositatearen gorakadan zeresana izan zuten neurrian.

Bestetik, Euskadin bizi diren musulmanen komunitateari buruz eginak genituen galdera espezifikoei erantzuteko, datuak tokian bertan bilatzeko lana burutu behar izan dugu ezinbestean. Hala, bildutako informazioari dagokionez, laugarren kapituluan, azterlana garatzean erabilitako metodologia jaso dugu. EAEko hiru lurraldeetan bizi diren musulmanen erlijiositatea fundamentalista den edo ez jakin nahi genuen, eta, galdera horri objektibotasunez erantzuteko, horretarako berariazko prozedura batera jo behar izan dugu: neurtzeko tresna egoki eta baliagarri bat landu behar genuen aldez aurretik, ezinbestean, eta arabiera klasikora itzuli behar genuen, fundamentalismoaren fenomenoaren inguruan literaturan ageri diren definizioekin zerikusi handia duten heinean garrantzizkotzat jo ditugun aldagaiak neurtzeko. 35 itemek osatzen dute neurtzeko egitura. Honako aldagai hauek neurtzen dituzte: «barneko eta kanpoko autokritika», «isolamendua», «erlijio-tolerantzia», «moderazioa» eta «autoritarismoa».

Hortaz, azterlanaren xede diren musulmanen komunitatearen zenbait alderdi kuantitatibo (erroldatuen kopurua ezaugarri soziodemografikoak, generoa eta

abar) aipatu baditugu ere, metodologia kualitatiboa erabili dugu bereziki. Zenbait arrazoi daude horretarako: batetik, kontuan hartzekoa da azken urteetan zenbait liburu eta azterlan argitaratu direla, estatistika-informazio garrantzizkoa eta sinesgarria ekarri dutenak eta euskal gizartean finkatutako musulmanen komunitatearen egoera soziodemografikoaren berri izan nahi duen ikerlari orok eskura ditzakeenak. Gaurko egunean, gainera, ez da aldaketa handirik nabari, kolektibo horren kopuruei dagokienez. Hala, musulmanen komunitatearen fundamentalismo-maila aztertzeko, komunitate horrengana hurbildu gara eta erdiegituratutako sakoneko zenbait elkarrizketa egin dizkiegu, bananbanan, hautatako lagina osatu duten parte-hartzaile guztiei. Musulmanen komunitateak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan eraikitako kultuzentroen (meskitak) barnean egin ditugu elkarrizketa gehienak, eta oso baliagarri gertatu zaizkigu ikergaiaren inguruan balio handiko gauzak jakiteko. 121 parte-hartzaile hautatu ditugu elkarrizketa egiteko, eta, askotariko lagin heterogeneoa osatu badute ere, guztiek ere zenbait ezaugarri komun zituzten: Euskadin kokatutako musulmanen komunitateko kideak ziren guztiak, eta, gainera, nahikoa erlijiosoak zirela zioten. Batzuk emakumezko eta gizonezko fededunak dira, meskitetara maiz jotzen dutenak beren erlijioaren errituak betetzeko; beste batzuk, berriz, mundu arabiar eta islamikoarekin zerikusia duten kultura- eta erlijio-elkarteetako zuzendaritza-batzordeetako arduradunak eta kideak dira; eta, azkenik, Euskadin ezarritako hainbat oratorio ere bisitatu genituen, bertako erlijioburu eta imanei ere elkarrizketa egiteko.

Bosgarren kapituluan, aldez aurretik landa-lanean bildutako datuak aztertu ditugu. Euskadin finkatutako musulmanen komunitatearen fundamentalismoaren maila neurtzeko galdesorta aplikatuz, informazio zehatza lortu dugu kolektibo horrek fundamentalismoaren inguruan dituen jarrera, iritzi eta jokabideei buruz. Oso korrelazio txikia aurkitu dugu parte-hartzaileen jarreren —% 95ek egunero meskitara joaten diren musulmanak direla adierazi dute— eta fundamentalismoaren ohiko ezaugarrien artean. Hala, elkarrizketatuek oso puntuazio txikia lortu dute «autoritarismo»- eta «isolamendu»-maila neurtzeko prestatutako galderetan, baina nahiko puntuazio handia, batez beste, beste faktore batzuei dagokienez: «erlijio-tolerantzia», «barneko eta kanpoko autokritika» eta «moderazioa».

Azterlana hasi genuenez geroztik oso argi ikusi genuen bidean hainbat muga aurkituko genituzkeela, eta muga horietako batzuek ikergaiarekin zerikusia

zutela. Izan ere, gai arriskugarri eta labainkorra da benetan, kontuz ibiltzekoa eta modu askotara interpreta daitekeena. «Fundamentalismoa» hitzaren kontzeptuzko zentzuaren inguruan asko eztabaidatu da. HItzak zenbait konnotazio eta esanahi oso mespretxatzaile jaso ditu, eta, gainera, sarritan arinkeriaz erabili da, desberdintzat eta aurkaritzat jotzen diren «besteak» mespretxatu eta beste horiei bortizki erasotzeko. Askok egunero erabiltzen dute hitz hori, baina inork gutxik daki benetan zer esan nahi duen edo nondik datorren. Zer da fundamentalismoa? Non dago fededun soilaren eta fundamentalistaren arteko muga? Nork zehazten du muga hori, eta zer parametro aintzat hartuta? Galdera horiei erantzuteko, lehenik eta behin hitzaren jatorriari buruzko ikerketa egin behar izan dugu, hitzaren benetako esanahia ulertzeko, eta nola bilakatu den eta kultura musulmanarekin lotzeko zer dela-eta erabili den jakiteko.

Bestetik, fundamentalismo islamikoa neurtzeko berariazko tresna bat ere ez genuen aurkitu, eta bigarren muga handi hori ere gainditu behar izan dugu, ezinbestean. Gainera, fundamentalismoa neurtzeko indarrean zeuden eskalak kristau erlijioaren eremuan sortuak ziren, eta ez dute inolako baliorik testuinguru horretatik kanpo. Hortaz, tresna bat sortu behar izan dugu azterlan honetan ezarritako helburuak lortzeko. Galdesortaren nagusitasuna eta egokitasuna bermatzeko balidazio-prozesuak funtsezkoak izan dira ikerketa garatzeko.

Horrelako azterlan transkulturaletan ageri ohi diren komunikazio-zailtasunak ere gainditu behar genituen nolabait. Hala, Euskadin finkatutako musulmanen kolektiboari dagokion laginaren fundamentalismoaren maila neurtzeko tresna diseinatu ondoren, arabierara itzuli dugu, hain zuzen ere erlijio musulmanari estu lotuta dagoen hizkuntzara. Hizkuntza erabiliena da gainera, baina ez bakarra, fededun komunitate hori osatzen duten hiztunen artean. Bertsio klasikora itzuli dugu testua, arabiera estandarrera alegia, bost kontinenteetan arabieraz hitz egiten den herrialdeetako herritarrek eta beste hainbat herrialde musulmanenetakoek (azken horiek, neurri txikiagoan) hizkuntza hori erabiltzen dutelako elkarren artean komunikatzeko. Komunikabideen, literaturaren eta poesiaren hizkuntza ere bada. Elkarrizketak egiteko hizkuntza hori hautatu dugu, beraz, eta onartu beharrean gaude hori muga bat izan dela galdesorta bete behar zuten parte-hartzaileak hautatzerakoan, hizkuntza nahikoa ondo menderatzen zuten hiztunak edo gutxienez alfabetatze-maila egokia zutenak aukeratu behar genituelako. Azpimarratu beharrean gaude, nolanahi ere, landa-lana egiteko bisitatu ditugun eremuek, kultu-zentroek alegia, bidea erraztu

digutela, zailtasun hori gainditzen lagundu diguten neurrian. Izan ere, elkarrizketa gehienak meskitetan egin genituen, eta meskitetara askotariko jatorrietako eta askotariko maila kultural eta akademikoak dituzten fededunak joaten direnez, horien guztien artean badira hainbat fededun arabiera klasikoa erabiltzen dutenak, agerkundearen hizkuntza eta Islamaren liturgiaren hizkuntza delako (hori, jakina, hizkuntza hori ikasteko eta menderatzeko arrazoi sendo bat da fededun ororentzat).

# 1 Erlijioa, aniztasuna eta immigrazioa

## 1.1. Erlijioaren faktorea immigrazioan

Ia bi hamarkada joan dira Espainiako gizartean kultura-aniztasunaren eta demografiaren alorretan lehen eraldaketa eta egokitzapenak nabari zirenetik. Munduko hainbat tokitatik hainbat atzerritar iritsi ziren, eta horrek zeresan handia izan du kultura- eta gizarte-aldaketa horietan. Etorkinek askotariko helburu eta arrazoirengatik hasten dute bidaia, baina guztiek ere aukera hobeen bila hasten dute bizitza berrira daramatzan bidea. Harrerako gizarteetara jotzen dute duten guztia atzean utzita, edo, hobe esanda, atzean ezer ere utzi gabe, den-dena gainean daramatelako. Azken batean, etorkinek, jatorrizko herrialdeetatik abiatzean, gogoa eta itxaropenez gain, hainbat tradizio, ikur eta balio dakartzate berekin, eta oinarri horien gainean berreraiki eta kohesionatzen dute beren kultura- eta gizarte-identitatea. Izan ere, horiek guztiak informazio- eta ikaskuntza-iturri baliagarria ere osatzen dute, pertsona eta familientzat lagungarri dena, etorkinak izan edo ez, beren identitate indibidual eta kolektiboak lantzeko. Hortaz, ulergarria eta zentzuzkoa ere bada pentsatzea etorkinek jakinduria hori guztia izango dutela bide-lagun, neurri handiagoan edo txikiagoan, harrerako gizarteetara emigratzeko eta bertan finkatzeko proiektu osoan zehar.

Azpimarratzekoa da etorkin gehienak ekonomia garatzeko bidean dauden herrialdeetatik datozela, eta, herrialde horietan, Europako gizartean bere garaian garatu zirenak bezalako sekularizazio-prozesuak geldituta daudela, edota, areago oraindik, gizarte horiek ez diotela oraindik ekin erlijioaren garrantzia gutxitzeko eta bizitza publikotik bereizteko bideari [Ekin behar al diote, ezinbestean?]. Bestela esanda, erlijioaren faktorea, edozein arrazoirengatik dela ere, hainbat atzerritarren kultura-identitatearen osagai nagusietako bat da. Eta horrek ez du esan nahi atzerritarren erlijiositatea mugiezina edo aldaezina denik, baizik eta harrerako gizartearekin eta gizarte horren kultura eta jokabideekin harremanetan jartzeak eta elkarreragiteak ikuspegi aberasgarri berriak ahalbi-

detuko dituela pertsona horientzat. Baina ez du esan nahi, halaber, eta hori argi uztea komeni da, sakratua anakronikoa eta hutsala denik, eta horrenbestez ezerezean geratuko denik etorkinek Europako gizartearekin bat egin eta haren bizimodu modernora egokitu eta berehala. Aitzitik, erlijiozko ikuspegia eta adierazpenak, sarritan, jendearen erantzun garbiak baino ez dira, modernizazioaren muga eta urradura ezagunen aurrean, modernizazioaren proiektuak ez duelako aurkitzen, espero zenaren kontra, gizakion galdera ugariei eman beharreko behin betiko erantzuna.

Bestetik, Europan etorkinak hartu dituzten erakunde eta gizarteek garrantzizko egokitzapenak egin behar izan zituzten hainbat eremutan, atzerritarrak harrerako gizartean integratzeko eta gizarte horrekin bat egiteko bidea errazteko. Eta guk oso begi onez ikusten ditugu egindako egokitzapen eta ahalegin juridiko, sozial eta psikologiko guztiak. Nolanahi ere, esan beharra dago egokitzapen horien ikuspegia zehazterakoan erlijioa ez zela aintzat hartu, elkar ulertzea eta bizikidetza nekez ahalbide lezakeen neurrian. Aitzitik, sarritan ikusten dugu zenbait etorkin kolektiboren erlijiositatea, harrerako gizartean ohikoak direnez bestelako sinesmen eta erlijio-praktikak dituztenen erlijiositatea bereziki, atzerapentzat jotzen dela, askatasun eta berdintasun sozialen alorrean harrerako gizarteak lortutako aurrerapenei dagokienez. Horrenbestez, erlijio-adierazpenak, bateraezintzat, negatibotzat eta mespretxagarritzat jotzen direnak bereziki, oztopotzat jotzen dira, hain zuzen ere etorkinak gizartean modu ezin hobean integratzea galarazten duten oztopotzat. Areago, gai horren harira sortutako zenbait diskurtsoren arabera, zenbait etorkin talde errazago integratzen dira beste talde batzuk baino, erlijioaren arabera. Hau da, ikuspegi horren arabera, harrerako gizartearen sinesmenen pareko edo antzeko erlijio-sinesmenak dituzten kolektiboek errazago izango lukete integrazioaren proba gainditzea. Eta erretorika hori aitzakiatzat erabiltzen da batzuetan oso gertukoak ez diren edo oso gertukotzat jotzen ez diren kolektiboen aurkako segregazio-neurriak eta xenofobia-jarrerak justifikatzeko.

## 1.2. Erlijio-aniztasuna gizarte sekular baten esparruan

Ikuspegi historiko batetik begiratuta, mendebaldeko gizarteen ibilbide kultural eta politikoan, erabateko homogeneotasun konfesionala izan da nagu-

si[1]. Orobat, zenbait laizizazio-prozesu zail eraman dira aurrera, eta horrek, amaieran, erlijioaren eginkizun publikoa gizarte horietan mugatzea ekarri du berekin. Hala, pertsonek ez dute zertan sakratura jo beren erabaki pertsonal eta kolektiboak, beren ikuspegiak eta beren ekintzak, legeztatzeko. Elizak ezin ditu hain erraz konbentzitu, haien bizitzaren zentzuari buruzko interpretazio eta istorioen bitartez. Jendeak gero eta arrazionaltasun handiagoz jokatzen zuen: hainbatek Sortzailearen existentzia zalantzan jartzen zuten, eta beste hainbat are urrunago joaten ziren, erlijio-narrazioak kontu soilak zirela esanez. Eta horrek guztiak independentzia eta autosufizientzia espirituala zekarkien inplikatutako pertsona guztiei.

Europako gizarteak dagoeneko sekularizatuta daude, beraz, eta horregatik agian, ez dute ulertzen edo ez dute begi onez ikusten etorkinen kolektiboek adieraztea erlijioa garrantzizko osagai esanguratsua dela beren bizitzetan, baita garapen indibidual eta kolektiborako erreferentzia bideragarria dela ere, galdu nahi ez luketena. Elkar ulertzeko ezintasuna are handiagoa da kolektibo horiek gune eta jardunbide bereziak (kultu-zentroak, hilerriak, elikadura-erregimen jakin batzuk onartzea, jantzi jakin batzuk eramatea eta abar) eskatzen dituztenean beren sinesmenak betetzeko eta beren praktika espiritualak egiteko. Hortik zera ondoriozta dezakegu, erakunde publikoek, atzerritarren integrazioa kudeatu eta sustatzeko legeak artikulatzean, ez ziotela erlijiositateari behar adinako arreta eskaintzen, erlijiositatea ez baitzuten jotzen integrazioa erraz lezakeen faktoretzat, aldez aurretik adierazi dugun bezala. Etorkinen kopurua eta premiak, ordea, gora zihoazen, eta, gauzak horrela, konponbide bila hasi behar izan zen, ezinbestean. Horren ondorioz, Europako gizartean, eta Euskadi ezin daiteke prozesu horretatik kanpo geratu, eztabaida sortu da eztabaidatuta zeuden eta itxuraz behintzat aspaldi konponduta zeuden zenbait gairen inguruan: erlijioak bizitza publikoan duen zeregina, praktikatzen den erlijiositate mota, eta erlijio-aniztasuna eta erlijio-aniztasunaren kudeaketa.

---

[1] Egia da XIX. mendearen amaierako sekularizazioarekin batera Europan aldaketa batzuk nabarmendu zirela, eta, hala, kristau erlijioaren uniformetasuna, Europako garai hartako gizartearen ikurra zena, ikuspegi-aniztasun bihurtu zela. Baina egia da, halaber, aniztasun horrek politikarekin zerikusi handiagoa zuela erlijioarekin baino. Izan ere, Europako gizartean, eta Espainiako gizartean bereziki, erlijio desberdinen presentziaren pertzepzioa orain gutxi arte ez da nabari, eta hori hala izan da orain gutxiko migrazio-mugimendu ondorioz. Hala, erlijio-aniztasunaren printzipioa eta arrazoibidea, erlijio-tradizio guztien balio espirituala eta morala onartzen duena, orain gutxi arte ez da osatu.

Argi dago oso bestelakoak diren erlijio-testuinguruetako pertsonen migrazio-mugimenduek Europako gizartearen kontzientzia iratzarri dutela —baita Euskadin, gure azterlanaren jomugan, ere— , erlijio-aniztasunaren eta erlijio-aniztasunaren ezaugarrien inguruan, eta hortik ondorioztatu da erlijio-aniztasuna eraiki behar dela ez gehiengoaren ikuspegia soilik aintzat hartuta, baizik eta gutxiengo etniko edo erlijiosoek berdintasunerako eta diskriminatuak ez izateko duten eskubidea aintzat hartuko duten jarraibideak aintzat hartuta. Horren ildotik, egungo gizartearen sare soziala eta kulturala osatzen duten kolektiboek funtsezkotzat jotzen dute erlijio jakin bat askatasunez praktikatzeko eskubidea. Azpimarratzekoa da euskal gizarteak, erakundeen bitartez eta gizartearen beste eremu batzuen eskutik, funtsezko zenbait ekimen eta azterlan kualitatibo egin dituela[2], kolektibo eta erlijio-sentsibilitate desberdinen arteko elkar ulertzearen eta kultura arteko elkarrizketaren alde. Hala, hurbilketa horri esker, bizi garen gizartearen erlijio-aniztasuna agerian geratu da eta ezagutzera eman da, erakundeek eta gizarteak komunitate horiek eta erlijio-askatasunerako duten eskubidea onar dezaten bultzatuz, eta askatasun horren eta askatasun horrek bizikidetzako eta elkar ulertzeko esparru egokia sortzean duen zereginaren inguruko eztabaida eta pentsamendu kritikoa sustatuz; esan gabe doa azken hori bereziki garrantzi handikoa dela bizi garen une honetan.

## 1.3. Immigratutako Islama: irudi eta errealitateen historia

Behin puntu honetara iritsita lasai asko esan dezakegu musulmanen komunitatea dela, jakina, lehen hizpide hartu ditugun gutxiengoetako bat. Eta, jakina, kolektibo horretako kidea denarentzat ez da batere erraza ez nabarmentzea, fisonomia-[3] eta kultura-arrazoiak direla medio. Gainera, harrerako gizartean

---

[2] Horren haritik aipatzekoa da Justizia Ministerioaren mendekoa den Aniztasuna eta Bizikidetza Fundazioak ikerketa aitzindaria bultzatu duela, Deustuko Unibertsitatearekin eta Ignacio Ellacuría Fundazio Sozialarekin elkarlanean. Gizarte-zientzietan adituak diren zenbait pertsonak eta erakunde horiekin zerikusia duten zenbait akademikok egin dute ikerketa (2010ean argitaratuko da), EAEko erlijio-gutxiengoen errealitatearen, antolaketaren eta itxaropen eta premien inguruko mapa egiteko asmoarekin.

[3] Ezinbestekoa da azpimarratzea, gauza jakina bada ere, Islama praktikatzen duten herriak askotarikoak direla. Izan ere, erlijioa baita mundu osoko askotariko hainbat etnia, kultura, hizkuntza, ezaugarri, gizarte eta abarren izendatzaile komuna. Euskal Autonomia Erkidegoan finkatutako musulmanen artean ere nabari da aniztasun hori, baina esan beharra dago musulman horietako gehienak eremu beretik, Magrebeko herrialdeetatik alegia, datozela.

etorkin musulmanen kopurua igo ahala, komunitate horren berezko kultura-adierazpenak, erlijioak ikusteko eta ulertzeko moduarekin zerikusi handia dutenak, areagotu egiten dira, logikoa denez, eta eremu publikoan areago nabarmentzen dira: oratorioak eta kulturako eta topaketarako meskitak, jantzi propioak, janari-dendak eta *Halal*[4] jatetxeak, erlijio-jaien ospakizun kolektiboak, eta abar.

Gaurko egunean, immigrazioaren erlijio-faktorea hizpide hartzea, ia-ia, immigratutako Islama hizpide hartzea dela esan dezakegu. Gainera, egiari zor, atzerritarrak integratzeko prozesuek berekin ekar ditzaketen zailtasunak identifikatzeko egin ohi diren ekimen eta hurbilketa ugariek berriz ere erakusten dutenez, harrerako gizartearentzat musulmanen identitatea da asimilatzeko eta digeritzeko zailena. Harrerako gizartearentzat, komunitate horretako kideak oso erlijiosoak dira, eta lotura estua dute haien fedearekin; gainera, mehatxugarritzat eta beldurgarritzat jotzen dituzte ezaugarri horiek harrerako gizarteko herritarrek. Eta hori ez da hala etorkinen gainerako kolektiboak erlijiosoak ez direlako[5], ezta musulmanen taldeek kide gehiago dituztelako ere, baizik eta azken horien presentziak Europako oroimen kolektibo jakin bat suspertzen duelako, hain zuzen ere Islama eta mundu islamikoa modu estereotipatu, erreduziezin eta arbitrario batez irudikatzen duten indar handiko irudiz josita dagoen Europako oroimen kolektiboa. Eta irudikapen hori etengabea izan da historian zehar: erlijio-erakundeek Europa gobernatzen zutenean, Eu-

---

[4] *Halal* hitzak zera esan nahi du, osasuntsua, etikoa, egokia edo zuzena izateagatik baimenduta egotea. Oro har, erlijio musulmanak legezkotzat jotako jardunbide eta gauza guztiak hartzen ditu eraginpean hitz horrek. Inori kalte fisikorik, moralik edo materialik eragin gabe guztion ongizatea helburu duen edozein giza egintza edo portaera *Halal*-tzat jotzen da, eta, hortaz, baimenduta eta akreditatuta dago. Hasteko, gauza guztiak, berez, egin daitezke (ekintzak badira), izan daitezke (materialak edo abstraktuak badira) eta kontsumi daitezke (janari solido edo likidoak badira), gauza horiek inorentzat kaltegarriak edo kutsagarriak ez badira behintzat. Azken kasu horretan, *Haram* izango dira, hau da, galarazita edo debekatuta egongo dira. Janari eta edariei dagokienez, testu koranikoak eta tradizio musulmanak ezartzen dute guztiak ere kontsumi daitezkeela, honako hauek izan ezik: berez hildako animaliaren haragia, zartadaz hildako animalia, asfixiaz edota erorketa zein adarkada baten ondorioz hildako animalia, basapiztiek jandakoa, haragijalea eta haratustejalea, letaginak dituena, txerrikia, hegazti harrapariak eta alkohola.

[5] Migraziorako eta Errefuxiatuentzako Bulego Federalak Alemanian egin zuen eta 2009an argitaratu zuen inkesta batek berretsi egin ditu uste horiek. Inkestatik ondorioztatu denez, elkarrizketatutako 17.000 musulmanen heren batek soilik uste du arau islamikoekiko atxikimendu «handia» duela. Bestetik, azterlanak zera eman du aditzera, proselito musulmanen eta gainerako fededunen arteko konparazioak agerian uzten duela musulmanak ez direla erlijiositate-maila handia duten bakarrak. Aldeak oso txikiak dira erlijio-talde batzuen eta besteen artean.

ropa eta mundu islamikoa bateraezinak zirela uste zen. Gaur egun, Europako gobernuetan sistema demokratikoa nagusi izanik, mundu islamikoarekiko bateraezintasunak bere horretan jarraitzen duelako uste da, bitxia bada ere.

Hortaz, honako galdera hau egin dezakegu: Zergatik da Islama eta ez beste erlijio bat ikerlarien arreta bereganatu duena eta gizartean, jendartean, eztabaida-iturri izan dena? Zer dela-eta nagusitu da irudi eskas hori egun Europako gizartean bizi diren musulmanei dagokienez? Zer erlijiositate mota eta zer erlijio-kontzeptu dituzte musulmanek, Europako gizarteak horrela ikus ditzan? Nola ikusten dute harrerako gizartearekiko harremana eta gizarte horrek dagoeneko ezarritako sistema? Zer jarrera aldarrikatzen dute harreman horri dagokionez? Edo, zehazkiago galdetuta: Euskadin bizi diren musulmanak, fundamentalistak dira edo ez?, testuinguru horretan, zer esan nahi du fundamentalista edo moderatua izateak?

### 1.3.1. Irudi bat sortzea

Bi kulturen arteko harremana bakean eta elkarrekiko errespetuan oinarritzen bada, elkar ezagutzeko egoera egokia sortu eta sustatuko da normalean, hau da «bestearen» errealitatea modu zabalagoan, egiazkoagoan eta zehatzagoan ikusteko aukera izango dugu. Bien artean tentsio- eta borroka-giroa nagusitzen bada, ordea, oroimen kolektiboak, ezinbestean, susmo, errezelo eta mesfidantzarekin ikusiko du «beste» hori. Eta elkarren aurkako borroka- eta haserre-giro horrek denboran zenbat eta gehiago iraun, orduan eta errazagoa izango da irudikapen hori imaginario kolektiboan behin betiko finkatzea. Kasu horretan, pertsona eta kulturek hezurmamitzen duten ikuspegi negatiboa oso bizia eta boteretsua da, eta, indar horren eraginez, aurkako beste edozein irudi ikustea eta barneratzea zaila da benetan, nahiz eta «bestearekiko» esperientzia pertsonala emankorra izan edo esperientzia horrek frogatu hari buruz uste duguna gezurra dela eta desitxuratuta dagoela. Musulmanen kasuan adibidez, musulmanen abegi ona, eskuzabaltasuna edo tolerantzia[6] ge-

[6] Zuzenbide Islamikoak toleratzen du gizarte musulmanaren baitan, beste komunitate batzuek (juduak, kristauak, sabatar monoteistak, zoroastroarrak eta abar) Islamaz bestelako erlijioak askatasunez praktikatzea. Eta, gizarte horretako herritarrek (musulmanak eta musulmanak ez direnak) babesa, segurtasuna eta zerbitzu publikoak jaso ditzaten, musulmanek «azaque»-a (ondasun pribatuen gaineko ekarpen ekonomikoa) ordaintzen dute, eta, aldi berean, gizarte musulmanaren

hiegizkotzat jotzen dira batzuetan, edota barneratzeko do menderatzeko estrategiatzat.

Hala, aurkariaren alderdi negatiboak haren nortasuna eratzen duten berezko ezaugarritzat jotzen ditugu; zintzotasuna eta alderdi positiboak, aldiz, iragankorrak, itxurak baino ez dira, «besteak» engainatzeko darabiltzan maniobrak. Antza denez, gure buruan mekanismo bat ezartzen da, eta, horren arabera, «besteari» buruzko irudikapenak sailkatu eta filtratu egiten ditugu, gure ikuspegi negatiboarekin bat datozenak hautatuz, eta bat ez datozenak, aldiz, ezabatuz, berrinterpretatuz edo eraldatuz. Lehenak oroimenaren erdigunean erregistratzen dira, korapilo gogor eta trinkoa osatuz; bigarrenak, ordea, baztertu egiten ditugu, eta, onenean, toki periferiko batean gordetzen ditugu. Bateko eta besteko irudikapenak, ordea, ez dira sekulan alderatzen, nahasten edo konbinatzen.

Bi iturri nagusi dira pertzepzio-ziklo hori elikatu eta iraunarazten dutenak:

*a)* Batetik, komunikabideak, gertaeren azkartasunaren eta presioaren, gaitasunik ezaren edo marketin-legeen ondorioz, publiko handiak erraz digeritzeko moduko irudikapenak eskaintzeko edo saltzeko joera dutelako. Hala, kultura musulmana hizpide hartzen dutenean, ikusleengana errazen iristeko moduko ideiak ematen dituzte aditzera, gizartearentzat dagoeneko ohikoak diren hitz eta irudi estereotipatuak erabiliz. Zenbait kasutan, esaterako, basamortu bat edo gamelu-ilara bat erakusten digute, eta beste zenbaitetan urrunago joaten dira, aurpegia estalita daramaten emakumeak edo gizonezko bizardun armatuak erakutsiz.

Ahalik eta entzule gehien erakarri eta bereganatzea, horixe da komunikabideen kezka nagusia. Ildo horretatik, eskainitako informazio motari edo informazioaren edukiari ez zaio baliorik ematen, erakarri nahi den bezero kopuruari ematen zaion garrantziaren aldean. Eta zorroztasuna eta zehaztasuna… kontuan hartzen al dira berriak hedatzean? Beno, hori ere kontuan hartzekoa da, baina ez dirudi garrantzi handia duenik. Gai-

---

baitan bizi diren beste tradizioetako kideek *al-Yizia* ordaintzen dute (arabieraz, hitzez hitz, «ekarpena» esan nahi du). Adinekoek, lan egiten ez duten emakumeek, haurrek eta desgaitu mental edo fisikoek ez dute *al-Yizia* ordaindu behar. Gainera, ez dute zertan zerga hori ordaindu baldin eta Estatu musulmanak zerbitzu publikoen eta babesaren gozamena bermatzen ez badie.

nera, aurkeztutako iritzi lerraturikoaren ardura komunikabideena bada ere, ez da ahaztu behar jendeak ere bere gain hartzen duela erantzukizun horren zati handi bat. Horren haritik, zera adierazi ohi da, komunikabideek entzuleen neurrira egindako diskurtsoak eraikitzen dituztela, entzuleen eskakizunetara egokitutako diskurtsoak alegia. Orduan, zer dela-eta hainbatek ez diete komunikabideei zehaztasuna eta objektibotasuna eskatzen? Zer dela-eta hartzen dira albiste jakin batzuk guztiz benetakoak balira bezala, nahiz eta aldez aurretik jakin ez direla egiaztatu?

*b)* Bestetik, badago beste faktore bat, «bestearen» irudikapen negatiboen dinamikan zeresan handia duena: Küngek dioenez (2006), «hainbat pertsona ezin dira bizi besteak etsai gisa ikusi gabe». Eta «etsai-irudi» hori sortzea oso tresna baliagarria da jendearen nahi psikologiko, politiko eta sozialak asetzeko. Izan ere, aitzakia ezin hobeak ematen ditu norberaren egintzak legeztatzeko, eta gertatzen diren desadostasun eta gatazka guztien erru osoa etsaiari leporatzeko. Halaber, taldearen aliantza egonkortzen eta indartzen du aurkariaren aurka —garai batean komunismoa zen; gaur egun, Islama da, antza—, «aldeko» pertsona eta nazio guztiak elkartuz «bihurrien» aurka. Küngen arabera (2006), etsai-irudi bat lantzeko edozein metodo da baliagarri, oso nazkagarria eta maltzurra izanagatik ere. Hala, jendea etsaiaren aurka mobilizatzeko, etsaiari buruzko informazioak «puztu, faltsutu eta manipula daitezke, edo, areago oraindik, asmatu egin daitezke, egoerak halakorik eskatzen badu». Zenbat aldiz ikusi dugu horrelakorik?

### 1.3.2. Mendebaldea Islamaren aurrean: adostasunak eta desadostasunak

Zoritxarrez, esan beharra dago Mendebaldearen eta mundu islamikoaren artean piztu ziren gerrak baliagarri gertatu direla sarri, paradoxikoa bada ere, mendebaldeko gizarteak Islama, judaismoari eta kristautasunari estu loturiko erlijio monoteista eta abrahamiko hori, ezagutzeko interes handiagoa ager dezan. Hala, Islama VII. mendean agertu bazen ere, erlijio horren printzipioak biltzen dituen liburu sakratua, Korana alegia, ia 500 urte geroago itzuli zen latinera. XI. mendearen amaierako lehen gurutzada amaitu eta berehala, Clunyko abade Pedro Beneragarriak, Islamari eraginkortasunez aurre egiteko Islama zorrotz, Islamaren doktrina-iturriak oinarritzat hartuta, ikasi beharra zego-

ela konbentzituta, «Hispaniara» jo zuen 1142. urtean, bisitaldi kanonikoa egiteko asmoz —Sandoval (2006)— arabiera menderatzen zuten jakitunen bila, Korana eta beste zenbait eskuizkribu arabiar latinera itzultzeko. Hurrengo urtean, Islamaren liburu sakratuaren latinezko lehen bertsioa argitaratu zen. Horrekin batera, Pedro Beneragarriak *Summa Totius haeresis Saracenorum* idatzi zuen hitzaurre gisa, doktrina islamikoen laburpen moduko bat, eta, hartan, erlijio musulmana «heresiarik handiena» zela adierazi zuen; gainera, Islamaren profeta Muhammaden aurka ere hitz gogorrak erabili zituen, Martínezek eta de la Cruzek diotenez (2000).

Pedro Beneragarriaren hurbilketa eta interpretazioak aitzindariak izan ziren, eta baliagarri izan ziren, gainera, Islamari buruz gehiago jakiteko. Alabaina, Clunyko azken abadeak erlijio horri buruz idatzi zituen idazki polemikoak lagungarri izan ziren, era batera edo bestera, Islamaren inguruan sortzen eta finkatzen hasiak zeuden mito eta aurreiritzi tradizionalak iraunarazteko. Bestetik, haren lanak oinarrizko erreferentzia izan ziren denbora askoan, jarrera horri eutsi zioten beste hainbat egilerentzat.

Tentsio- eta gatazka-egoera batetik ezinezkoa da «bestea» ezagutzeko nahi eta gogo zintzoa eratortzea . Gainera, beste horri buruz dugun informazioa urria edo okerra da, eta hari buruz ezer ez jakitea ere gerta daiteke. Egoera horrek larrialdi-sentsazioa dakar berekin, mehatxu-sentsazio ere bihur daitekeena. Hala, egindako hurbilketak ez du paralelismorik edo antzekotasunik bilatu nahi, desberdintasunak eta desadostasunak nabarmendu baizik, horrela gure beldurrak eta aurreiritziak indartzeko. Mehatxu-sentsazio iraunkor horren eraginpean dagoenarentzat zaila izan daiteke «bestearengan» alderdi positiboren bat ikustea, beste hori zintzo-zintzoa izanagatik ere. Horixe da, hain zuzen, etengabeko sentsazio horren ondoriorik kaltegarriena

Europa eta Europako pentsalariak Islamarekin harremanetan jarri ziren lehen uneetatik, erlijio horri buruz aditzera eman dituzten irudiak kolore berekoak izan dira. Europak Islama nolabait miretsi izan badu ere, irudikapen negatiboak nagusitu eta gailendu dira Islamari buruzko ikuspegian. Errenazimenduan (XV.-XVI. mendeak) zen Ilustrazioan (XVIII. mendea) tolerantziari eta kultura eta arrazoia suspertzeari buruzko diskurtsoak ugaritu baziren ere, Europako filosofo eta intelektualek ikuspegi eta jarrera berari eutsi diote, hau da, oro har, arabiarra eta musulmana den guztia baztertu eta mespretxatu egin dute. Ikus

ditzagun zenbait adibide. Lutero (1483-1546), teologo eta berriztari alemana, Korana itzuli eta argitaratzearen alde zegoen, antza, Pedro Beneragarriarekin bat etorriz, baina benetan nahi zuena zera zen, jende guztiak liburu horretan dauden gezur eta esamesa guztiak ikusteko aukera izan zezan, Küngen (2006) baieztapenen haritik; John Lockek (1632-1704), erlijio-askatasunaren bultzatzailetzat jo izan den pentsalari ingelesak, «Tolerantziari buruzko gutuna» argitaratu zuen 1689an, ateismoa alde batera uzten badu ere erlijio-tolerantziari buruzko aurrekari teorikoa, Europako historia modernoaren garrantzitsuena agian, ezarri zuen idazkia. Gutun horretan lau aldiz aipatzen ditu erlijio musulmaneko kideak. Nahiz eta jakin bazekien musulmanak esaten zietela eta musulmanek ere halaxe nahi zutela, «mahomatarrak» esaten die Lockek gutun horretan, eta izendapen hori, iraingarria ez ezik, okerra ere bada, musulmanek inspirazio jainkotiar bati esleitzen diotelako erlijio hori, eta ez Mahomari; Voltaire (1694-1778), bestetik, Ilustrazioaren ordezkari nagusietako bat eta tolerantziaren aitzindarietako bat izanik ere, Islamaren mezua mespretxatzen du *Mahomet* tragedian, baita Islamaren profeta ere, botere-goseak dagoen gezurtiaren pare jartzen baitu. Barthélmy d'Herbelot (1625-1695) orientalista frantziarraren adibidea ere ekar dezakegu honetara: l*Bibliothèque orientale* lanean gai islamikoak landu zituen, eta Islama erlijio-izena hartu zuen heresiatzat jotzen du. Eta beste hainbat adibidek eskaintzen dizkigute antzeko ideiak. Guk horiexek bakarrik aurkeztu ditugu, nahikoa esanguratsuak direlakoan.

Nolanahi ere, azpimarratzekoa da mendebaldearen eta mundu islamikoaren arteko harremanari buruz idatzi den historia hausturen eta antagonismoen historia izan dela. Hau da, antza denez, historialariek historiaren zati bat bakarrik helarazi nahi izan digute, beste zatia, elkarrekiko truke eta aberasteekin, elkarrizketa eta tolerantziarekin, adostasun eta bizikidetzarekin zerikusia duena, alde batera utzita, ezbairik gabe bigarren zati hori ere existitu bada ere. Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko harremanari buruzko historia ahaztua da hori, liburuetan funtsezko erreferentzia gutxi batzuk baino ez dituena utzi.

Hala, gogora ekartzekoa da Erdi Arotik hasita eta gaurko egunera arte, Europako hainbat eruditu eta teologo [7] ahalegindu direla Islamaren ikuspegi objek-

[7] Mendebaldeko gizartean, zenbait pentsalarik eta egilek ekarpen handia egin dute, ezbairik gabe, elkarrizketaren eta elkar ulertzearen alde, hala nola Guillermo de Malmesbury (1090?-1143), San Frantzisko Asiskoa (1182-1226), Adrian Reland (1676-1718) eta abar.

tiboa ematen, Islamarekin hitz egitearen aldeko jarrera hartuz, nolabait. Horren haritik, Wattek dioenaren harira (1991), aipatzekoa da Europaren eta mundu islamikoaren artean gertatutakoen berri ematen duten ehunka urteko kronikek, liskarren berri ez ezik, adiskidetzeen berri ere ematen dutela. Hori bai, adostasunei buruzko historiak ez zuen nahi adinako eragina edo oihartzuna eduki, ez behintzat erlijio musulmanaren eta horren historiaren inguruan eraikiak zeuden fantasietako irudiei goitik behera eraldatzeko adinakoa, baina horrek, aldez aurretik adierazi dugun bezala, ez die merituri kentzen Islama beste begi batzuekin ikusi nahi izan zuten pentsalariei, eta ahalegin horien objektibotasuna ezin daiteke zalantzan jarri. Hori kontuan hartuta, bi aktoreei, hau da, batetik Mendebaldeari, eta bestetik mundu islamikoari, beren ikusmoldeak birdefinitzeko eta birlantzeko unea iritsi zaie, batak besteari buruz duen ikusmoldea zein bakoitzak bere buruari buruz duena birdefinitzeko eta birlantzeko unea alegia.

## 1.4. Komunitate musulmanaren integrazioaren erronka eta harrerako gizartearen erronka

Normalean adierazten denaren aurka, komunitate musulmana harrerako gizartean —Europan oro har, eta Euskadin bereziki— integratzeko erronka ez da uste bezain korapilatsua. Edo, agian zehazkiago, zera esan dezakegu, integrazio horrek berekin dakartzan erronkak guztiz ulergarriak eta nabariak direla, eta, neurri handiagoan edo txikiagoan, kulturen arteko edozein topaketatan gertatzen direla normalean, bakoitzari dagozkion berezitasun eta ñabardurekin. Sarritan honako arrazoibide hau entzuten dugu: erronka horien jatorria herritar musulmanen eta harrerako gizartearen artean dauden desberdintasunetan (kultura, hizkuntza, eta, bereziki, erlijioa) dago; gure uste apalean, ordea, uste hori okerra da, edo gutxienez ez dator guztiz bat errealitatearekin. Honako premisa honetatik abiatzen garelako: desberdina izatea ez da nahikoa bateraezina eta elkarrezina izateko. Gainera, benetako arazoa ez da desberdintasuna, desberdintasunaren inguruan artikulatzen dugun ikusmoldea baizik. Bestela esanda, arazoa ez da beti egoten behatutako fenomenoan edo objektuan, hura behatzen duten begietan baizik.

Azken batean, zenbait esperientzia aipa genitzake iritzi hori oinarritzeko. Txinatarren komunitatea da lehen adibidea: txineraren sintaxia eta gramatika oso

desberdina da espainieraren aldean, eta, hala ere, hori ez oztopotzat jotzen, txinatarren komunitatearen eta harrerako gizartearen artean harreman egoki bat garatzea ezinbestean galaraz dezakeen oztopotzat alegia. Antzeko zerbait gertatzen da beste zenbait erlijiorekin (esaterako, hinduismoa, konfuzionismoa edo hainbat herritako erlijio indigenak), harrerako gizartean nagusi den katolizismoaz bestelako jatorria izaki, erlijio horren sinesmen eta praktikak partekatzen ez dituztenak. Hala eta guztiz ere, alde horiek, oro har, ez dira oztopo gaindiezintzat jotzen, ezta, are gutxiago, mehatxu-iturritzat ere. Gehienez ere, urruneko erlijio-tradiziotzat jotzen ditugu, eta ideia bitxiak ditugu horien inguruan; hortaz, erlijio horiei buruz dakiguna ez da iluna: gehienez ere exotikotzat jotzen ditugu, eta beste batzuetan, berriz, misteriotsutzat, edo, are, dibertigarritzat. Eta hori, azken hamarkadetan fundamentalismoak, aurrerago hizpide hartuko dugun fenomeno unibertsalak, erlijio horietan gora egin duen arren. Alabaina, zer daki mendebaldeko gizarteak Islami buruz? Bi esparruen arteko oinarriak oso antzekoak dira, baina hala eta guztiz ere Europako gizarteak oso bestela, ezin konponduzko haustura gisa, ikusten du arabiarra eta musulmana den guztia.

Antza denez, arazoa ez da hainbeste musulmanen erlijio-faktorea, faktore horri buruz dugun irudia baizik.

Guztiok, iristen direnek eta hartzen ditugunok, gure jarrera esklusibista eta panegirikoa gainditu behar dugu (gure ikuspegia da zuzena den bakarra; besteena, berriz, guztiz okerra da), eta horixe da, hain zuzen ere, musulmanen komunitatea harrerako gizartera biltzeko gainditu behar dugun erronka nagusia. Ildo horretatik, musulmanen ordezkariek (lider espiritualak, imanak, gizarte-elkarte laiko zein erlijiosoetako zuzendari eta kudeatzaileak, eta abar) duten zeregina funtsezkoa da: elkar ulertzeko zubiak eraiki behar dituzte, eta haien komunitateko kideen eta harrerako gizartearen arteko balio komunak sustatu. Harrerako gizartearen erreferentziazko pertsonek (politikariak, gizarte-agenteak, Elizaren ordezkariak eta abar) betetzen duten zeregina ere funtsezkoa eta erabakigarria da, elkarrizketa sustatu eta elkar ulertzea bultzatzeko. Horrekin bat etorriz, Castellsek (2003) zera dio, Estatu Batuek, emigratzaile ugari hartzen dituztenez, duten esperientziaren haritik: «immigrazioaren eta immigraziotik eratorritako kulturen integrazio-gaitasuna kultura propioen araberakoa izango da, eta, aldi berean, kultura komun bat sortuko da, hainbat jatorritako ekarpenetatik abiatuta».

Bestetik, bizikidetzarako bidea errazteko, ezinbestekoa da erakunde publikoek elkar ulertzearen eta berdintasunaren aldeko politika eta lege egokiak sortzea, gizartea kontzientziatzeko kolektibo guztien artean harreman-esparru bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa sortzeko premiaren inguruan Giza eskubideei, askatasunari, tolerantziari, demokraziari eta berdintasunari garrantzi handia ematen dion kultura-diskurtso europarraren printzipioetatik ekintzetara igarotzea da kontua Gure gizartea plurala da, eta, horregatik, arrakastaz eraikiko badugu, printzipio horiek onartuz eta une oro errespetatuz eraiki beharko dugu.

# 2 Tradizionalismoa, integrismoa eta fundamentalismoa

## 2.1. Aldez aurretik, terminologia argitu

Gizarte-zientzietan bereziki, fenomeno bat definitzeko esamolde bat, edozein esamolde, hautatu beharra, polemikaren abiapuntua izan daiteke. Eta «fundamentalismoa» ez da salbuespena. Literaturan ugariak dira «fundamentalismoaren» fenomenoa zehazteko egin diren ahaleginak, eta hortik kontzeptu eta iritzien nahaspila sortu da, fenomenoa ulertzeko zeregina erraztu beharrean, fenomenoa aztertu eta ulertzeko oztopo bihurtu dena. Ildo horretatik, azterlanaren zati honetan, fenomeno hori, erlijioaren gorakada egungo gizarte gehienetan, argitzen ahaleginduko gara, kontzeptuzko ikuspegi terminologiko batetik abiatuta.

Hillek eta Hoodek (1999) egiaztatu dutenez, gizarte-zientzietan adituak diren hainbaten ustetan, «fundamentalismoa» terminoaren barnean hartzen dira, erlijio-sinesmen molde zorrotza, dogmatikoa eta atzerakoia deskribatzen duten adierazpen guztiak. Haatik, egile horien ustetan badira beste zenbait ikerlari terminoa oker erabiltzen dutenak, «ortodoxia» eta «ebangelismoa» adierazteko. Corralek eta Garcíak (1994) diotenez, «fundamentalismoa» eta «integrismoa» termino baliokideak balira bezala erabiltzen dira normalean, lehenengoak askoz ere esanahi zabalagoa badu ere. Beste egile baten ustetan, «fundamentalismoak» garai bateko «integrismoa» ordeztu du, eta bi terminoak erabili dira xede politikoak dituzten erlijiozko ideia eta sinesmenak aipatzeko (Abu Warda, 1994). Beste batzuek, Donaldek adibidez (1996), bi terminoak uztartzen dituzte, bata bestearen segidan: «fundamentalismo integrista». Beste begirale batzuen ustetan, izen horiek, erabiltzearen erabiltzeaz, «erradikalismoaren», «zorrozkeriaren», «buru-zorroztasunaren» eta «dogmatismoaren» sinonimo gisa ulertzen dira (Packer, 1960; Flaquer, 1997). Espositoren aburuz (1992), «fundamentalismoa» terminoa «aktibismo politikoaren», «estremismoaren» eta «fanatismoaren» aldean jartzen da sarri. Beste zenbait, terminoak zehazteko zeregin korapilatsuari heltzerakoan, terminoak bereizten ahalegintzen dira, bakoitzari

ñabardura eta ezaugarri eta propietate jakin batzuk emanez. Étiennek (1987) eta Lamchichik (1989) egindako lana dugu horren adierazgarri argia.

Nazioartean nomenklatura ugari erabiltzen dira, beraz eta horrek agerian uzten du metodologiari eta deskribapenei dagokienez aldeak badaudela gai hori aztertzen duten ikerlarien artean. Gainera, kontzeptuen aniztasun eta ugaritasun hori ez da beti fundamentalismoaren fenomenoa sorrarazi zuten kultura- eta historia-errealitateen ondorioz etorri. Espekulazio akademiko eta intelektual soilaren emaitza izaten da askotan, baita jarrera fundamentalistak eta fundamentalistak ez direnak bereiztea ahalbide lezaketen parametro eta irizpiderik ezaren emaitza ere. Bestetik, termino horien jatorriari eta jatorri horren zirkunstantziei buruz hainbat dokumentu badaude ere, terminoak beren testuingurutik kanpo behar ez bezala erabiltzeko joera ikus daiteke, eta horrela jokatzen dutenek, gainera, ez dute inolako justifikazio enpiriko edo kontzeptuzkorik ematen horretarako. Izan ere, «integrismoa» izendapena XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako Europako erlijio- eta politika-eremuan sortu zen. «Fundamentalismoa» hitza, aldiz, XX. mendearen hasieran agertu zen, Ipar Amerikako protestantismoaren testuinguruan. Hala, Armstrongek dionez (2004), ez da bidezkoa termino horiek beste esparruetakoak diren eta ondorioz bestelako errealitate eta lehentasunak dituzten mugimenduak izendatzeko erabiltzea.

Arrazoi horrengatik eta antzeko beste batzuengatik, proposatu dugun aldez aurreko argibidea behar-beharrezkoa dela uste dugu. Jakina denez, fenomeno bat deskribatzen duen kontzeptua funtsezkoa da kontzeptu hori ulertzeko modua antolatu eta zehaztu ahal izateko. Alik dioenez (1996), izendapena ez da garrantzirik gabeko zerbait, sarritan ikerlariaren ideologiaren isla den «gatazka intelektual» baten emaitza baizik. Ikerlariak, eskuragarri dituen izendapen guztien artean bata edo bestea hautatzean, agerian uzten du, azken batean, aztergaiei dagokienez hartu duen jarrera. Zehazkiago, Kepelen arabera (1995), begiraleen hasierako jarrerek, isilbidezkoak edo esanbidezkoak izan, gidatu egiten dituzte erlijio-mugimenduen gorakadaren fenomenoaren pertzepzioetako asko.

## 2.2. Termino-nahaspila

Literaturan, eta, oro har, jendartean, «fundamentalismoa» terminoa erruz erabili da azken urte hauetan. Askotariko eremuei —erlijioa, politika eta kultura;

zientzia eta ekonomia; eta historia, artea eta kirola— dagozkien fenomeno eta testuinguruak izendatzeko erabiltzen da gainera. Fenomeno sakona eta zabala da, beraz, erlijioaren eremura mugatu ezin daitekeena. Izan ere, neurri txikiagoan bada ere, «fundamentalismo politikoa» aipatzen da batzuetan, eredu politiko bat bakarra eta besteak baino hobea dela adierazteko; beste batzuetan, berriz, «merkatuko fundamentalismoa» hartzen da hizpide, ekonomia-bide bakarra inposatzen denean. Azken batean, Tamayok dioenez (2004), «hitz horrek erabateko presentzia du eztabaida guztietan, gaia edozein izanik ere». Nolanahi ere, ez da ahaztu behar termino horrek eta termino horren esanahiek, oso sarri erabiltzen badira ere, polemika handia sorrarazi dutela, eta gainera polemika horrek konponbiderik gabe jarraitzen duela.

Gaia sakonetik aztertu gabe ere erraz askoan ohartuko gara akademiko eta politikariek fenomeno horri izugarrizko arreta eskaini diotela, eta, horrenbestez, fundamentalismoa «fenomenoen fenomeno» ere bihurtu dela —Ali (1996)—. Ildo beretik, Mardonesek (1999) uste du fundamentalismoa «garaiko giroaren» adierazgarri dela, eta gizartearen eta kulturaren ikerlari asko bat datoz ikuspuntu horrekin. Fenomenoari buruzko azterlan gehienek honako helburu hau izan dute: munduko kultura gehienen gizartean eta politikan mugimendu fundamentalistak sortu eta ezartzea eragin duten arrazoi eta prozesuak azaltzen ahalegintzea; horregatik, «fundamentalismoak» ere esaten da, pluralean, eta ez bakarrik singularrean. Martin eta Appleby (1993), *Fundamentalism Project* balio handiko lanaren egileak, fundamentalismoa unibertso-mailako fenomenoa zela adierazi zuten lehenak izan ziren. Mardonesek, ildo beretik, (1999), zera adierazi du; fundamentalismoa planetako geografia osoan barrena dabilela, gizarte, kultura eta erlijio guztietan (judaismoa, kristautasuna, islama, hinduismoa eta budismoa) barneratuz.

Ikuspegi bat adosteko unea oraindik iritsi ez bada ere, begiraleek zenbait esamolde erabili dituzte beren historian sakratutzat jotako funtsetan oinarritutako gizarte bat sortu beharra aldarrikatzen duten erlijio-mugimenduen proposamena izendatzeko. Zailtasun hori nabariagoa da mundu arabiarraren eta islamikoaren baitan sortu ziren erlijio-korronteak definitzeko izendapen egokia aurkitu behar denean. Egungo gizarte arabiar-islamikoaren errealitatera hurbiltzeko ahalegin ugari egin dira, eta, gehienetan, oinarrizko bi ikuspegi baliatu dira hurbilketa horietan, elkarrengandik bereizten direnak gizarte horretan erlijiozko jarrerak eta praktikak ustekabean berpizteari dagokionez du-

ten pertzepzioari eta egiten duten azterketari dagokionez . Batetik, zenbait egile gaitzespenetik hurbiltzen dira fenomenora, eta *fundamentalismotzat*, *integrismotzat*, *dogmatismotzat*, *erradikalismotzat*, *tradizionalismotzat edo estremismotzat* jotzen dute. Beste idazle batzuk, aldiz, komunikabide arabiar eta islamikoetan bereziki, beste termino batzuk hartzen dituzte ahotan, hala nola *berrislamizazioa, erlijio-erreformismoa, berrikuntza edo berrezarkuntza,* batzuetan modu panegirikoan eta idealizatuan egiten badute ere.

Kontzeptuen gora-behera handi horien ondorioz, «fundamentalismoa» terminoak deskribatzeko zuen gaitasun ia guztia galdu du. Izan ere, Whalenek dioenez (2001), izen horrek zer esan nahi duen argi eta garbi adierazten duen definiziorik ez dago. Gainera, Tamayok dioenez (2004), «emozio-karga handia» hartu du dagoeneko, nekez bazter daitekeena. Terminoa erabili da ñabardurez beteriko errealitate zabal bat izendatzeko, eta, azkenean, erabilera hori «problematiko» bihurtu da, Mardonesek onartzen duenez (1999). Horregatik guztiagatik, izendapen egoki bat hautatzeko zeregina korapilatu da benetan, eta horren ondorioz, Burgatek dioenez (1988), fenomenoa bere zehaztasunean eta bere dibertsitatean ulertzea nabarmen zailagoa da momentu honetan.

## 2.3. Aurrekari nagusiak

Aipatutako zailtasuna gainditu aurretik, argibide batzuk eman behar ditugu, kontzeptuekin gertatu ohi diren nahasmenduen inguruan. Termino-korapilo hori askatzea da kontua, aztertu beharreko terminoak labur-labur definitzeko. Hala, sarritan elkarri lotuta ageri diren eta aztergai dugun fundamentalismoaren fenomenoaren adierazpide desberdinak diren «tradizionalismoa» eta «integrismoa» terminoen kontzeptualizazioari ekin behar diogu, ezinbestean.

### 2.3.1. Tradizionalismoa

«Tradizionalismoa» terminoa «tradizioa» hitzetik dator, hau da, gizakiok iraganean metatutako ondare kultural, erlijiozko, zientifiko eta abar osoa adierazten duen hitzetik. Ezagutzen duguna, garrantzizkotzat jotzen duguna, eta, gure bizitzaren eta gure identitatearen zati den heinean, inondik inora galdu ezin dezakeguna da «tradizioa». Horren haritik, gure arbasoen esperientzia

osoak (ez gurea) eta gure arbasoen ondare osoak —artea, hizkuntza, literatura, gastronomia eta abar— izugarrizko balioa hartzen du, modu sortzaile, orekatu eta seguruan bizitzeko aukera ematen digun neurrian. Alabaina, *tradizioaz* baliatzea eta «tradizionalista» izatea oso gauza desberdinak dira. Bi dira «tradizionalismoaren» ezaugarri nagusiak: batetik, iraganetik heredatutako ideia eta ohiturekiko atxikimendua defentsa-xedeetarako aldarrikatzea da, eta, bestetik, herentzia horiekin bat egitea, harrotasunez eta inondik inora zalantzan jarri gabe, hau da, sakonetik aztertu edo espiritu kritikoaren eraginpean jarri gabe.

*GER* entziklopedian argitaratutako artikuluan, Antonio del Torok (1973) honela dio: «“tradizionalista” esaten zaie erlijioaren, filosofiaren, soziologiaren eta politikaren jarrera eta korronte jakin batzuei, hain zuzen ere tradizioaren balioa eta indarra [...] giza bizitzaren askotariko eremuetarako egiazko eta portaerazko irizpidea dela aldarrikatu ez ezik, aldarrikapen hori, bestelako jakintza-iturriak ukatzen eta aldaketa edo berrikuntza orori bidea ixten dioten heinean, muturreraino eramaten duten jarrera eta korronteei». Zentzu hertsiagoan, «tradizionalismoa» korronte bat da, Frantzian sortu zena antigoaleko pentsamolde bat aldarrikatzeko, XVIII. mendeko Frantziako Iraultzaren aurka.

«Tradizionalismoan» ideia bati gehiegizko balioa emateko joera nagusitu da, eta, horren ildotik, ideia hori, egokitzat ez ezik, historiako edozein une eta tokirentzat baliagarritzat ere jotzen da. Kontua bada ideia hori, kosta lain kosta, zorrozki eta aldatzeko inolako aukerarik eman gabe kontserbatzea, ordea, «kontserbadurismoa» litzateke. Eta, azkenik, ideia horrek erabateko balioa duelako ustetik abiatuta, besteei inposatu nahi bazaie, agresibitatez gainera, orduan jarrera horri «fanatismoa» esango genioke.

«Fundamentalismoak» mugitu ezinezko testu sakratu baten funtsetara itzultzea dakar berekin; «tradizionalismoak», berriz, testu sakratuarekiko eta testu horren haritik sortu ondoren babestu eta instituzionalizatu diren *tradizio* guztiekiko atxikimendua esan nahi du. Ildo horretatik, tradizioak jotzen dira, Yannarasek argi asko adierazi dutenez (1992), «erlijio-“material” autonomotzat [...], belaunaldiz belaunaldi antzinako ondare preziatuaren antzera transmititu dena. Ondare preziatu horrek bere horretan iraun behar du ez gure bizitzari eta gure itxaropenen dinamikari dagokielako, baizik eta, ondarea gure

burua ezagutzeko bitarteko paregabea denez, leialtasun osoz babestu eta gorde behar dugulako».

### 2.3.2. Integrismoa

«Fundamentalismoa» terminoa, Ipar Amerikako protestantismoaren korronte jakin bat izendatzeko sortu zen bere garaian; integrismoa, berriz, katolizismoaren eremuan sortu zen. Bigarren terminoa zaharragoa da, baina ez da bestea bezainbeste erabili. Nabarmentzekoa da, halaber, bi terminoak ere polemikoak direla, hasiera batean esanahi jakin bat bazuten ere, goraipamenezko eta ohorezko esanahia gainera, poliki-poliki beste zenbait adiera eta konnotazio hartu dituztelako, ñabardura peioratibo handia esleitu dietenak. Literatura espezializatuan bilatzen badugu «integrismoa» hitzaren jatorria, erabili zen lehen aldiari buruzko aipamen zehatzak urriak direla ohartzen gara. Madiranen arabera (1958), XX. mendearen lehen urteetan izan zuen lehen erlijio-adiera. Nolanahi ere, lehenago ere erabili zen, ideologia-zama handia izan zuen karlismotik banandutako alderdi politiko espainiar bat izendatzeko. Entziklopedia Unibertsal Ilustratuaren arabera, integrismoak Espainiako alderdi politiko hori izendatzen du, XIX. mendearen amaieran Ramón Nocedalek fundatu zuena, liberalismoaren funtsezko askatasunei uko egitean oinarrituta. Alderdiaren programaren arabera, «egia katoliko osoa» da haien jarreraren oinarria.

Aipurik zaharrena, egile ezezaguneko liburuxka batean agertu da. Diz-Loisen esanetan (1973), 1885ean argitaratu zuten liburuxka hori, Ramón Nocedalen «alderdi katoliko nazionalaren» doktrina politikoa defendatzeko; honela dio:

> Integrismo katolikoak sistema edo eskola katoliko-politiko jakin bat izan nahi du, iraultzak eta erreformak berekin ekarri zituzten eraldaketak onartzen ez dituena eta liberalismoa errekonozitzen eta onartzen ez duena, ez doktrina gisa, ezta elementu historiko-sozial edo politiko gisa ere. Horren haritik, liberalismoarekin, askatasun politikoarekin, Nazioaren eta Parlamentuaren subiranotasunarekin eta errege-boterearen agintea gutxitzearekin zerikusia duen guztia gaitzesten eta ukatzen du.

Ikus daitekeenez, adierazpen horrek erabateko ikuspegi zorrotza ematen du aditzera, garai hartako Europako testuinguruarekin estu lotuta dagoena: sekularizazio-prozesuan murgilduta zegoen Europa, eta horrek «emantzipazio»

politikoa, soziala eta morala zekarren berekin, erlijioaren jarraibideak alde batera utzita. Liburuxka *integrista* horren apologistek gizartea gobernatzeko legezko eskumena zuen eredu politiko-erlijioso bakarra osatzen zutela zioten, eta, gainera, liberalismoaren eta liberalismoaren aldarrikapen guztiak —erabateko askatasuna, arrazionalismoa, laizismoa eta abar— erabat gaitzesten zituzten.

«Integrismoa» terminoa gaztelaniazko «íntegro» adjektibotik dator (euskaraz, osoa, bete-betekoa). *Diccionario de la Real Academia Española* hiztegiaren hamaseigarren edizioan agertu zen lehen aldiz, 1936an, eta, bertan jasotako definizioaren arabera, integrismoa jarrera bat da, «Espainiako tradizioaren integritateari eutsi beharra» aldarrikatzen duena. Eta 1984ra arte gauzek bere horretan jarraitu zuten, hain zuzen ere DRAE hiztegiaren hogeigarren edizioa argitaratu zuten arte. Une hartan, izenari beste adiera bat erantsi zioten: doktrina tradizionala ukiezina dela aldarrikatzen duten sektore erlijioso, ideologiko edo politiko jakin batzuen jarrera. Zehazkiago, *Gran Enciclopedia Rialp* entziklopedian jaso da «integrismoa» hitza teologiaren eremuan erabiltzen dela, «Elizaren doktrina erabat edo guztiz onartzearen aldeko jarrera adierazteko».

Tamayori jarraiki (2004), terminoa Frantzian sortu zen, modernisten aurka egonik fedearen integritatea aldarrikatzen zuten zenbait katoliko «integral» izendatzeko. 1912an, Henri Merlier jaunak «Gure programa» izeneko hitzaurrea argitaratu zuen *La Vigie* egunkarian, eta, hartan, funtsezko esaldi hau adierazi zuen: gu katoliko erromatar integralak gara. *Encyclopædia Universalis* entziklopediak argitzen duenez, Pio X.aren aitasantutzaldian (1903-1914), Elizaren irekitasunaren alde zeuden katolikoek «integrismoa» hitza erabili zuten «katoliko integralak» zirela zioten erlijiokideen jarrera izendatzeko.

a) *Integrismoa vs. modernismoa: historia laburra*

XIX. mendeko Europan, liberalismoak erlijioaren legegintza-ahalmena murriztu nahi zuen, erlijioa erregutze- eta limurtze-xedeetara mugatuz. Hau da, korronte berri horrek, XVI. mendetik aurrera ugaritzen hasi ziren teoria modernizatzaileen ildo beretik, zera aldarrikatzen zuen, herritarrak askatasun osoz garatu behar zirela politikan, gizartean, artean eta zientzian, erlijio-agintarien babesik gabe eta erlijio-agintarien eskutik inolako legitimitaterik jaso beharrik gabe. Eremu horietako jarduerak eta mugak, erlijioaren mendean

egon beharrean, eskaintzen zituzten ekarpen eta lorpenen mendean zeuden. Hala, zientzia eta politika onartuko ziren gizakien kezkak argitzeko eta konpontzeko erakutsiko zuten gaitasunaren arabera; hezkuntza edo artea beren meritu eta kualitateei jarraiki justifikatuko ziren; eta abar. León XIII.aren *Immortale Dei* entziklikak. 1885eko azaroaren 1eko data daramanak, Eliza eta Estatua guztiz banandu beharra aldarrikatzen zuen doktrina deskribatzen du, eta, XIX. mendearen amaiera gora zihoan errealitate horren aurrean, erlijio-agintariak kezkaturik zeudela ematen du aditzera:

> Gizaki oro aske-askea da, eta ezein arrazoirengatik ezin daiteke beste edozeinen mendean egon. Askatasun osoa du edozein arlotan ere nahi duena pentsatzeko eta nahi duen bezala jokatzeko [...] Agintea herriaren borondatearen eskutik dator, eta herria da, bere buruaz jabe den heinean, bere buruari agin diezaiokeen bakarra [...] Jainkoaren agintea, aldiz, isildu egiten da, Jainkorik ez balego bezala edo gizakioz arduratuko ez balitz bezala.

Hortaz, erlijio-erakundeetako ordezkariek mehatxu bat ikusi zuten aldaketa horietan, erlijioaren zeregina eta erlijioak gizartean zuen legegintza-ahalmena murriztu nahi zuten neurrian. Urte batzuk geroago, 1888ko ekainaren 20ko data daraman *Libertas Praestantissimum* entziklikan, Leon XIII.a Aita Santuak ohartarazi zuen «murrizte» horrek, denborak aurrera egin ahala, honako hau ekarriko zuela berekin: «antolamendu juridikoa, erakundea, ohiturak, legeak, Estatuaren karguak eta gazteen hezkuntza Elizaren eskumenetik kanpo geratzea, Elizarik ez balego bezala», eta horren haritik zera adierazi zuen, haren ustetan, banantze horrek ondorio larriak izango zituela gizartearentzat «erlijiorik gabe ezinezkoa delako ongi ordenatutako Estatu bat eratzea».

Azpimarratzekoa da garai hartako Elizak eta arrazionalismoak gizakiaren askatasunaren garrantzia azpimarratzen zutela, baina ikuspegi desberdinetatik abiatuta. Elizak Jainkoaren irakaskuntzetatik eratorritako askatasuna aldarrikatzen zuen. Arrazionalismoaren ikuspegitik, aldiz, giza arrazoimen independente eta askeak ezartzen du askatasunaren muga bakarra.

Labur-labur azaldu dugunetik honako ondorio argi hau ateratzen dugu: Mendebaldeko gizartearentzat, XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako etapak izugarrizko garrantzia izan zuela, eta etapa horrek Europako kulturaren eta politikaren historian betiereko arrastoa utzi zuela. Erlijioak bo-

terea galduko zuen, poliki-poliki, eta, horrenbestez ordutik aurrera ez zen errealitateari zentzua emateko eta giza bizitzaren funtsezko balioaren inguruko kezkei erantzuteko bitarteko bakarra izango, ezta, are gutxiago, arauak ezartzeko eta gai publikoak kudeatzeko bide bakarra ere. Geroago Bergerrek eta Luckmannek (1977 idatziko zuten bezala, «erlijio-aukeren merkatuan» beste «produktu» bat izateko bidean zegoen, eta beste produktu batzuekin lehiatu beharko zuen jendeak erosi edo hauta zezan. Horrek esan nahi du bezeroek askatasuna izango zutela beren borondatez erlijio jakin bat aukeratzeko, merkatuan eskainitako proposamen ugarien artean, erabilgarritasun- eta komenientzia-irizpideei jarraiki; kontsumitzaileak, gainera, hautatutakoari uko egiteko aukera izango zuen, une oro eta edozein arrazoirengatik.

Horren ondorioz, liberalismoaren, demokraziaren, pluralismoaren eta abarren doktrinek gero eta indar handiagoa zuten, eta gero eta finkatuago zeuden. Sekularizazioak izugarrizko aurrerapena egin zuen, beraz, eta gizarte-zientzietako adituek ziurtzat jotzen zuten XX. mendean elizaren ideiak behin betiko lurperatuko zirela. Hala, haustura eta norgehiagoka abian zeuden, eta testuinguru horretan hezurmamitu zen erreakzio eta jarrera jakin bat, handik gutxira integrismoaren izena hartuko zuena.

b) *Erlijio-erakundeen erreakzioak eta jarrerak*

Fenomeno berriak agertzen direnean, ohikoa da erreakzioak sortzea zuzenean edo zeharka inplikatuta daudenen artean. Orain artean azaldu dugunaren garrantzia ikusirik, argi zegoen Europako egoera soziokultural berriaren aurkako erreakzioa ere tamainakoa izango zela. Horren haritik, nolanahi ere, azpimarratzekoa da teologoek askotariko jarrerak erakutsi zituztela: batzuek guztiz onartu zuten sekularizazio-prozesua; beste batzuek, aldiz, erabat gaitzetsi zuten; eta, azkenik, Tamayok dioenez (2004), beste zenbait jarrera epel eta lasai ere nabarmendu ziren. Gure gaiarekin zerikusia handiena duten erreakzioak aurkeztuko ditugu jarraian.

- Aztergai dugun aldian, erlijio-erakunde katolikoek gupidarik gabe kritikatu zituzten sekularizazioaren fenomenoa eta, tradizioa aldarazteko, «berrikuntzaren» hedapena aldarrikatzen zuten prozesu guztiak. Prozesu horien emaitzak, ezinbestean, moralarentzat eta fedearentzat kaltegarriak izango zirela uste zuten. Erlijio-kontzientziarekiko, diziplinare-

kiko, dogmekiko, erlijio-ikurrekiko eta abarrekiko erabateko atxikimendua eskatzen zuten. XIX. mendean, Vatikanoaren kontrolpean zegoen *Civiltá Cattolica* jesuiten aldizkari italiarrean, oso testu esanguratsu bat argitaratu zen, eta honako hau zioen horri dagokionez:

> Printzipio katolikoak ezin dira aldatu, ez urteak joaten direlako, ez herrialdez aldatzen garelako, ez gauza berriak agertzen direlako, ez erabilgarritasun-arrazoiak direla medio [...] Beren osotasunean hartu behar dira, edo bere horretan utzi. Bete-betean eta zorrotz onartzen dituena katolikoa da. Zalantza egiten duena, garaietara egokitzen dena, jarrera irekia duena eta abar, ordea, nahi duen bezala dei diezaioke, hala nahi badu, bere buruari, baina Jainkoaren eta Elizaren aurrean erreboltaria eta traidorea izango da.

Elizaren baitan bazeuden doktrina garai berrietara egokitu beharra aldarrikatzen zutenak, eta horien ahotsak ere zentsuratu egin zituzten. Hasiera batean mehatxua baino ez zena benetako arrisku bihurtzen ari zen, erlijio erakundeen begietara. Poulatek dioenez (1969), arrisku horri aurre egiteko *Sodalitium Pianum* erakundea sortu zuten Erroman, 1909. urtean, Benigni monsinorea buruan, egokitzapen horren aurka egiteko eta ikerlari ortodoxoen lanak eta jarduera teologikoak gertutik zaintzeko.

- Beste zenbait teologok, aldiz, erlijio-identitatea eguneratu beharra aldarrikatzen zuten, garai berriaren premietara arrakastaz egokitzeko. Ildo horretatik, elkarrizketaren eta elkar ulertzearen alde azaldu ziren, modernotasunaren eta pluralismoaren fenomenoak berekin zekartzan erronken aurrean. Joan XXIII.aren deialdiari jarraiki 1962an inauguratu zen II. Vatikano Kontzilioak ere bat egin zuen jarrera horrekin, eta, kristautasunaren morala eta diziplina «eguneratzearen» (*aggiornamento)* alde eginez, berrikuntzaren eta irekitasunaren bidea onartu eta abiarazi zuen, Kontzilio horren helburu nagusiekin bat etorriz.

Puntu honetara iritsita zera esan dezakegu, erreakzio horien eta beste faktore batzuen ondorioz egoera jakin bat sortu dela, agian espero zenarekin zerikusi handirik ez duena. Izan ere, aldez aurretik adierazi dugunez, hainbat begiralek uste zuten erlijioak ezin izango zuela biziraun, eta gertaerek argi utzi dute iragapen horiek funsgabeak zirela. Erlijioaren ustezko katakonben ordez, oihal bat ageri zen, denboraldi jakin baterako erlijioa ikusezin bihurtu zuena.

Bat-batean, ordea, oihala berriz ere ireki zen, naturaz gaindikoa agertokira berriz ere itzul zedin baimentzeko.

### 2.3.3. Fundamentalismoa

Fundamentalismoa nola eta non sortu zen zehazki dakigun hitz bakarrenetako bat da. Izan ere, Abdulhaleem-ek (2007) dioenaren arabera, fundamentalismoa «ez da antzinako hitza». Gaztelaniaren arlo lexikografikoa lantzen badugu, ikusiko dugu sarrera hori duela gutxi sartu dela gaztelaniaz argitaratzen diren hiztegi eta entziklopedietan. Erreferentzia gisa, *Espainiako Errege Akademiaren* Hiztegiaren hogeita bigarren argitalpenean (2001ean argitaratu zen) azaldu ziren lehenengo aldiz «fundamentalismo» eta «fundamentalista» hitzak. Hiztegi horren arabera, Bibliaren hitzez hitzeko interpretazioan oinarritutako sinismen erlijioso bat da, Ipar Amerikan sortua, eta horretaz gain, adierazten du Lehen Mundu Gerra hasi zenean azaldu zela. Era berean, hitzaren erabilera eremu anglosaxoniarretik haratago hedatzen du eta adierazten du fundamentalismoa lege koranikoa bizitza sozialean zorrotz aplikatuz islamiar purutasuna berreskuratu nahi duen jendearen mugimendu erlijioso eta politikoa dela. *Espainiako Errege Akademiaren Hiztegiaren* argitalpen horretan bertan beste hirugarren esanahi bat ere azaltzen da, baina oraingo honetan orokorragoa da, izan ere, definizio horren arabera, fundamentalismoa ezarritako doktrina edo praktika bati men egiteko eskakizun zorrotza baita.

Bestalde, «fundamentalismo» hitza 1998ko *Diccionario de Uso del Español* hiztegiaren bigarren argitalpenean jasota dago, eta hiztegi horren arabera, fundamentalismoa doktrina erlijioso baten printzipioetan aldaezintasuna defendatzen duenaren jarrera da, eta horretaz gain, adierazten da islamiar mugimendu jakin batzuei aplikatzen zaiela bereziki. Aipatutako hiztegiaren egileak, hots, María Molinerrek argitasun handiz azaltzen du norberak dituen sinesmen edo iritzietan erradikala denari dei dakiokeela «fundamentalista», edozein izanik ere pertsona horren jatorria edo kultura.

Era berean, *Espasa* entziklopediaren gehigarrietan, Sánchezek (1999) adierazten du «fundamentalismo» substantiboak ez duela sarrera espezifikorik hiztegi horretan, baina Irango islamiar fundamentalismoari buruz 1993an Jomeiniri eskaini zitzaion biografia-artikulu batean aipatu zela lehenengo aldiz.

Aitzitik, egile horrek berak adierazten du 1985eko *Gran Enciclopedia Rialp* izeneko entziklopedian fundamentalismoari buruzko sarrera bat aurki daitekeela; horretaz gain, deskribapen historiko laburra egiten da, eta egilearen, hots, R. Gabásen iritzi harrigarria azaltzen da: gaur egun fundamentalismoak ez dauka inolako garrantzirik, talde atzerakoi batzuei soilik mugatuta baitago.

Altemeyer-rek eta Hunsberger-rek (1992) ematen digute fundamentalismoari buruzko kontzeptuzko definizio argienetako bat. Bi egile horien arabera, honela definitzen da pertsona fundamentalista bat:

> gizateriari eta jainkotasunari buruz funtsezkoa, oinarrizkoa, berezkoa, garrantzizkoena eta zalantzarik gabe benetakoa dena biltzen duen erlijio-irakaskuntza multzo bat dagoela sinesten duena; baita funtsezko egia batez ere deabruen indarrek lehiatzen dutela eta deabru horri gogotsu egin behar zaiola aurre; eta egia horri gaur egun iraganeko funtsezko jarraibide aldaezinen arabera jarraitu beha zaiola; eta funtsezko irakaskuntza horiek sinesten eta jarraitzen dituztenek jainkotasunarekin harreman berezia izango dutela sinesten duena ere.

a) *Hitzaren jatorria*

Esan behar da ez dela asko ikertu behar «fundamentalismo» hitzaren jatorria kokatzeko. Mardones-en (1993) baieztapenaren arabera, ingeleseko *fundamentalism* hitzetik dator. Beraz, gaztelanian sartu zen ingeleseko hitzaren hitzez hitzeko itzulpen baliokidearen ondorio gisa, eta XX. mendearen hasieran aplikatu zen lehenengo aldiz kultura- eta hizkuntza-eremu anglosaxoniarrean. Izan ere, Tamayok (2004) adierazten du *fundamentalism* hitza «ingurune erlijioso oso zehatzean jaio zela: protestantismo ebanjelikoan». Eta zehatzago esateko, *The Psychology of Religious Fundamentalism* liburuaren egileen aburuz, fundamentalismoa modernismoaren eta Eskriturara bideratutako kritika handiaren aurkako *testu barruko* erreakzio gisa sortu zen, modernismoa eta kritika handia, berriz, Europako nahiz Ipar Amerikako fenomeno gisa sortu ziren (Hood; Hill & Williamson, 2005).

Hortaz, aurrerakoien eta horien teoria kritiko-historikoen kritika zital eta ezegonkortzailearen aurka (erlijio-testuen egiazkotasuna zalantzan jarri nahi zituzten metodoetan oinarritzen ziren teoria horiek), talde protestante batzuk elkartu egiten ziren haiei aurre egiteko eta haien sinismenen funtsezko prin-

tzipioetan inspiratutako erantzun bat prestatzeko. Kontraeraso horrekin liburu sakratuen inguruan sortu ziren zalantzak argitu nahi ziren, baita jendeak liburu horietako kontaketetan konfiantza berreskura zezala ere. Marsden-en arabera (1980), Ipar Amerikako kulturan fundamentalismoaren fenomenoari buruz idatzi zuten lehenengoetako batzuk Presbiterianoen Asanblada Orokorrean parte hartu zuten teologo protestanteak izan ziren, 1910ean, izan ere, teologo horiek dokumentu bat idatzi baitzuten eta dokumentu horretan besterenezintzat hartzen ziren bost puntutan laburbiltzen ziren kristau-fedearen doktrinak:

1. Bibliaren erabateko hutsezintasuna;
2. Jesusen jaiotza birjinala;
3. Jesukristoren heriotza berreroslea gizateria salbatzeko;
4. pizkunde fisikoa; eta
5. Jesusen mirarien egiazkotasuna. Beste egile batzuek bost oinarri presbiteriano horiek aipatzen dituzte, baina 5. puntuaren ordez Kristo milurtekoa amaitu baino lehen itzuliko dela adierazten dute.

Zehazki, 1910. urtetik 1915. urtera bitarteko epean Bibliako irakasle batzuek eta Estatu Batuetako ebanjelari batzuek hamabi liburukiko serie bat argitaratu zuten, eta, liburuki horiek garrantzi handia hartu zuten Ipar Amerikako mugimendu fundamentalista identifikatzeko erreferentziagune sinboliko bihurtu baitziren. Liburu horiek (*The Fundamentals: A Testimony to the Truth* titulua dute) Hego Kaliforniako petrolio-konpainia bateko dirudun batek finantzatu zituen, eta, ondoren, hiru milioi kopia banatu ziren teologia horretako artzainen, ikastetxeen, misiolarien, ikasleen eta irakasleen artean. Doako banaketaren kostua negozio bateko kide ziren bi anaia ebanjelarik hartu zuten beren gain. Idazki horien helburua kristau-oinarrietan fede-testigantza ematea baino ez zen bibliarekiko sinesgarritasunaren ahultasunaren aurrean. Nolanahi ere, badirudi liburuen eragina ez zela berehalakoa izan eta jendeak ez zituela berotasun handiz hartu (Marsden 1980).

*The Fundamentals* titulutik atera zen azterlan honen xede den hitz polemikoa eta hainbestetan eztabaidatu izan dena: fundamentalismoa. 1920an, Curtis Lee Laws kazetari kontserbadoreak artikulu bat argitaratu zuen New Yorkeko *The Watchman Examiner* egunkarian, erredaktoreburu zela; artikulu hartan «funda-

mentalista» hitza sortu zuen eta harrotasunez proposatu «oraindik ere oinarri handietara atxikita daudenak eta oinarri horien alde behar bezalako borrokari ekitea erabakita daukatenak» definitzeko hitzik egokientzat hartu eta onar zedin. Komenigarria da aipatzea Curtis Lee Lawsek bere artikuluan adierazi zuela «kontserbadorismoaren zaleak», «milenarista» edo *landmarker* hitzak 12 liburukien egile ebanjelariei buruz hitz egiteko erabiltzearen aurka zegoela, izan ere, argudiatu baitzuen izendapen horiek mespretxuzkoak zirela eta «eragozpen historiko» bat zutela. Aitzitik, haren artikuluan proposatu zuen «fundamentalista» hitza merezitako laudorio bat zela, «ez irain bat» (Tamayo 2004).

b) *Historia pixka bat fundamentalismoari buruz*

Hitz hori AEBetan agertzea eragin zuen tokiko giroa honela deskribatzeen du Ammerman-ek (1991): «Hemeretzigarren mendearen azken laurdenean, Ipar Amerikako protestantismoaren buruzagi askok beren sinismen tradizionalak jakintza "modernoaren" errealitateetara eta sentsibilitate berrietara nola egokitu modu aktiboan bilatu nahi zituzten. Baina buruzagi horiek aurrez aurre jarri ziren egokitzapen horiek heresiatzat hartu zituztenen eta egokitzapen horien sinismen tradizionalak defendatuko zituztela adierazi zutenen aurka». Era berean, Armstrong-ek (2004) berretsi zuen kontserbadore protestanteen ustez «liberalek» Bibliari buruz egiten zuten irakurketa kritikoak erakusten duela «kristau-fedea desitxuratzen» ari zirela.

Analistak honako honekin datoz bat: XIX. mendean garrantzi handiko aldaketa izan zen gizakiari eta gizaki horrek bere ingurunean duen mundua ikusteko moduari dagokionez. Izan ere, garai hartako Europako historia (arestian adierazi dugunez, garai hartan sortu zen integrismoa) aztertzen badugu eta Ipar Amerikako historiarekin alderatzen badugu, ikusiko dugu hainbat paralelismo daudela ildo horretan. Modernizazio-prozesuek (hala nola urbanizazioa eta kultura- nahiz egitura-arloko aniztasuna), Emerson-ek eta Hartmanek (2006) diotenaren arabera, sekularizaziora eramaten gaituzte. Sekularizazioa «munduaren desmitifikazio-sistema gisa definitzen da eta mundu horretan erlijioa baztertu egiten da eta erlijioak duen zeregina gero eta txikiagoa da». Mardones soziologoaren (1999) arabera, «munduari buruz ikuspegi uniformea eta erlijiosoa izatetik erlijioa erdigunea ez izatera eta mundu-ikuskera anitza izatera igaro gara. [...] Zientzia, politika, artea eta zuzenbidea erlijiotik banantzen ari dira. Ez dute erlijioaren "onespenik" behar legezkotzat hartzeko».

Garai horretan, Tamayok dioenez (2004), «artean estetikaren arauek agintzen dute, ez arau moralek. Kulturak zigilu laikoa dauka, ez lehengo garaietako marka erlijiosoa». Hortaz, honako hau adierazten du Armstrongek (2004): «fede tradizionala ezinezkoa zen mendebaldeko gero eta pertsona gehiagorentzat». Azken batean, gizarte bat eraikitzen ari zen, non ezein ikuspegik ez zuen erlijioak bermatzea behar baliozkotzat hartzeko, horren ordez, arrazoizko metodoen edo metodo zientifikoen bitartez egiazta zitekeen egia balioesten zen. Ammermanek dioenaren arabera (1991), errealitate sozial berri bat, gizakiek beren *etorkizunetan* zeregin bat daukatela jendeak lehen eskutik ikastea (esparru politiko berriak egituratzeak eragiten zituen asaldurak gorabehera) ahalbidetu duena. «Zientzia modernoaren» gizartea Mendebaldean sortu zen, eta zientzia horren arabera, «mendebaldekoen bizitza luzeagoa eta osasuntsuagoa zen», ustez.

Badirudi gauzak ikusteko modu baikor eta sutsu horrek ezin izan duela denboraren azterketa gainditu. Herriak ezusteko segurtasunik eza nabaritzen hasi ziren eta galdera kezkagarriak egiten hasi ziren arrazionaltasun zientifikoaren onurak zalantzan jarriz, izan ere, zientziak, nahiz eta itxuraz lorpen handiak erdietsi, ondorio kaltegarria zuela ematen baitzuen. Horrenbestez, Armstrongek (2004) honako hau adierazi zuen: «XIX. mendearen hasierako iraultzaldian, bazirudien mundu berri eta hobe bat gizateriaren eskura zegoela. Baina itxaropen hori ez zen inoiz gauzatu. Aitzitik, industria-iraultzaren ondorioz arazo berriak eta esplotazio- eta injustizia-modu berriak sortu ziren. Charles Dickens-en *Garai latzak* eleberrian (1854) hiri industrializatua infernu gisa azaltzen da eta eleberri horretan adierazten du arrazionalismo pragmatiko modernoak indibidualtasuna eta agindu moralak desegin ditzakeela».

Aurrekoa aintzat hartuta, ondorioztatzen da fenomeno fundamentalistaren agerraldiarekin batera zegoen giro soziala eta kulturala ziurgabetasunezkoa eta desorientaziozkoa zen. Fundamentalismoaren fenomenoa ulertzeko, lehenik eta behin giro horri ekin behar zaio, fenomeno hori agertzeko bidea prestatu duen giroari, alegia. Armstrongek (2004) deskribapen historiko zehatza egiten du fundamentalismoa sortu aurretik hainbat kulturatan, bereziki AEBetan eta Europako kontinentean zegoen giroan atzematen ziren sentsazio eta iritziei buruz; izan ere, kultura horietan arrazionalismo zientifikoa, aipatutako idazlearen arabera, botere-iturritzat eta arrazoibide bakartzat hartzen zen biziki nahi zen egia lortzeko. Egileak honako hau dio:

> XIX. mendearen amaieran argi zegoen Mendebaldean azkenean loratu zen gizarte berria ez zela batzuek uste zuten panazea unibertsala. Hegelen filosofiaren inspirazio-iturri izan zen optimismo dinamikoa desagertu egin zen eta zalantza nahasgarrirako eta egonezinerako aukera eman zuen. Alde batetik, Europa gero eta indar handiagoa hartzen ari zen; konfiantza zegoen eta erabateko nagusitasun-sentsazioa, industria-iraultzarekin hainbat naziok inoiz lortu ez zuten aberastasuna eta boterea erdietsi baitzuten. Baina garai horretako berezkoak ziren, halaber, isolamendua, *ennui-a* eta melankolia —Charles Baudelaire idazleak *Gaizkiaren loreak* (1857) lanean aztertu zituen—, Alfred Tensión-ek *In Memoriam* (1850) lanean azaldutako zalantza, eta Flaubert-ek *Madame Bovary* (1856) lanean azaldutako atsekabea eta heroinaren uzkurdura suntsitzailea. Jendea nahasita eta ikaratuta zegoen. Gizakiak gizarte modernoaren lorpenak goraipatzen zituen, baina, aldi berean, hutsune- eta ezezkeria-sentsazioa zeukan, eta horrek zentzurik gabe uzten zuen bizitza; askok ziurtasuna irrikatu zuten modernitatearen zalantzaren erdian […].

Ipar Amerikako gizartea (giro erlijioso liberalekoa) aipatu berri dugun egoera berdin-berdina bizitzen ari zen. Iparraldeko estatuen eta hegoaldeko estatuen artean piztu zen gerra zibil suntsitzailearen ondoren (1861-1865), kleriko eta predikari protestante berriak sortu ziren, munduaren historiari buruzko ikuspegi apokaliptikoari eusten ziotenak, Bibliako Apokalipsiaren 20. kapituluaren hitzez hitzeko irakurketan oinarrituta dagoenari. Thompson-en arabera (1998), Eskritura Santuen zati hori «Itun Berria osatzen duten testuen artetik azkena eta eztabaidagarriena da, denboraren amaierari buruzko hainbat ikuspegi fantastikok osatzen dute, Kristoren eta Satanen indarrek elkarren aurka borroka egiten dutenean indarkeriazko eta ankerkeriazko eszena izugarrien artean». Hortaz, Ipar Amerikako ebanjelari protestanteek Bibliako kontakizun horri buruz egiten zuten interpretazio literala izango da ondoren pentsamolde fundamentalista protestantea deitu zitzaiona XIX. mendean sortzeko oinarri nagusia; gainera, pentsamolde hori gaur egun arte egon da bizirik.

Marsden-ek (1980) bere *Fundamentalism and American Culture* liburuan adierazten du ikuspegi horri «aurremilenarismo dispentsazionala» deitu zitzaiola sinestun apokaliptikoek uste dutelako Kristo milurtekoa *baino lehen* itzuliko dela. Korronte horren sortzaile nagusia John Nelson Darby (1800-1882) poselitista ingelesa izan zen, eta Irlandako Elizarekin hautsi ostean, Plymouth

anaien[8] taldearen buruzagi bihurtu zen. Ebanjelista hori berak gogo handiz defendatzen zuen interpretazio profetikoaren metodoak predikatzen hasi zen Ipar Amerikan. Bibliari eta historiari buruz egiten duen interpretazioa erabateko subiranotasun jainkotiarraren ideian oinarritzen da irmotasunez, eta ez ditu oso aintzat hartzen gizakiaren trebetasuna eta ahalmena. Armstrongen (2004) baieztapenaren arabera, testu sakratua honako hau zen Darbyrentzat: «egia hitzez hitz esaten zuen dokumentu bat» eta testu erlijioso horretan azaltzen diren hitzak eta oharrak ez dira profeten mezu sinboliko huts bat, baizik eta «iragarpen zehatzak egiten ziren, aurreikusi zituen bezalaxe laster gertatuko zirenak».

Halaber, Eskritura Sakratuak ez dira, betiere Darbyren arabera, gizakiak bere historian —iraganekoan eta etorkizunekoan— bizi izandako gertaera guztien irudikapen garbia eta zehaztua. Eskritura horiei buruzko irakurketa zehatza —San Paulok tesalonikarrei bidalitako Bigarren Epistolan oinarritua— egindakoan, Darbyk Epistola horren lerroetan «salbamenaren benetako historia» ikusten zuen. Salbamen hori, Armstrongen (2004) arabera, zazpi garai historikotan edo hain gaiztoak diren eta beren bidetik aldentzen diren gizakiak zigortzeko Jainkoak nahitaez gauzatu behar dituen «probidentzia-ekintzetan» zatituta dago. Ekintza horietako batzuk zigorrak dira, hala nola Uholdea eta Kristoren gurutziltzaketa. Bosch-ek (1999) azaltzen duenez, zazpi faseak honako hauek dira:

> *Inozentzia*: Jainkoak Adanekin egindako ituna erorikoaren aurretik; *Kontzientzia*: Adanen ituna, paradisutik kanpora bota ondoren; *Giza Gobernua*: Noerekin egindako ituna, uholdearen ondoren; *Agintzaria*: Abrahamekin eta Israelekin, hots, hark hautatutako herriarekin egindako ituna; *Legea*: Moisesekin egindako ituna; *Graziak*: graziazko ituna Kristoren bitartez modu indibidualean hautatutako juduekin eta jentilekin bigarren etorrera arte; *Garaien Betea*, edo *Erreinua*: milurtekoa, Kristok Israelgo monarkia dabidikoa berriz ezartzen duenean eta mila urtez errege izaten denean.

Darby-ren interpretazioaren arabera, haren garaian gizateriak seigarren probidentzia-egintza, hots, azken aurreko egintza, bizi zuen. Fase horretan, «gizaki

---

[8] Mugimendu ebanjelista da, baina izenak iradoki dezakeena gorabehera, hainbat lekutan sortu zen aldi berean 1830. urtearen amaieran: Dublinen, Londresen eta Plymouth-en. Sortu zenetik, kristau guztiak elkartzea eskatzen zuen, irakaspen-izen desberdinak gorabehera, Kristautasunaren oinarrizko sinismenak —haien ustez Ingalaterrako Elizak behar bezala zaintzen ez zituenak— berreskuratzeko.

fedegabea, galbidearen semea» (horrela definitzen du San Paulok Antikristoa tesalonikarrei bidalitako Epistolan) bere mirari eta seinale engainagarriak eginez agertuko da eta horrela engainatuko du mundua. Baina bere helburua gizateriari atsekabealdia eragitea baino ez da, eta horretarako sarraski eta jazarpen kalkulaezinak egingo ditu. Zazpi urtez lortu zuen, Kristo lurrera jaitsi, Antikristoa garaitu eta Armagedongo lautadan Satanekin azken borroka egiteko konpromisoa hartu arte. Satan gainditu ondoren, azken probidentzia-egintza hasten da, zazpigarrena. Egintza horretan, Kristo erreinu baten buruzagi izango da, Israelgo erreinuarena, erospenaren eta alaitasunaren erreinuarena, Azken Kontuetako Egunean gizateriaren historia amaitu arte (Armstrong, 2004).

Ikus daitekeenez, azken denbora hurbil zegoelako sinismenean oinarritutako ikuspegia da. Horregatik, nahitaezkoa da interpretazio horien aurrean jarrera gogorra izatea eta Jainkoaren Hitzaren oinarri nagusitzat hartzen direnei buruzko prediku zorrotza izatea. Doktrina horien jarraitzaileek egiten zuten hitzez hitzeko irakurketa ondoren Ipar Amerikako fundamentalismo protestantea deitu zuten fenomenoaren jatorrietako bat da.

Gaur egun, segur aski horrelako zerbait izango du buruan fundamentalismo protestanteak, eta baita fundamentalismo juduak ere Jerusalengo Meskiten Zelaigunea —horien artean Al Aksa meskita eta Harkaitzeko Kupularen meskita daude— suntsitu nahi dutenean, arkitektura-edertasun eta balio historiko handia izateaz gain, Islamaren lekurik sakratuenetako bat den gunea. Bibliaren hitzez hitzeko irakurketan oinarritutako «probidentzia-egintzen» sinismenari eusten dion fundamentalismo erlijiosoaren planak Zabalgune hori eraistea dira «Hirugarren Tenplua» deiturikoa eraikitzeko bidea berdintzeko. Plan hori, gaur egun, Ekialde Hurbileko gatazkaren kausa garrantzitsuenetako bat da, eta lurrera botatzen ditu hitz egiteko eta eremu horretan bakea jartzeko ahalegin guztiak.

# 3 Islamiar fundamentalismoa

## 3.1. Islamiar fundamentalismoa: hiru erantzun krisiaren aurrean

Egungo gizarte arabiar-musulmana izugarrizko krisi globalean murgilduta dago. Ziurgabetasun- eta ezkortasun-sentimendua oso nabarmena da eta oso hedatuta dago, frustrazio- eta mehatxu- sentimendu asaldatzailea dago, baita ustekabeko etorkizunarekiko beldur sakona ere, eta, batez ere, ezintasun-sentimendua dago desoreken eta nahasteen giro politiko eta kultural hain izugarriaren aurrean. Garai honetako musulmanek ulertzen dute porrotaren garrantzia, baina, era berean, badakite haien memoria kolektiboan handitasunezko eta goren mailako lehenagoko garaietako oroitzapen irribarretsuak, ia freskoak, daudela. Batzuek etsia hartu zuten eta itxaropen guztia galdu zuten; beste batzuek, aldiz, uste dute gaitz hori igarokorra eta egoeraren araberakoa dela. Azken horiek egoera horri buruzko galderak egiten eta egoera horretara eraman zituzten alderdi politikoak, sozialak eta erlijiosoak aipatzen hasi ziren. Zergatik gertatu dira atzerapen hori eta erabateko desabantaila-egoera hori? Zergatik geratu da eta egin du behera mundu arabiar-musulmanak eta beste mundu batzuek, aldiz, (Mendebaldea, esaterako) zergatik egin dute aurrera eta gora? Historiatik kanpo al gaude, edo okerrago, historiaren lekurik doilorrenean kokatuta al gaude? Nola berreskura dezakegu horrenbeste desiratzen dugun iraganeko gure jatorrizko kultura? Zein dira gure jomuga berreskuratu eta bideratu ahal izateko formulak eta gakoak? Elkarrekin lotuta dauden galdera kezkagarri horiek eragingarriak izan dira gaur egungo arabiar-islamiar pentsamenduan bide berriak irekitzeko.

Hainbat ikuspegi eta irakurketa sortu ziren, eta irakurketa horietan «bestea», hots, betiko Mendebaldea, hortxe dago beti, hainbesteraino non erantzun teorikoak Mendebaldearen portaera hegemonikoaren eta menderatzailearen aurrean ematen ziren edota, aitzitik, Mendebaldeak erdietsitako lorpenekiko eta haren modernismoarekiko sinbiosian. Planteamendu *sala-*

*fiari*[9], liberalari eta nazionalistari buruz hitz egiten ari gara. Lehenengo planteamendua *Ummaren* kontzeptuaren eta horren batasunaren (islamiar komunitatea) inguruan garatu zen, eta komunitate horretan, gainera, normalean kontrakoa uste bada ere, sinestun musulmanak nahiz beste sinesbide batzuk dituztenak sartzen dira. XIX. mendeko *salafi mugimenduak* defendatzen zuen Islama bateragarria zen modernotasunarekin, eta musulmanak beren fedearen benetako espiritura itzultzen badira, hainbat mendetatik hona bizi duten gainbeheratik atera daitezkeela eta egungo gizartean hainbeste desiratzen duten aurrerapena lor dezaketela. *Salafiak* erreformistak ziren, *Iytihad-aren*[10] alde azaltzen zirenak, gizarteak aurre egin behar dien dilema sozialei, erlijiosoei, ekonomikoei, politikoei eta kulturalei erantzuteko, eta horretarako, esaten zuten Islama fede gisa eta *Aql-a* (arrazoia) elkarrekin doazela Islamaren lehenengo urteetatik aurrera.

*Salafi* mugimenduaren aitzindaria erreformista musulman Yamal al-Din al-Afgani (1839-1897) izan zen. Jatorriz Pertsiakoa zen eruditu hori Egipton bizi zen, eta han defendatzen zuen Islam berritu batean oinarrituta dagoen bere tesia, eta horren arabera, arrazoia eta humanismoa mezu koranikoaren funtsezko alderdiak dira. Pentsamendu berritzaile hori beste eruditu batek ere, hau da, *salafiyya*ren teoriko handiak, Muhammad Abdu (1849-1905) egiptoarrak predikatzen zuen garai berean. Teoriko hori al-Afganiren dizipulua zen eta aldarrikatzen zuen *Iytihad-aren* ateak ireki behar zirela Islama berritzeko eta gizarte modernora egokitzeko, eta horretarako, tradizionalisten jarrerak hartu ordez entelegua eta gogoeta erabili behar dira, jarrera haiekin ar-

---

9 *Salafi*, arabieraz *as-Salafiyya*, *salafa* errotik dator*,* eta asaba esan nahi du. Hitz horrek Profetari nahiz hainbat mendetan garrantzi handia izan zuen lehenengo komunitate islamiarra sortzen lagundu zuten musulman guztiei egiten die erreferentzia.

10 *Iytihad*: kultura islamiarraren arabera, tresna horrek esan nahi du lege eta kontzeptu islamiarrak interpretatzeko ahalegin bat egin behar dela, gogoetaren eta kultura horren espiritu kritikoan oinarritutako arrazonamenduen bitartez. Jarduera horren asmo nagusia kontzeptu islamiarrak aztertzea eta horien inguruan eztabaidatzea da, kontzeptu horiek gaur egungo egoerara egokitzeko. Baina metodo hori K.o. XI. mendetik aurrera (garai musulmanaren V. mendea) eten egin zuten abasi kalifaldiko agintariek; izan ere, agintari horiek urduri zeuden *Iytihad-ek* sortzen zituen ideia berritzaileekin eta uste zuten buru-jarduera hori ez zela beharrezkoa, eta horretarako, adierazten zuten legezko corpus islamiarrak bizitzaren alderdi guztiei buruzko erabakiak (esanbidezkoak edo ondorioztatuak) zituela. Gaur egungo musulman gehienek uste dute nahitaezkoa dela *Iytihad* kontzeptua berreskuratzea, erlijio islamiarra iritsi den immobilismoa gainditzeko tresna gisa.

basoak itsu-itsuan imitatu besterik ez baitzuten egiten, eta ez zeukaten inolako ikuspegi kritikorik.

Bestalde, ideologia liberal arabiarra Frantziako Iraultzaren garaiko Europatik, metodo zientifikoetatik eta erromantizismotik inportatu zuten. Baina, halaber, Europa hori, gizarte musulmanaren begitan, eta arestian adierazi dugunez, bi arrazoibide oso kontrajarrirekin aurkeztu da arabiar-islamiar munduaren aurrean: lehena, kultura-mailakoa da, eta demokraziaren eta askatasunen kontzeptuak zabaltzen ditu; bigarrena, aldiz, esparru espedizionarioaren barruan sar daiteke, hots, kolonialismoaren eta inposizioaren esparruan. Hortaz, liberalismo arabiarraren printzipioak, batez ere proposamen politikoa, ezin izan ziren behin betiko ezarri, nahiz eta pentsalari arabiar eta musulman askoren pentsamenduan eragin zuten. Nazionalismoak, halaber, kolonialismoaren independentzia eta nazio arabiar guztiak biltzen dituen panarabismoaren ideia defendatzen zuen konponbide gisa aurrerapena lortzeko bidean. Planteamendu hori bertako beste edozein ideologia baino askoz barrurago sartu zen XX. mendearen lehenengo hiru laurdenetan. Arabiako herritar gehienen laguntza lortu zuen arren, ezin izan zion, ordea, asaldura politikoari gogor egin ezta XX. mendearen erdialdean sortu ziren erronken eta gertakarien presio ikaragarria gainditu ere: 1945ean Arabiar Estatuen Liga sortu zen, eta Gamal Abdel-Naser-ren Egipto buruzagi izanik, herrialde arabiar independenteak biltzen zituen; herrialde kolonizatuek, ordea, beren askatasunaren aldeko borrokari ekin zioten eta Arabiar Ligan sartu ziren ondorengo urteetan; Palestina okupatu zuten, eta herrialde hori da, hain zuzen ere, oraindik askatasuna eta independentzia lortu ez duen arabiar herrialde bakarra; Egiptoren aurkako bonbardaketa eta gerra britainiar-frantziar-israeldarra Suezko Kanala 1956an nazionalizatu ondoren; 1967ko gerra, arabiarren porrota ekarri zuena eta Israelgo Estatu sortu berriaren armadak Egiptoko, Siriako eta Jordaniako lurraldea konkistatu zuen berriro.

Honetan guztian ere parte hartu zuten, halaber, superpotentziek (Bretainia Handia, Frantzia eta, ondoren AEB), eta paper erabakitzailea izan zuten, izan ere, kasu askotan, gertakariak lehertzea eta gertakari horien norabidea erabaki baitzuten, ia beti kontrakoak arabiarren ikuspegitik begiratuta. Martínez-en arabera (1997), mendebaldeko politikak, «nazionalismo arabiarrez arduratu zenak, ez zuen begi onez ikusi eta ez zion ia inoiz onartu [...] inolako ezaugarri edo osagai positiborik, estimagarririk edo baliozkorik».

## 3.2. Arrakastaren ezaugarriak eta gakoak

Nazionalismoaren erorialdiak oso ongi utzi zuen egoera arabiar-musulman gizartean korronte fundamentalista sor zedin. Korronte hori ziurtasun handiz azaldu zen, aldaketa sozialerako proposamen berri eta alternatiba politiko gisa beste ideologia liberal, marxista eta nazionalista batzuen porrotaren aurrean. Berlingo harresia erortzea sobietar blokearen hondamentzat hartu zen, baita ideologia komunistaren ezerezkeriaren probatzat ere, eta apustu egin zen etorkizunean (hurbila edo urruna) sistema kapitalistaren txanda izango zela hurrengoa, eta horrek estimulu eta bultzada ikaragarriak eman zizkien islamiar mugimenduei.

Hemen «islamiar fundamentalismoari» buruz hitz egiten dugunean, ez gara pertsona zibilen eta errugabeen aurka egiten diren eta musulmanak nahiz musulmanak ez direnak eraginpean hartzen dituzten atentatu terroristak aipatzen ari. Atentatu horiek, testuinguru historiko berean gertatzen diren arren, askoz ere lotura handiagoa dute, ordea, Ekialde Erdiko politika despotikoen izaera gordinarekin eta arduragabeekin, beste kausa batzuen artean. Horregatik, hurbilketa berezia behar dute, eta esan behar da gure gaitzespen indartsuena baino ez dutela merezi. Horrenbestez, azterlan honetan erlijiozko islamiar korronte sozial bati buruz hitz egingo dugu, joan den mendeko laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran aparteko kultura-garrantzia lortu zuen eta proiektu erlijiosoan gizarte zibilaren konfiantza berreskuratzen hasi zen korronteaz, alegia. Gainera, berreskuratze hori oso handia izan zen, zeren parte hartu zuen udal-, parlamentu- eta presidente-hauteskunde guztietan irabazi egin baitzuen eta arrakasta handia izan baitzuen. Islamiar mugimendu anitzari buruz hitz egiten ari gara; mugimendu horiek kontzientzia berdintsuaren erantzun gisa aurkezten dira gizartearen begien aurrean, baita erantzun egokien gisa ere erregimen autoritarioek eta legez kontrakoek marjinatutako, erreprimitutako eta manipulatutako biztanleriaren itxaropenetarako. Adierazitako erregimenek, boterearen besaulkietan egotearren, hamarkada askotan ez dute inolako zalantzarik izan erlijioa beren helburuetarako erabiltzeko. Erlijio-adierazpen hori arabiar-islamiar gizartearen eremu guztietan azaltzen da.

Ikusten ari gara munduko islamiar komunitate guztietan izugarri hazi dela musulmanen erlijiositate-maila: erlijio-erritua praktikatzen duten pertsonen

kopurua handitu da; gehiago eramaten da janzkera sinboliko jakin bat eta berezko itxura fisiko erlijioso baten plantak egitea praktikatzaileak ez diren gainerako herritarrengandik bereizteko; haien fedearen historiari eta oinarriei buruzko liburuen eta literaturaren sormen eta hedapen handia dago; erlijio musulmanari eta horren irakaskuntzei buruzko orori ekiten dioten webgune ugari sortu eta argitaratu dira Internet sarean, eta abar.

Horretaz gain, behatzaileek eta espezialistek erlijio-adierazpen horiei buruz duten interesa izugarri hazi da. Indarra hartzen ari den gaur egungo Islamaren errealitateari buruzko azterlanak eta ikerketak literatura ugari ekarri du berekin, eta literatura horretan kontzeptuak eta definizioak nahasita azaltzen dira askotan; nahasketa horrek, fenomenoa ulertzen lagundu ordez begiak ilundu egin dizkigu eta nahaste-borraste eta korapilo gehiago sortu ditu. Gai horri buruz komunikabideek diotena entzutea edo gai horri buruzko argitalpenen produkzio handia berrikustea besterik ez dugu horretaz konturatzeko. Horrenbestez, islamiar mugimenduei eta gizarte musulmanean izan den erlijiositate-mailaren hazkundeari hainbat modutara deitu zaio literaturan, lekuaren eta hurbilketa egiten duen behatzailearen ikuspegiaren arabera. Izan ere, esate baterako, bitarteko anglosaxoietan «fundamentalismoari» edo «islamiar erradikalismoari» buruz hitz egiten da, kultura frankofonoan, ordea, joera handiagoa dute «integrismo» edo «islamismo» hitza erabiltzeko, eta, era berean, gainerako herrialdeetan, ikertzaileek erabaki dute ildo horiei jarraitzea, beharbada erosotasunarengatik kontzeptu-zorroztasunagatik baino gehiago. Hitz horiek, «tradizionalismoa» eta «fanatismoa» hitzak bezalaxe, sinonimo gisa erabiltzen dira eta erraztasun eta arintasun handiz ordezkatzen dira jende guztiaren (erlijio horretako kide direnen eta ez direnen) harridurarako.

Nolanahi ere, hitz horiek ematen duten ideia argia, sinplea eta zehatza da: dauzkaten ideiei, daukaten janzteko moduari eta beren gastronomiari dagokionez desberdinak direnak dira, baita erlijioa eta politika uztartzen dituztenak eta gizarte patriarkala dutenak, bereziki oroitzapen onak utzi ez dizkigutenak eta beldurra eragiten dutenak ere. Azken batean, gustatzen ez zaizkigunak dira. Zergatik horrenbeste biltzar eta ikasketa akademiko ez dira gauza izan fenomeno horretara hurbilduko gaituen eta haren kultura- eta erlijio-alderdi guztietan ohiko karga ideologikorik eta arbitrariorik gabe ulertzen lagunduko digun behar bezalako definizioa emateko? Gertakari horren aurrean zergatik desegiten dira dedukzio-metodoak eta tresna filologikoak? Non dago

zientzia soziologikoen eta historiko-kritikoen objektibotasuna? Egia da «fundamentalismo» hitza beste kultura batzuetara estrapola daitekeela, baina hitz horrek hartu duen esanahi berri hori, bere jatorrizko zentzuarekin zerikusirik ez duena, arabiar-islamiar munduari buruzko diskurtsoaren ikuspegi murriztailearen (dagoeneko kronikoa eta ia suntsiezina) egiaztapen argigarria da musulmanentzat.

Arabierako *Usuliyya* hitza ingeleseko *fundamentalism* hitzaren baliokidea da; hitz horren adierak eta hitz hori erabiltzen den eremua, ordea, oso desberdinak dira mendebaldeko munduan garatu zirenekin alderatzen badugu. Arabierako hitz hori —*Asl* errotik dator, eta aldi berean, oinarri, jatorri edo erro esan nahi du— Hejiraren II. mendeaz geroztik (kristau-aroaren VIII. mendea) existitzen da islamiar kulturaren legatuari lotutako kontzeptu gisa, eta ezagun samarra zen eta gaur egun ere halaxe da *Élm al-Usul-az* («Oinarrien Zientzia») arduratzen diren erudituen eta legelari musulmanen artean batez ere. Jakintsu horiei *Usuliyyin* deitzen zaie, hau da, erlijioaren oinarriei buruzko jakintza eta nagusigoa dutenak, eta, gizarte musulmanean sortzen diren eta benetako mezu koranikoarekiko koherentea den erantzuna behar duten egoera berrien aurrean, baliabide filologiko, teologiko edo historiko hori erabiltzen dutenak, alde batetik, Islamarekiko ulermena hobetzeko eta, beste alde batetik, gai horri buruz erlijioak ematen duen epaia erabakitzeko.

Ildo horretatik, honako galdera hauek egin ditzakegu: Nork berma lezake erudituhorien jakintza oinarrien arabera garatu dela? Zer mekanismo eta prestakuntza erabiltzen dituzte beren jakintza erlijiosoa lortzeko eta garrantzizko epaiak emateko, batez ere Koranean eta *Sunnan-en* esanbidez aipatzen diren testuak aurkitzen ez dituztenean[11]? Fundamentalisten (hitz horrek mendebaldean duen zentzuaren arabera) eta *Usuliyyin-en* arteko distantzia, azken horiek erabiltzen duten metodologian eta gauzatzen duten zereginaren helburuan oinarritzen da. Izan ere, haien metodologia gogoetako eta arrazoizko esparru teoriko eta legezkoan oinarritzen da, eta legegileek behar bezala erabiltzeko behar adinako borondatea badute —izan ere, onartu behar da ez dutela beti borondate hori izan— Eskrituraren interpretazio irekia eta malgua

[11] *Sunna* hitzak «ohitura edo jarduteko modua» esan nahi du. Hitzaren kontzeptuzko zentzuan, musulman sunni-en arabera, Muhammaden esanen eta gertaeren multzoa da, Profeta hil ondoren erregistratu ziren bezalaxe. Islamiar legeriaren bigarren iturria da Koranaren ondoren.

egiteko gauza izango lirateke. Honako prozedura hauei buruz ari gara, esate baterako: *al-Raí* (iritzia ematea), *al-Qiyas* (analogia), *al-Iymaa* (adostasuna). Bestalde, *Élm al-Usul-aren* arabera, *Usuliyyin-en* azken helburua ez da arbasoak itsu-itsuan imitatzera mugatzen, baizik eta islamiar lege guztiak garatzea eta egungo bizi-baldintzetara egokitzea da helburua.

Hortaz, fundamentalismoari buruz hitz egiten denean orokorrean, esan behar da oinarriak eta iraganeko esperientziak funtsezko zerbait direla herrientzat, familientzat eta gizabanakoentzat. Nola edo hala, denok gara «fundamentalistak», batez ere iraganera begiratzen dugunean ikasbideez baliatzeko. Arazoa sortzen da irmoki hari eusten diogunean eta iragan hori ikasteko tresna gisa aipatu ordez gure egungo bizitzako alderdi guztietan modu zorrotzean aplikatzen ditugun jarraibide eta arau aldaezin gisa aipatzen dugunean. Kasu horretan, goreneko balioa ez litzateke gizakia, bere premiak, bere gaitasuna eta zorroztasuna, bere pentsatzeko eta berriz ezartzeko ahalmena izango, historia berez baizik, garai bateko protagonistek sortu eta eratu zuten bezala. Hau da, fundamentalista batentzat (orainalditik banandu eta iraganari lotzen zaiona) erlijioa ez da elementu askok eta oso desberdinek —metafisikoak nahiz sekularrak (erlijio-sineskerak, errituzko usantzak, transakzioak eta tratu sozialak, eta abar) osatzen duten egitura, eta elementu horiek, gainera, erlazionatuta egon arren eta elkarren menpekoak izan arren, dialektika eta printzipio oso desberdinen arabera antolatuta daude. Kasu honetan, erlijioa zehaztu ezin diren dogmen multzo bat da; hortaz, erlijio-sineskerei aplikatzen zaien arrazonamendua erlijio hori osatzen duten gainerako elementuei —eguneroko transakzioak, esaterako— aplikatzen zaien bera izango da. Horrenbestez, bizitzaren alderdi guztiak gelditu egiten dira eta sistema mugiezin bihurtzen dira.

Bestalde, fundamentalismoaren fenomenoa definitzeari dagokionez, arabiar eta islamiar komunikabideek eta pentsalariek ere ezin izan dute ongi argudiatutako enuntziatu alternatibo bat aurkeztu; mendebaldeko literaturan azaltzen diren kategoriak errepikatzeari lotu zatzaizkio, eta, islamiar ideologoen kasuan, berriz, erabat arbuiatu dute ezaugarri fundamentalista, batez ere hitzaren mespretxuzko zentzuan, eta islamiar mugimenduaren definizioa eman dute, kasu gehienetan idealizatua eta panegirikoa dena objektiboa baino gehiago. Horrela definitu nahi du islamiar mugimenduaren hedapena islamiar buruzagi batek, Hassan al-Tourabi sudandarrak —Haydar I. Alik aipatu zuen (1996)—:

> Egia esan, ez dago hitz horren [«fundamentalismo» hitzari buruz ari da] sinonimorik islamiar hizkuntzetan edo arabieran, bereziki. Hitz hori gerra ostean [Ipar Amerikako gerra zibila] hemen [Mendebaldean] gertatu zen fenomeno bat deskribatzeko erabili zen eta liburu sakratuaren hitzez hitzeko testuari eusteko joera da. Aitzitik, islamiar esparruan, mugimendu horrek antz handi samarra du Europako Errenazimenduarekin, benetako erreforma sozial bihurtu nahi duen kultura-berrikuntza globalaren mugimendu gisa [...] Horrenbestez, hitza nahasgarria da; izan ere, fenomeno oso liberala eta oso aurrerakoia deskribatzen du [islamiar mugimenduari buruz ari da], aurrera begiratzen duen mugimendua, eta ez mugimendu dogmatiko eta kontserbatzailea, atzerakoia ez esateagatik.

Beste islamiar ideologo batek, Rashed al-Gannoushi tunisiarrak, Haydar I. Ali-ren liburuan (1996) aipatzen den elkarrizketa batean, onartzen du nahiago duela «islamismo» hitza islamiar mugimenduei aplikatu, izan ere, ideologo horren arabera, hitz hori egokiagoa eta argigarriagoa baita. Ideologo horren lanetan ikuspegi sinple eta ondo egokitua azaltzen da: «“islamiarraren” kalifikazioa kalifikazio zibikoa da kalifikazio ideologikoa baino gehiago», eta adierazten du kategoria teoriko hori baliozkoa dela honako hau lortu nahi duten islamiar guztiak aipatzeko:

> Gizakia, zibilizazioa eta gizartea Islamaren balioen, balio horiei buruz duten pertzepzioaren eta hainbat tresnaren —erabiltzen dituzten kontzeptuei eta tresnei buruz edozein izanik ere gure erreserbak— arabera eraiki nahi dutenak, zeren haiek [islamiar mugimendua] ez baitute alderdi bat osatzen, baizik eta korronte baten aurrean gaude.

Gaizki-ulerturik ez izateko, Elsayed Elshahed (1992) egiptoar soziologoak eta islamiar zientzien Frankfurteko irakasleak ere «islamismo» hitza erabili ordez «fundamentalismo» hitza erabiltzearen aldeko apustua egin zuen, lehenengo hitza honela hartuta: «jatorrizko Islamera atzera egiten duen erreferentzia-zentzu gisa edo [XI. mendeko eruditu musulman al-Gazali aipatuta] erlijioaren suspertze gisa». Egile horrek berak honako hau dio: «guk nahiago dugu “berriz islamizatzeaz”, edo, soilik, “islamismoaz” hitz egin».

Berdintsu, Haydar I. Ali soziologoa (1996) mugimendu horiei «islamistiko» etiketa gehitzearen aldekoa da, «islamiarrak», «islamistak» eta «islamistikoak» bereizteko. Soziologo horrentzat, islamiar mugimenduak dauzkaten

ahalmenen arabera, beren bizitza eta portaera bideratzen duten gida gisa erlijio-errituak gauzatzen dituztenak eta islamiar irakaskuntzei eta aginduei eusten dietenak soilik ordezkatzen ditu. Aitzitik, «islamista» hitza mugimendu antolatuei edo erlijioa ulertzeko edo interpretatzeko modu propioa defendatzen duten eta erlijioa gizakiaren bizitzarako orientazio eraginkorrena ematen duen elementua dela uste duten korronteei buruz hitz egiteko erabiltzen du. Kategoria horren barruan, erlijio-aldaketaren mugimenduak sartzen ditu eta XIX. mendeko islamiar erreformistak aipatzen ditu, hala nola al-Tahtawui, al-Afghani eta Mohammad Abdu, besteak beste. Aitzitik, «islamistikoak» arestian aipatutako pentsalarien pentsamoldearen zati batekin bat etor daitezkeen mugimenduak dira, baina mugimendu horietan militantzia aktiboa nagusitzen da buru-ariketa eta -ahalegina baino gehiago. «Islamistikoak», eransten du Haydar I. Ali-k (1996), gaur egungo erlijio-pentsamenduan soilik sakontzen dute eta erlijioa militantzia aktiboan eta beren helburu politikoen alde gauzatzeko premia duten neurrian aztertzen dute. Mugimendu «islamistikoa» aktibismo politikoa eta antolamendu-ahalmenak gainditzen dituen joera da, baina ez dauka gaitasunik azterketa egiteko ezta buru-ariketak gauzatzeko ere, eta horrek fanatismora eta erradikalismora eraman gaitzake, adierazten du aipatutako egileak.

Hortaz, «islamismoa», «islamiar fundamentalismoa» eta «Islam politikoa» dira, besteak beste, ikertzaileek erabili ohi dituzten hitzak erlijioa beren proiektu soziokulturalaren eta politikoen oinarri gisa hartzen dituzten eta gizarte bat beren jatorrizko kultura islamikoaren norabideei jarraiki eraiki nahi duten mugimendu sozialei buruz hitz egiteko. Nolanahi ere, F. Burgat-ek (1988) dioenaren arabera, esan daiteke islamismoa fundamentalismotik aldentzen dela izaera militantea duelako eta modernotasun teknologikoa onartzen duelako: «hainbat kontzeptutan, islamiar guztiak fundamentalistak badira, hau da, testu koranikora eta Profetaren tradiziora itzultzearen aldekoak badira, aro musulmana birsortzeko erreferentzia moralen, sozialen eta politikoen iturri gisa hartuta, guztiak ez dira modu berean hurbiltzen gaira: fundamentalistak, zentzu horretan, ez dira islamistak. Ekintza fundamentalista eremu moralera mugatzen da eta ez du ekintza politikoa kontuan hartzen. Fundamentalisten kredoan susmagarria izanik, modernotasun teknologikoa esanbidez onartu dute islamistek». Aztertzen ari garen fenomenoaren nahas-mahasa ulertzeko funtsezko ikertzaile Gema Martín Muñoz (1999) andreak, ordea, zehazten du islamismoak erlijioa berriz interpretatu nahi duela eta tradiziotik oinordetzan

hartutako elementu asko arbuiatzen dituela, baina antzeko behaketa egiten du eta honako hau adierazten du: «islamismoaren prestakuntza-prozedura intelektuala fundamentalista da». Nolanahi ere, ikertzaile horren ustez, mugimendu fundamentalista guztiak ez dira islamismoan bukatzen eta antolamendu islamistaren prestakuntza guztiak ez dira modu berean adierazten.

Horrenbestez, egoera islamistaren behaketak ere ahalbidetzen du bi korronte bereiztea: korronte batek egungo mugimendu islamista gehienak ordezkatzen ditu, erreformista da, ez du modernizazioa ukatzen eta sozialki gehiengoa du; bestea, ordea, tradizionalista da, Islamaren iturrietara (Korana eta *Sunna*) itzuli nahi du eta iturri horiek egungo gizarte eremu guztietan aplikatu nahi ditu zorrotz eta zehazki, hala nola Al-Yamaá al-Islamiya Egipton. Roy-ren arabera (1992), lehenengo korronteak islamiar erlijioaren funtsetan oinarrituta dagoen eredu sozial eta politiko eguneratua defendatzen du, baina tradizioa, herri-erlijiositatea eta superstizioak kritikatzen ditu. Halaber, beste korronte bat ere badago, iraganean esan denaren hitzez hitzekotasuna onartuz berrikuntza arbuiatzen duena, testu sortzaileen eta testuen iruzkingileen ekarpenaren jarraitutasuna onartzen duena, eta oinarrizko printzipio gisa imitazioa hartzen duena eta *Chariári* buruz[12] batez ere ikuspegi juridikoa eta inperatiboa duena.

Gema Martín Muñoz (1999) ikertzaileak interpretazio bera, hots, arabaiar/islamiar gizartearen bi joera horiek daudelako interpretazioa indartzen du eta argi eta garbi zehazten du islamista erradikalak «klandestinoak, gutxienenak eta gizartetik urrunen daudenak direla, eta islamiar Hiri "puruaren" utopiari aldatu gabe eutsiko diotela gogor eta utopia horretatik aldentzen den ororen aurrean amorerik eman gabe». Aitzitik, ikusketa erreformistari eusten dioten korronteak, aipatutako egilearen arabera «gehiengodunak dira eta harremanetan daude etengabe gizartearekin, eta gizarteko kideen benetako helburuekin, alderdi politiko bilakatuko dira; horretarako, beren kontrako ekintza konstituzio-esparruan mugatuko dute eta beren teoria aldatzen ari den errealitatera egokituko dute».

[12] *Chariá* hitzak «jarraitu beharreko bidea» esan nahi du hitzez hitz. Hitzaren kontzeptuzko zentzuan, musulmanaren eskubideei eta betebeharrei buruzko arauen multzoa ordezkatzen duen islamiar legea izango litzateke; era berean, eskubide eta betebehar horiek Koranean, Muhammaden portaeran —Profetak esandakoei eta egindakoei *Sunna* deitzen zaie— eta, azkenik, *Iytihad-en* (arrazonamendu intelektuala eta komunitateko jakintsuen adostasuna) inspiratuta daude.

Hain konplexua den fenomeno hori eta horren kudeaketan esku hartzen duten kausak aztertu nahi dituzten azalpen-teoria asko daude. Ikuspegi gehienek garrantzi handiagoa ematen diote testuinguru historikoari, eta testuinguru horretan, osagai politikoak, sozialak, kulturalak eta erlijiosoak elkarrekin nahasten dira batzuetan, eta, beste batzuetan, aldiz, beren kabuz jarduten duten zeregin erabakitzailea izanik. Horren haritik, Muhammad Arkoun-ek (1998) adierazten du islamismoaren eta estremismoaren arrakasta ulertzeko, ez direla ahaztu behar, lehenik eta behin, alderdi demografikoak, ekonomikoak, politikoak eta kanpoko esku-hartzea. Sorbonako Unibertsitateko irakasle emeritu den pentsalari musulman horrek adierazten du Islamari erlijio gisa fenomeno horren kausak esleitu aurretik gizarte musulmanaren egungo testuingurua aztertu behar dela; horretarako, argudiatu behar da gizarte batek bizi dituen zirkunstantziek (edozein izanik ere erlijio-kredoa) erabakitzen dutela gizarte horretan praktikatzen den erlijiositate-maila eta mota.

Étienne-ren ustez, (1987) islamismoaren sorrera azaltzen duen kausa handia «dagokion mendeko erronkei erantzuteko premia da». Islamismoa ideologia mugiarazlea bihurtuko da, porrot egin duen modernitatearen ondorioz antolatzen dena, biztanle gehienen frustrazioa eragin zuena, eta, horren ondorioz, biztanle horiek identitate- eta erlijio-arloko babesa bilatzeko prozesuan sartu ziren. Modernizazio-prozesuak proiektu hutsalak izan dira, eta gobernatzaileen ustelkeriaren ondorioz eliteei lagundu eta gainerako biztanleak zapaldu besterik ez dute egin. Bichara Khader ikertzaileak (1995), beste ikertzaile askoren artean, adierazten du jendea bere erlijio-gotorlekura itzultzea ezin dela gizarte musulmanen modernizazioaren aurkako erreakzio gisa hartu, funtsik gabeko modernizazio-proiektu honen ondorio gisa baizik. Erlijioaren ikuspegitik, gai horri dagokionez Elsayed Elshahedek (1992) adierazten du Islamak ez duela inoiz zientziaren aurka egin, eta egindako adierazpena berresteko Muhammadek esandako honetan oinarritzen da: «zientzialariak Profeten legezko jaraunsleak dira»; izan ere, zientzialariek beren produkzio-lana egiteko betebehar sakratua baitute.

Arabiar-islamiar munduak gaur egun bizi duen egoera politiko eta soziala kontuan hartuta, esan dezakegu egungo mugimendu islamistak azaltzen eta defendatzen duela hobekien biztanle gehienen eskaera, premiazko aldaketa politikoak eta ekonomikoak sartzeko eta gobernuen nagusikeriarekin bukatzeko premiari buruzko eskaera, alegia. Mugimendu horren diskurtsoak al-

daketak nahi dituen alde batera utzitako jendea mugiarazten du, eta jende horrek, era, berean, islamiar adierazpenean aurkitzen du berdintasun sozialaren eta politikoaren eremuan modu librean parte hartzeko eskubidearen alde egiten dituzten borroketarako euskarria.

Diskurtso islamistaren arrakastak zerikusi handia du bere mezuaren edukiarekin, baita mugimendu horren buruzagien, militanteen eta jarraitzaileen profil soziologikoarekin ere, eta mugimenduaren izaera kontuan izanda, gehiago da hiri-arlokoa landa-arlokoa baino. Izan ere, mugimendu horren planteamendu politikoak sakonki sartu dira hiriko eremu sozialetan eta oihartzun txikiagoa dute nekazarien artean, nekazariek konpromiso handiagoa baitute tradizioarekin beren herrialdeetako sistema politikoetan aldaketak egiteko premiarekin baino. Teorialari islamistek lortu dute beren diskurtsoaren inguruan zientzia-adarretako fakultateetako unibertsitario lizentziadun, irakasle, akademiko, teknikari, ingeniari eta ikasle kopuru handi bat biltzea, hain zuzen ere, estatu-botereen promesak —politika-askapenei, hobekuntza ekonomikoari eta berealdiko erabakiak hartzeari eta herrialde kolonizatzaileetako edo kolonizatzaile ohietako politiken mende ez dauden erabakiak hartzeari dagozkienak— ez bete izanagatik marjinatuta eta zapuztuta zeudenak. Era berean, islamiar mugimenduaren buruzagien jatorria, Gema Martín Muñoz ikerlariak (1999) dioenaren arabera, ez da «ulemen taldea, ezta islamiar erakunde klasikoak ere», eskola-sistema modernotik eta espezialitate zientifikoetatik baizik. Izan ere, honako hau adierazten du aipatutako soziologoak: «Anaia Musulmanen [13], sortzailea, Hasan al-Banna, […] ez zen inoiz eredu tradizionalen araberako erlijio-gizona izan. Dar al-Ulum-eko kairotar unibertsitate modernoan prestatu zen, eta ez Al-Azhar-eko islamiar unibertsitatean. […] Eta Sayyed Qutb, al-Banna bezala, Dar al-Ulum-etik igaro ostean, Egiptoko elite nazionalista eta liberalaren partaide izan zen 42 urte bete arte, eta AEBetan egonaldi luzea egin zuen». Orobat, mugimendu horretako gainerako ideologo gehienak Europako edo AEBetako unibertsitate-zentroetan prestatu ziren. Bestalde, esan be-

[13] Anaia Musulmanak: «Yamaát al-Ijuan al-Muslimin-en» elkartea da eta 1928an sortu zen Egipton. Arabiar-islamiar gizarteetan ondoren garatu ziren mugimendu islamista gehienen ama aitzindaritzat hartzen da. Garrantzi handia ematen dio hezkuntzari gizartea berriz islamizatzeko bitarteko nagusi gisa. Hasietatik aldatzeko eta berritzeko proposamena izan zen, eta gizabanakoarekin eta familiarekin lan egin zuen behar ziren aldaketa politikoak lortzeko. Elkarte horren sortzaileak, Hasan al-Bannak, ordezkapenezko sistema politikoan parte hartzea defendatzen zuen eta haren ustez bateragarria zen Islamean ezarritako gobernu-sistemarekin.

har da erakunde islamistak osatzen dituztenak direla hobekien egokitzen direnak baliabide tekniko modernoetara, eta, komunikabideetan duten presentziak eta Interneteko sarearen hizkuntzari buruz duten jakiteak etengabe erakusten dute propagandarako tresna egungoenak erabiltzeko gaitasuna dutela. Gizarte-klase pobreak erakartzea lortu dute, baina horretaz gain, beren mezua gizarteko talde guztien artean ere hedatu da.

Baina, gizarte musulmanaren sektore sozial eta urbanizatu zabal horiek zergatik ematen diote sinesgarritasuna *Chariá* ezartzea erreklamatzen duen mugimendu bati? Nahitaezkoa da adieraztea, islamiar mugimenduaren literaturaren arabera, *Chariá-ren* sistema defendatzeak ez duela derrigorrez esan nahi islamiar ordena estankoa eta dogmatikoa sortuko denik, baizik eta bere legatu kultural eta erlijiosoari bizkarra ematen ez dion gizartea sortzea dela helburua, idiosinkrasia horrekin eta berezko ezaugarri horiekin sentikorra den modernitatea egitea defendatzen duen gizartea, alegia.

# 4 Kontrastatze enpirikoa eta ikerketa metodologia

## 4.1. Sarrera

Kapitulu honetan azaltzen den informazioa, ikerketa enpirikoari buruzkoa, neurtzeko tresna eraikitzeko prozesu osoaren emaitza da, baita prozesu hori EAEko hiru Lurralde Historikoetan bizi den komunitate musulmaneko kide diren 121 parte-hartzaileren lagin bati aplikatuz bildutako datuen interpretazioaren emaitza ere. Helburua zera da, azterlan horren bitartez, elkarrizketatu horiek, beren burua sinestuntzat hartzen dutenek eta beren erlijio musulmanaren errituak egunero praktikatzen dituztenek, adierazten duten fundamentalismo-mailari buruz liburu honen sarreran iradoki genituen galderei erantzutea.

Hill eta Hood-ek (1999) *Measures of Religiosity* liburuan fundamentalismoaren fenomenoaren konplexutasunari eta fenomeno hori interpretatzeko zailtasunari buruz egindako baieztapenak kontuan hartzen baditugu, ondoriozta dezakegu hitz anbiguoa izateaz gain, «fundamentalismoa» neurtzeko tresna bat aplikatuz azterketa enpirikoaren eraginpean jartzeko zaila den fenomenoa dela. Adituek hainbat ikuspegitatik landu izan dute: ikuspegi politikotik, erlijiosotik, soziologikotik, antropologikotik eta abar. Horrenbestez, ikus dezakegu literatura espezializatuan kontzeptu horri buruzko hainbat definizio eta esanahi ugari daudela, eta horrek are gehiago zailtzen du fenomeno horren ezaugarriak proba edo test baten bitartez modu objektibo eta zorrotzean aztertu eta kuantifikatu ahal izateko zeregina.

Beraz, galdesorta egin aurretik, nahitaezkoa zen labur-labur definitzea zer ulertzen den fundamentalismotzat, eta fenomeno horrekin lotzen diren ezaugarri komunak zehaztea. Horrenbestez, jarrera fundamentalistari buruzko hainbat ezaugarri identifikatu ahal izan ditugu (batzuk objektiboak direlako hautatu ditugu, eta beste batzuk baztertu egin ditugu; izan ere, gure ustez, ez daukate lotura argirik fundamentalismoarekin), askotan, fundamentalismoari buruz ikertzaileek emandako definizio gehienetan azaltzen direnak. Hautatu-

tako ezaugarriak (ondoren aipatuko ditugu), alderdi oso esanguratsuak dira gure ustez, eta kontuan hartu beharrekoak gure neurri-eskala diseinatzerakoan. Aipatutako ezaugarriak honako hauek dira: (1) barne- eta kanpo-autokritika, (2) isolamendua, (3) erlijio-tolerantzia, (4) moderazioa, eta (5) autoritarismoa.

Ikerketa honetan ezarritako helburu espezifikoei erantzuteko, landa-lana egiteko galdesorta hautatutako laginari aplikatu zitzaion. Gure ustez, laginaren tamaina (121 parte-hartzaile musulman) nahikoa da lortutako emaitzak euskal gizartean finkatuta dauden gainerako musulman sinestun eta praktikanteei orokortzeko, izan ere, landa-lanean ikusi baita azken 25 elkarrizketetan parte-hartzaileek ematen zituzten erantzunak, orokorrean, bat zetozela aurretik elkarrizketatuek eman zituzten erantzunekin eta, beraz, horrek adierazten zigun lagina handitzeak ez zuela nahitaez ekarriko lortutako emaitzak modu esanguratsuan aldatzea.

Jarraian, gure ekite teorikotik atera genituen ondorioak proban jartzen ahaleginduko gara datu enpirikoak erabiliz. Era horretan, arestian aipatu ditugun bost alderdiei buruzko informazio guztia bildu, erregistratu eta aztertuko dugu. Azterlanaren zati honi honako egitura formal hau eman diogu.

## 4.2. Galdesorta eraikitzeko eta balioesteko prozesua

Prozesu honetan, neurtzeko tresna bat diseinatu nahi izan dugu, aztertutako biztanleriaren, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den komunitate musulmanaren, ezaugarriekiko eta berezitasunekiko ahalik eta fidagarriena eta neurrikoena. Horretarako, hasiera batean, 28 itemeko galdesorta bat egin dugu eta, ondoren, 35 item jarri behar izan ditugu proposatutako aldagaiak ahalik eta modurik zehatzenean eta fidagarrienean neurtzeko. Bestalde, hasiera batean horrela egitea pentsatu bagenuen ere, erabaki dugu *Scriptural Literalism Scale* (Hogge & Friedman, 1967) eskala ez erabiltzea, izan ere, eskala horretako itemek aldagai bat (testu sakratuak hitzez hitz irakurtzeko maila) neurtzen baitute, baina guk ere, azkenean, erantsi ahal izan dugu aldagai hori azterlan hau dela-eta prestatu genuen neurketa-tresnan 28 galdera egin ordez 35 galdera egin baititugu.

Gure galdesortaren baliozkotasuna eta eraginkortasuna baldintza errealetan bermatzeko, azterlan honen xede den biztanleriaren partaide den lagin

txiki batekin frogatu dugu. Bien bitartean, ahaleginak egin ditugu proba pilotu honek gure landa-lanak izango zituen baldintza berak izan ditzan bermatzeko. Helburua zera zen, gure tresnak zenbateraino funtzionatzen zuen kontrastatzea, baita helburua praktikan betetzen ote zuen ere, hasiera batean nahi zen bezala. Horretarako, 22 elkarrizketa inguru egin dizkiogu Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian bizi diren komunitate musulmaneko ordezkari eta kide multzo bati, eta talde hori honela banatu zen: 6, 5 eta 11 lagun, hurrenez hurren. Elkarrizketa gehienak komunitate horren kultuzentroetan egin ziren, beste batzuk, ordea, elkarrizketatuen etxeetan egin ziren.

Galderen argitasuna egiaztatzeko, elkarrizketak egiten genituen bitartean, galdera horiek eragiten zuten erreakzio mota, elkarrizketatuek galdesortaren edukiari eta asmoei buruz egiten zizkiguten zehaztasunak eta ematen zizkiguten argibideak idatzi ditugu. Nahitaezko proba horrek balio izan digu hainbat galdera anbiguo eta desegoki kentzeko. Mota horretako galderak kendu eta beste galdera argiago eta ulergarriago batzuk jarri ditugu. Era berean, egiaztatu ahal izan dugu komenigarria zela itemen ordena aldatzea erantzunen arintasuna bermatzeko. Gure ustez, prozesu honek modu erabakigarrian lagundu dio galdesortaren logikari eta barruko oinarriari, baita itemen fidagarritasunari eta egokitasunari ere.

## 4.3. Galdesortaren deskribapena

Fundamentalismoa neurtzeko egin dugun eskalak 35 item dauzka eta 20-30 minutu behar dira galderak egiteko. Itemek hiru gai handiri buruz hainbat iritzi ematen dituzte, eta iritzi horien tonua negatiboa nahiz positiboa da:

- Gizabanakoak gainerako pertsonekin (batez ere erlijio-gaietan iritzi desberdina dutenak) duen harremana,
- bizi deneko gizartearekin, orokorrean, duen harremana (bizitza antolatzeko eta ulertzeko moduak, gizabanako horrek beti partekatzen ez dituen ikuspegietan oinarrituta daudenak, ezartzen dituen gizartea) eta
- pertsona batek bere iragan kulturalaren eta erlijiosoaren inguruan duen ikuspegia (pertsona horrek sinisten duen testu sakratua barne).

Zehazki, helburua zera da, hiru maila horiekin lotutako erlijio-kontzeptuek elkarrizketatuko musulmanen jarreran nola eragiten duten jakitea. Erantzunak Likert motakoak dira eta erakusten dute elkarrizketatua zenbateraino dagoen ados galdesortako esaldiekin. Eskalako iruzkinei erantzuten zaienean, modu horren onespen- edo desonespen-maila zehaztuz egiten da, eta erantzun nahi ez bada, galdera erantzun gabe uzten da:

- «Erabat ados».
- «Neurri batean ados».
- «Ados».
- «Desados».
- «Neurri batean desados».
- «Erabat desados».

Galdesortan azaltzen diren iritzi gehienak (25 item inguru) ikertzaileak berak egin ditu, fundamentalismoari buruzko gogoeta pertsonalaren arabera, eta gogoeta hori bibliografia zabal bat irakurriz eta gai horren inguruan garatutako lantze teorikoei esker aberastu du. Aitzitik, gainerako 35 itemak (10 guztira), alde batetik, fundamentalismoa eta, bestetik, dogmatismoaren kontzeptua neurtzeko beste egile batzuek egindako eskaletan inspiratuta daude. Honako tresna hauek erabili ditugu 10 item horiek garatzeko:

- *Christian Liberalism Scale* (Stellway, 1973). Eskala honetako lehenengo itema honako hau da: *Science and religion are both equally good ways to find the truth*. Itema honela idatzita azaltzen da gure galdesortan: «Erlijioak zientziaren zeregina eta gizartearen pentsamendua sustatu behar ditu».
- *Religious Fundamentalism Scale* (Altemeyer & Hunsberger, 1992). Eskala horretako hiru item erabili dira inspirazio gisa gure galdesortako hiru iritzi idazteko. 2., 5. eta 19. itemak dira, eta honako hau diote: *All of the religions in the world have flaws and wrong teachings*; *Religion must admit all its past failings and adapt to modern life if it is to Benefit humanity* eta *There is no body of teachings, or set of scriptures, which is completely without error*. Iritzi horien antzeko iritziak, gure galdesortan azaltzen direnak, honako hauek dira: «Nire kulturaren historia berrikusterakoan, batzuetan ikusten dut batzuek akatsak egin zituztela iraganean»; «Sinestun batek bere fedearen oinarriei eutsi nahi badie, hobe izango du bizitza modernora ez

egokitzea» eta: «Normala da onartzea beste erlijio batzuk osatzen dituztenen artean jende zintzoa eta ona dagoela, nire erlijioa osatzen dutenen artean jende ez zintzoa eta oker dabilena dagoen bezalaxe».

- *The Dogmatism Scale* (Rokeach, 1956). Eskala horretan bost item hartu ditugu inspirazio-iturri gisa, honako hauek dira: *The United States and Russia have just about nothing in common*; *Even through freedom of speech for all groups is a worthwhile goal, it is unfortunately necessary to restrict the freedom of certain political groups*; *When it comes to differences of opinion on religion, we must be careful not to compromise with those who believe differently from the way we do*; *In times like these, a person must be pretty selfish if he considers primarily his own happiness* eta; *A group wich tolerates too many differences of opinion among its own members cannot exist for long*. Iruzkin horiek oinarri hartuta, honako item hauek egin ditugu gure eskalarako: «Ekialdearen eta Mendebaldearen artean dauden kultura-aldeek aberastasuna ekar dezakete enfrentamendu bat baino gehiago, bereiziki Ekialdeak pairatzen duen bidegabekeria bukatzen bada»; «Adierazpen-askatasuna guztiek bermatu behar dute, nahiz eta baten batek besteak kritikatzeko erabili»; «Erlijio-gaiei buruz ez banago ados norbaitekin, uste dut borondate argia daukadala bestearen ikuspegia ulertzeko ahalegina egiteko»; «Garai honetan, hobe da berekoia izatea eta nor bere premiez soilik arduratzea» eta «Bere kideen artean kritika onartzen duen taldeak ez du asko iraungo».
- The Right-Wing Authoritarianism Scale (Altemeyer, 1996). Eskala honetako 19. itema hartu dugu inspirazio-iturritzat. Item hori honako hau da: *Everyone should have their own lifestyle, religious beliefs, and sexual preferences, even if it makes them different from everyone else*. Gure tresnan idatzi dugun iritzia honako hau da: «Pertsona bakoitzak bere bizimodua izateko eskubidea du, baita bere sinismen propioak izatekoa ere, nahiz eta gainerakoen bizimoduarekiko eta sinismenekiko desberdinak izan».

## 4.4. Aldagaiak identifikatzeko irizpideak

Galdesorta baten alderdi garrantzitsuenetako bat neurtzeko erabiliko diren aldagaiak dira, baita aldagai horiek aztertutako gaiarekin duten elkarrekikotasuna ere. Premisa horrekin, neurtzeko eskalaren edukia eratu dugu, betiere

xehetasunak eta ikerlan honen xede den biztanleria musulmanaren mentalitate kulturalerako eta erlijiosorako itemek eduki dezaketen esanahia kontuan hartuta. Galdesorta osatzen duten esaldiak eta esamoldeak komunitate horren idiosinkrasia-aipamenetera egokitu behar direla azpimarratu da, batez ere, horiek arabierara itzultzeari dagokionez.

Aurreko fase batean, eta fundamentalismoaren fenomenoari buruzko iritziak eta oharrak erkatu eta bildu ostean, ondorioztatu dugu norbanako baten jarrera fundamentalista batek honako hau ekartzen duela:

a) *Iragana mito bihurtzen da eta iraganeko figurak laudatu egiten dira.* Fundamentalista modu zorrotz eta zurrunean lotzen zaio bere kultura- eta erlijio-legatuari. Fundamentalistarentzat, iraganean gertatu zen oro (hura iragan horrekin identifikatzen da) ezin da zehaztu eta ezin da aldatu, bereziki testu sakratuak direnean, ez baitu inola ere onartzen testu horiei koma bat eranstea edo kentzea. Iraganari buruz hitz egiten denean, ez dago zalantzarik, ez da galderarik egin behar, soilik men egin eta onartu egin behar da, iraganean daudelako ziurtasunak. Iraganeko esperientzien eta desiratzen ditugun historien hartzailetzat dauka bere burua, eta bere eginkizuna esperientzia eta historia horiek errepikatzea eta transmititzea izango da, horien inguruan arrazoi kritikoa aplikatu gabe. Beraz, jarrera fundamentalista batek aldaketen, zientziaren eta modernizazioaren aurkako osagai indartsu bat izaten ditu.

b) *«Besteekiko» distantzia eta interesik eza izateko joera,* batez ere sinismen berak ez dituztenekin. Are gehiago, fundamentalista besteekin alderatuta, eta bere inguruneko gizartearekin alderatuta, arraroa eta berezia da eta ez du zerikusirik haiekin. Ingurunea bidegabekeria gisa sumatzen du, baita sortzeko eta eratzeko esperientziaren desbideratze gisa ere, eta, horregatik, ingurune hori mehatxu bat da harentzat, dauzkan sinismenak deuseztatu edo, behintzat, ahuldu edo indargabetu nahi dizkiona. Horregatik sortzen da eta bidegabetzat, ezezaguntzat edo galdutzat hartzen den bitarteko horretatik bereizteko eta horren aurka harresiak eraikitzeko eta ezagunago duen bitartekoari atxikitzeko ideia behin eta berriz azpimarratzeko premia. Fundamentalistak nahi duen ingurune sozial hori ez badago, eremu indibidualean, familia-eremuan edo gizarte-eremuan sortzeko ahalegina egiten du, baita inposatzekoa

ere. Harremanekin hausten bada, kasu honetan, barruko sinismenen koherentziari eta baliozkotasunari oso-osorik eutsi dakioke, eta sinismen horietan dauden kontraesanak murriztu egiten dira, izan ere, azken batean, sinismen horiek ez erkatzea edo ez alderatzea lortu nahi baita.

c) *Pertsona hori ados ez dagoen pertsonen ikuspegia ulertzeko prest ez egotea edo benetako borondaterik ez izatea.* Hau da, fundamentalistak beste pertsona batzuekin hitz egitea onartzen badu, baieztapenen adierazpena besterik ez du egingo. Ez du inolako ahaleginik egingo «bestearen» ikuspegia ulertzeko. Jarrera fundamentalistaren abiapuntua da «besteek» dituzten sinismenak erabat okerrak direla. Aitzitik, fundamentalistaren ideiak egia ezin hobea dira, eta Jainkoak onartu eta sarituko duen egia bakarra. Pertsona horren ustez bere sistema eta balioak onak eta onuragarriak dira besteentzat, baina horretaz gain, uste du baimena duela edozein bitarteko bidez ideia horiek ezartzeko eta inposatzeko. Horrenbestez, mentalitate fundamentalistak ez du aintzat hartzen beste taldeek —mehatxu potentzialtzat hartzen dira haien sinismenen baliozkotasunerako— beren uste sendoak eta errritualak izateko, bizitzeko eta praktikatzeko zilegitasuna eta eskubidea. Horretaz gain, ikusten da aniztasun erlijiosoaren edo politikoaren aurkako joera handia dagoela.

d) *«Bestearen» errealitateari buruzko ikuspegi lausoa eta zehaztugabea.* Fundamentalista batek ez du bere burua gai ikusten «bestearen» alderdi positiboak onartzeko, nahiz eta beste hori oso zuzena eta ona izan. Pertsona horren ustez beste kulturen ezaugarri diren desberdintasunak gaindiezinak dira, eta, gainera, eragozpen bat dira elkartzeko eta bizikidetzarako. Bestalde, jarrera fundamentalista batek muturreko eta erabateko sinismenekin identifikatzeko joera du, baita erdigunetik eta tarteko ideietatik urrun jartzekoa ere.

e) *Jokabide erradikalak eta jarrera gogor eta autoritarioak justifikatzen dira fedeari eusteko edo fedea hedatzeko bitarteko gisa.* Fundamentalista baten ustez, «bestearekiko» erlazioa etengabeko borroka da eta uste du beste horrekiko harremanak ez diola inoiz aberastasunik ekarriko, baizik eta gatazkak sortzeko iturri izan litekeela. Izan ere, «bestea» bizimodu eta moraltasun hutsalen, ustelduen eta ezpuruen irudia da. Hortik sortzen da «beste» horren gainean irudi estereotipatuak eta negatiboak etengabe garatzeko eta sustatzeko joera. Eta horrela lortzen

du bere zirkulua osatzen ez dutenen gainean neurriz kanpoko agintaritzaren egikaritzapena eta errepresioa justifikatzea. Bestalde, pentsamolde fundamentalistak emakumeari buruzko ikuskera berezi samarra du (nahiz eta, ikuspegi historikoaren arabera, bat etorri ospe handiko idazle eta filosofo askoren iritziekin): emakumea —irizpide dogmatikoetan eta zientifikoak izan nahi duten teorietan oinarrituta— izatez gutxiagotzat hartzen da; ez da gai gizonak egiten dituen eginkizun berak eraginkortasunez gauzatzeko; gizartean duen «zeregina» bere umetokiarekin lotuta dago, ezkontzara eta amatasunera mugatua; gizona behar du beti tutore eta babesle gisa; ez dauka behar adinako buru-gaitasunik erabakiak hartzen parte hartzeko eta abar.

## 4.5. Aldagaiak eta horien justifikazioa

Fundamentalismoari buruzko postulatu horiek oinarri hartuta, pertsonalitateari eta jarrerari buruzko bost aldagai ezarri ditugu, eta aldagai horiek fenomeno horren erabakitzaileak eta ezaugarriak dira gure ustez. Hortaz, ondoren aipatuko ditugun bost aldagai horietako bakoitza behatzeko eta aztertzeko, zazpi itemez osatutako galdera multzo bat egin dugu; galdera horien bitartez, arestian aipatu ditugun ezaugarriekin zuzenean erlazionatuta dauden iritzi orokor batzuei buruz elkarrizketatuak duen jarrera aztertu nahi da. Honako hauek dira bost aldagaiak.

### 4.5.1. Autokritika

Kontzeptu hori bi «autokritika» motatan oinarritzen da: bata barne-mailan gauzatzen da, eta bestea, aldiz, kanpo-mailan. Lehena pertsona batek bere tradizioak eta ohiturak zehatz aztertzeko eta bere akatsak eta mugak aitortzeko duen ahalmena da. Bigarrenak, ordea, besteei buruz ezagutzen dituen edo iristen zaizkion irudien eta informazioen aurrean espiritu kritikoa erabiltzeko duen gaitasunarekin zerikusia du, beste horiek eduki ditzaketen ezaugarri eta obra onak onartuz. Beraz, «autokritika» pertsona batek sinisten dituen kontzeptu erlijiosoei eta kulturalei dagokienez atzera begiratzeko ariketa osasuntsua da, egin izan diren hutsegiteez jabetzeko eta arrazoiaren argitan jartzeko. Horren guztiaren arabera, bi «autokritika» mota horiek beharrezkoak dira pertsona batek dohain hori ote duen eta erabiltzen ote dakien berresteko eta balio-

esteko. Horren haritik, esan behar da helburua ez dela egon daitezkeen akats eta hutsegite horiek gogor gaitzestea eta alferrik zigortzea, baizik eta benetako, arrazoizko eta zentzuzko gogoeta eta berrikusketa egin behar da gure ekintzei, gainerakoekin (bereziki guk bezala pentsatzen ez dutenekin) ditugun harremanei eta gure legatu eta memoria historikoari buruz.

Baina, zer esan nahi du erlijio-legatuaren aurrean espiritu kritikoa izateak? Autokrikita aplika al dakieke legatu honetako testu sakratuei? Zenbateraino du jarrera fundamentalistak izateko joera sinestun batek uste izatea testu sakratua beretzat eta bere bizitzarako lehen mailako iturria edo iturri esklusiboa dela? Eskrituren eta fundamentalismoaren arteko harremana oso ezaguna da eta oso ondo dokumentatuta dago. Erlijio handietako erlijio-sinestun guztiek testu sakratu batera jotzen dute eta testu hori oso serio hartu behar dute, erabateko inerrantzia duen agerkunde jainkotiarra baita. Egile askoren ustez, liburu sakratu bat irakurtzeko eta interpretatzeko moduak erakusten du zein den sinestun baten fundamentalismo-maila. Suposatzen da irakurketa zenbat eta hitzez hitzezkoagoa izan, orduan eta aukera handiagoa izango dela fundamentalismoan erortzeko. Ruthven-en (2004) arabera, «fundamentalistek, leku guztietan, beneratzen duten testuaren hitzez hitzeko interpretazioa egiten dute».

Aldagai hori galdesortan azaltzen diren eta bakoitzari eman zaion zenbakiaren arabera ordenatutako item hauek neurtuko dute:

| «Autokritika» neurtzen duten zazpi itemak |
|---|
| 3. Erlijioak zientziaren zeregina eta gizartearen pentsamendua sustatu behar ditu. |
| 6. Adierazpen-askatasuna guztiek bermatu behar dute, nahiz eta baten batek besteak kritikatzeko erabili. |
| 9. Bere kideen artean kritika onartzen duen taldeak ez du asko iraungo. |
| 14. Erlijio-buruzagiek erlijioari buruz egiten diren galdera eta sortzen diren zalantza oro onartu eta erantzun behar dute. |
| 21. Sinestun batek bere arbasoak imitatu behar ditu erabat, izan ere, nahiz eta asko saiatu sinestun horrek ezin izango baitu ekarpen berririk egin. |
| 26. Nire kulturaren historia berrikusterakoan, batzuetan ikusten dut iraganean batzuek akatsak egin zituztela. |
| 35. Nire erlijioaren liburu sakratuan puntuazio-markak (koma, galdera-ikurrak eta abar) jartzea urrats egokitzat hartzen da, liburua hobeto ulertzen laguntzen baitu. |

### 4.5.2. Isolamendua

Gizabanako batek hartzen duen jarrera separatista da (hitzaren zentzu sozialean eta kulturalean) bere eta gainerakoen artean alde bateraezina ezartzeko. Era berean, mundutik aldentzeko joera hori gehiago areagotzen da erlijio-eremuan, fundamentalismoak eremu horretan bilatu eta deskribatu nahi ditu «isolamendu» horren ideiarekin bat datozen oinarriak eta kontzeptuak. Eta aurkitzen ez baditu, irudimena abian jartzen du iragan sakratuko pasarte batzuk interpretatzeko lortu nahi duen bereizketaren seinale garbi eta legitimatzailearen seinale gisa.

Ildo horretatik, Müller-Fahrenholz-ek (1992) fundamentalismoaren fenomenoari buruz egiten duen hurbilketa psikologikoan honako hau adierazten du: «*Fundamentalismus. Ein Phänomen der Gegenwart* («Fundamentalismoa. Egungo fenomenoa») liburuko ideiei kasu egiten badiegu, fundamentalismoa *alienazioaren ondorio* da. Fundamentalistek honako hauei buruz hitz egiten dute behin eta berriz, esaterako: «isolamendu pertsonalez», «gizarte-bazterkeriaz», «etika- eta -kultura-arloko deserrotzez» [...]».

Deigarria da ikustea zenbaterainoko paralelismoa dagoen alderdi honetan (eta beste mota bateko beste askotan) hiru erlijio monoteistetan: *judaismo* segregazionistan, esaterako, Itun Zaharreko hainbat testu erabiltzen dira, eta testu horietan gogor zigortzen dira «lohitzat» eta «fedegabekotzat» hartzen diren beste herrialdeak, haiekin ez nahastea, ez ahaidetzea edo harremanetan ez egotea justifikatzeko. *Goyim* hitza erabiltzen da judaismoaren sinismen berak ez dituzten herri «ez judu» horiek aipatzeko. Batzuetan, herri horiekiko gupidarik eza justifikatu izan da; *kristautasunean* bekatarien erreinuaz hitz egiten da, eta hortik atera egin behar da, horri kontrajarrita, esanekoen edo «*pusillus grex* (artalde txikia)» erreinua dago; eta *Islamaren* kasuan ohikoa da *gourabaá* hitza entzutea, islamiar mugimenduko kideek aipatzen dutena; kide horiek beren burua deskribatzeko adjektibo hori erabiltzen dute, eta «arrotzak» esan nahi du hitzez hitz. Hau da, «arrotz» sentitzen dira inguratzen dituen gizartearen ezaugarri diren baldintzen eta zirkunstantzien aurrean. Beren burua deskribatzeko *gourabaá* hitza erabiltzea zabaldu zen hitz hori abesti baten izen gisa erabili zelako. Aipatutako abestia, segur aski Egipton konposatu zen joan den mendearen 90eko hamarkadaren hasieran. Esan daiteke abesti horren egilea ezezaguna dela, bitxi samarra. Abesti horren jatorriari buruz dagoen informazioa

urria izateaz gain, kontraesankorra da. Dakigun gauza bakarra da 1993an abestu zuela ahots altu eta ozen batez Larrialdiko Auzitegi Goreneko akusatuen aulkitik Anaia Musulmanen mugimenduko kide batek. Mohammad al-Najjar izan zen, pertsona hori beste kide batzuekin prozesatu zuten garai hartako egiptoar parlamentuaren presidentearen (Rifát al-Mahjoub) erailketa politikoa zela-eta. 1990. urtean egin zen eta Egiptoko gizartean garai hartan zirrara handia eragin zuen krimen horren egileari eta haren inguruko zirkunstantziei buruz enigmak eta zalantzak zeudenez gero, akusatutako gazteak absolbitu egin zituzten tartean sartuta zeudela egiaztatzen zuten frogarik ez zegoelako. Dena dela, gauza da Mohammad al-Najjarren abestia epaiketa hartatik aurrera identifikazio-himno gisa geratu zela grabatuta Islam politikoaren mugimenduetako kide askorentzat. *Gourabaá-en* abestiaren letra honela da:

Arrotzak, arrotzak, arrotzak, arrotzak gara,
Arrotzak gara eta beste Jainko baten aurrean ez gara belaunikatzen,
Arrotzak gara, eta atsegin handiz onartu dugu bizitzarako lelo gisa,
Gutaz galdetzen baduzu, ikusiko duzu ez garela tiranoez kezkatzen,
Ez gara uztarriez kezkatuko, baizik eta betiraunderaino jarraituko dugu,
Arrotzak, horrelakoxeak dira askeak mirabeen munduan…

Egia da abesti hori sentsazio baten deskribapen zehaztua besterik ez dela, baina egia ere bada ezagutzen eta abesten dutenek beren inguruneko munduaren errealitatearen (mundu hori batez ere despotikotzat eta bidegabetzat hartzen dute) aurka definitzeko erabili izan dituela.

Era berean, beste kontzeptu bat ere aipa daiteke, Islamaren kasuan, mehatxatzailetzat hartzen den munduaren «bereizketa» sozialaren ideiarekin lotuta dagoelako; nolanahi ere, esan behar da kasu honetan ez dela bereizketa edo bakardadea, baizik eta babesleku seguru bat bilatu nahi dela. *Hiyra* (hejira) kontzeptuaz ari gara —hitz arabiar horrek «emigrazioa» esan nahi du hitzez hitz, eta zapalketa pairatuz gero edo fedea *daáwa* (ebokazioa eta erlijio-predikua) modu librean praktikatzeko eskubiderik ez izanez gero herrialdea edo gizartea uztean datza— eta kontzeptu hori hainbatek baliabidetzat edo erlijio-ikuspegitik bermatutako eragiketatzat hartzen du.

Islamaren historiaren ikuspegitik, *hiyraren* kontzeptuak Muhammadek beste musulman batzuekin 622. urtean (K.o.) Mekako beren jatorrizko hiria utzita

Arabiar penintsulako iparraldean dagoen hirira, hots, Medinara joateko egin zuen bidaia aipatzen du. Eta azken hiri horretako biztanleek haiek hartzea eta haiei aterpea ematea lehendik onartu zutenez, Meka hirian pairatutako intolerantziatik libre geratu nahi zuten. Islamaren historian izan zuen benetako esanahia ulertu nahi badugu, data hori baino lehen egin ziren beste bi «emigrazio» ere aipatu behar ditugu: musulman talde batek, Muhammadek aginduta, Abisiniara (gaur egun Etiopia) emigratu zuenean izan zen, «lurralde hartan bidegabekeriarik egiten ez zuen errege kristau batek agintzen zuen» eta profetak zioen errege horrek lagunduko ziela. Hortaz, «emigrazioa» erantzun bat da, intolerantziaren eta diskriminazioaren aurkako erreakzio bat, erlijio-kontzientziari eusteko eta kontzientzia hori praktikatzeko askatasuna izateko.

Komenigarria da aipatzea, betiere egungo immigrazio musulmanak Europako gizartean duen testuingurua kontuan hartuta, Islamaren historiako lehenengo hejira haiek funtsezko hiru baldintza eta zirkunstantzia bildu ostean gertatu zirela:

1. bizitzaren eta/edo norberaren erlijio-sinesmenaren aurka benetako mehatxua atzematea,
2. egoteko eta babesteko baimena eskatzea agintari hartzaileei, eta
3. harrera-gizarteko berezitasunei buruzko gauzak ikastea.

Bada, arestian aipatu dugun Abisiniara egindako «emigrazioaren» kasuan, musulmanek txatal koranikoak —duela gutxi ezagutzera emandakoak, Mariaren historiari eta Jesusen jaiotzari eta mezuari buruzkoak— ikasi zituzten buruz, herrialde horrekiko onarpenaren erakusgarri, izan ere, herrialde hartako biztanleek eta erregeak, negusak, kristau-erlijioa praktikatzen baitzuten.

Isolamenduaren aldagaia honako item hauen bitartez neurtzen da galdesortan:

| «Isolamendua» aldagaia neurtzen duten zazpi itemak |
|---|
| 2. Gaur egun eskolan irakasten dutenarekin hobe dugu gure seme-alabak etxean geratzea. |
| 10. Erlijio-komunitate bateko ordezkariek gutxiago hartu beharko lukete parte komunikabideetan eta ez lukete haietara irekita egon behar. |
| 12. Gaur egun, norbaitek bere erlijioa gorde nahi badu, hobe izango luke mundu honetatik aldentzea puru egoteko eta bizirauteko. |
| 15. Garrantzizkoa da behar den ahalegina egitea «bestearen» hizkuntza eta «beste» horren kulturaren beste alderdi batzuk ikasteko, elkar ezagutzeko modu egokia baita hori. |
| 19. Erlijio-komunitateek gizarte-jardueretan parte hartu beharko lukete, nahiz eta horretarako erlijiozkoak ez diren beste erakunde batzuekin lankidetzan jardun behar izan. |
| 23. Gaur egun, hobe da berekoia izatea eta norberak dituen premiez bakarrik kezkatzea. |
| 34. Erakundeen eta elkarteen arteko elkarrizketa-topaketa batzuk serioak diren arren, hobe da topaketa horietara ez joatea. |

### 4.5.3. Erlijio-tolerantzia

Honako hau hartzen dugu tolerantziatzat: gainerakoek existitzeko eta beren iritzi eta sinismenei eusteko duten zilegitasuna aitortzeko pertsona batek duen gaitasuna. Erlijioari dagokionez, beste kredo batzuk dituztela aitortzen dituztenek kredo horiek adierazteko eta praktikatzeko duten eskubidea modu aktiboan errespetatzea izango litzateke. Horri jarraiki, pertsona tolerante bat honako hau izango litzateke: gaur egun bizi garen munduan aniztasuna eta pluraltasuna dagoela jakinda, guztien (nahiz eta gutxiengoa izan) kultura-askatasuna errespetatzen duena, bere jarrerekiko desberdinak diren jarrerak onartzen dituena (nahiz eta okerrak direla pentsatu) eta aberastasun bihurtzen dituena benetako elkarrizketaren bitartez eta inposiziorik gabe.

Beraz, tolerantea izatea bertutetsua, eskuzabala eta justua izatea da. Halaber, hainbat eremutan aplikatzen den tolerantzia funtsezko oinarria izango li-

tzateke gizarte bat modu duinean eratzeko eta giza eskubideak errespetatzen dituen gizartea izan dadin. Ildo horretatik, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948an hartu zuen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 18. artikuluan honako hau ezartzen du:

> Pertsona orok pentsamendu-kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barnean hartzen da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

Baina, litekeena al da erabateko fedea izatea norberaren sinesmenetan eta, aldi berean, tolerantea izatea fede hori bera ez duten gainerakoekin? Pertsona batek irmoki eta modu seguruan sinesten badu bere erlijio-kontzeptuetan eta horiei eusten badie, horrek ez du nahitaez esan nahi tolerantea denik. Horretarako oinarri intelektuala eta erlijiosoa badago, gerta liteke bi gauzak lantzea: fedea eta tolerantzia. Izan ere, egungo gizartean erlijioek duten erronka beren sinismenei eusteko gaitasuna da, beste sinismenen zilegitasuna baztertu edo mespretxatu gabe. Beharbada, soilik formula horri esker erlijio batek biziraun ahal izango du, baina horretaz gain erlijio horren eta beste erlijio batzuen arteko puntu komunak aurkitu ahal izango ditu; hori funtsezkoa da erlijioen arteko elkarrizketa sendo eta benetakoa garatu ahal izateko. Bestela, harrokeriaz eta intolerantziaz hitz egiten arituko ginateke, bi jarrera horiek azaltzen dira, alde batetik, pertsona batek esaten duenean bere esperientzia eta bere uste sendoak Egia lortzeko bide bakarra direla, eta bestetik, gainerakoak derrigortu eta behartu nahi dituenean bide horri eta esperientzia horri jarrai diezaioten.

Jarrera intolerante hori fundamentalismoari lotutako alderdi gisa hartu izan da askotan. Armstrongek (2000) fundamentalismoei buruz egindako azterlanean honako hau esaten du: «fundamentalistek ez daukate denborarik demokraziarako, pluralismorako, erlijio-tolerantziarako, bakezaletasunerako, adierazpen-askatasunerako[…]». Orobat, Giner-ek (2002) adierazten du Egiaren aurkako posizioetako bat tolerantziaren eremuan posizio integrista dela; egile horrek nahiago du hitz hori fundamentalista baino, baina hori ere ez da erabat egokia. Posizio integrista horren arabera, Egia begi-bistakoa da, zalantzarik gabea eta erraz lor daitekeena. Egia nik daukat edo nire tribuak, edo apaiz nagusiren, testu sakraturen edo alderdiren batek

adierazten du. Edo zientzia, arlo horretako profesionalek azaltzen dutenaren arabera.

Aldagai hori honako item hauek neurtuko dute:

| «Erlijio-tolerantzia» aldagaia neurtzen duten zazpi itemak |
|---|
| 1. Erlijio-gaietan norbaitekin ez banago ados uste dut bestearen ikuspegia ulertzeko borondate argia dutela. |
| 7. Esan dezakegu nirea ez den erlijioan sinisten dutenak oker daudela. |
| 11. Gizarteko edozein erlijio-komunitatek, gutxiengoan egonda ere, bere festa propioak ospatzeko eskubidea izan beharko luke. |
| 16. Legitimoa da erlijio-komunitate guztiek beren erritu eta ofizioetan jarduteko euren otoizleku propioak edukitzea. |
| 27. Nire erlijio-sinesmenak eta beste pertsona batenak desberdinak izateak ez dit eragotziko pertsona horrekin hitz egitea eta egon daitezkeen puntu komunak bilatzea. |
| 30. Pertsona erlijioso baten eginkizunetako bat ingurukoei erlijioaren balioen berri ematea da. Ez ditu gainerako pertsonak kontrolatu behar. |
| 33. Pertsona batek ingurukoei laguntzen badio, ona egiten badu eta bihotz onekoa bada Jainkoak pertsona hori saritu egingo du edozein kredo izanda ere. |

### 4.5.4. Moderazioa

Arrazoizko mugetatik kanpora geratzen diren ideiak eta jarrerak ekiditeko gaitasunarekin zerikusia duen jarrera da «moderazioa». Muturreko egoeran tarteko eta neurriko jarrerak bilatzen eta aukeratzen dituen pertsona hartzen da pertsona moderatutzat. Muturretatik urrunduz adostasunerako gonbitea egiteko ezaugarria biltzen duen pertsona da, historia, oraina eta gizartearen eta gizakien zirkunstantziak kontuan hartzen dituena. Horrek guztiak honako hauek ahalbidetzen dizkio: alde batetik, bere burua eta kokatuta dagoen gizartearen arteko oreka aurkitzea eta bestalde, inguruko aldaketetara eta eraldaketetara errazago egokitzea.

*Diccionario de la Lengua Española* hiztegiaren hogeita bigarren edizioaren arabera dagokigun substantiboak esan nahi du «hitzetan eta ekintzetan zuhurtasuna, zentzutasuna eta neurritasuna azaltzea». Horretatik ondoriozta de-

zakegu «moderazioa» estremismoaren, zorrozkeriaren, neurrigabekeriaren, harrokeriaren eta urguiluaren aurkako kontzeptua eta jarrera dela.

Quinto Horacio Flacok (K.a. 65-8), olerkari liriko eta satirikoak, bizitza eta plazerrak neurrian gozatzeko gonbitea egiten duten planteamenduak azpimarratuz azaltzen ditu bere ideiak. Haren ustez egiazko zoriona lortzeko «urrezko mediana» (*aurea mediocritas*) lortu behar da. 2. liburuko X. odan honako hau errezitatzen du:

> Lizinio, beti ez bazabiltza itsas zabaleko arriskuan eta ekaitzaren
> mesfidantzaz eta beldurrez ez bazara oso fidagarria ez den kostaldera
> gehiegi hurbiltzen, bizitzan gehiago asmatuko duzu
> Urrezko moderazioa aukeratzen duena, erortzear dagoen sabai baten
> zekenkeriaz gerizatua eta babestua sentituko da baita jauregiek
> eragiten duten inbidiaz aldendua eta babestua ere […]
> Zailtasunen aurrean izan zaitez ausarta eta adoretsua Era berean, haize
> mesedegarriegia dagoenean atzera egiteko zuhurtasuna izan ezazu

Aldagai hori honako item hauen bidez neurtzen da:

| **«Moderazioa» aldagaia neurtzen duten zazpi itemak** |
|---|
| 4. Beste erlijioetako kideen artean jende zintzoa eta ona badagoela onartzea normala da baita nire erlijioko kideen artean jende gaiztoa eta okerra dagoela onartzea ere. |
| 8. Nire ustez, nire erlijio-sinismenak praktikan jartzea ez da gizarte honetan bizitzeko eragozpena. |
| 17. Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko txokearen arrazoi nagusia Ekialdeko biztanleriaren aurka eragin den bidegabekeria da. |
| 20. Nire ustez, beste hainbat erlijiok, esaterako judaismoak eta kristautasunak bakea lortzeko egiazko gogoa biltzen dute. |
| 24. Erlijio-gai bati buruzko aurkako iritziak daudenean, tarteko aukera hautatzen saiatzen naiz. |
| 28. Nire iritziz, herrialde honetako legeak eta epaitegiak, jatorria alde batera utzita, nahiko bidezkoak eta zuzenak dira. |
| 32. Fededun batek bere fedearen oinarriei eutsi nahi badie, bizitza modernoari ez egokitzea komeni zaio. |

### 4.5.5. Autoritarismoa

Kontzeptua hori asko erabiltzen da literatura espezializatuan eta eguneroko bizitzan baina aldi berean, kontzeptu polemikoa da. Ovejero-ren (1982) esanetan kontzeptu horren sustraiak aurreko mendeko hogeiko hamarkadan garatutako «Italiako faxismoa ulertzeko ahaleginetan» kokatzen dira. Harrezkero, termino hori pertsona autoritarioei, ideia autoritarioei, sistema autoritarioei, kultura autoritarioei eta abarrei buruz hitz egiteko erabili da. Gizarte-zientzien ikertzaile askorentzat, batez ere azalpen psikologikoak erabili behar dira autoritarismoa ulertzeko. Oro har, baldintzarik gabe miresten den edo autoritatea ematen zaion ideologia edo irudiari lotzeko edo atxikitzeko joera zorrotza izango litzateke autoritarismoa. Norberaren antzera pentsatzen ez dutenen aurrean oldarkortasuna eta erradikaltasuna agertzen du eta etsaitasunezko jarreraz ezarri nahi du bere eredua edo ikuspuntua. Era berean, ikuspuntu psikologikotik begiratuta, nortasun autoritario baten ezaugarriak haren ideia sexistak eta gobernatzeko hauteskunde libre eta demokratikoetan oinarritutako sistema politiko edo sozialak gutxiesteko joera dira.

Autoritarismoa ikuspuntu eta eremu oso desberdinetatik ikertu da: ikuspegi politikotik (erregimen politiko autoritarioak aztertuz), ikuspegi soziologikotik (aldagai modura klasea, gizarte-antolaketa, etnizitatea, herriko/hiriko gizarte-esparrua, erlijioa eta abar hartuta), gorago esan den moduan, ikuspegi psikologikotik, (autoritarismoa nortasunaren aldagai modura aztertuz) eta abar.

Fundamentalismoaren fenomenoari dagokionez, zenbait egilek esan dute autoritarismorekin zerikusia duela. Horrela, Streib-ek (2001) (Swanson-ek (2005) bere aipamena egiten zuen) dio fundamentalismo terminoak esan nahi duela «errebibalismoa edo atzerakada, eta hitz hori honako ezaugarri hauek [...] biltzen dituen erlijio-adierazpenei aplikatzen zaiela: obedientzia autoritarioa, aurreikuspen instrumental-erreziprokoa (do-ut-des) eta esperientzien eta sinboloen hitzez hitzeko interpretazioa».

Horrela, autoritarismoak kontzeptu modura fundamentalismoaren fenomenoa aztertzeko eta ikertzeko ikuspegia ematen du. Premisa horrekin, Altemeyer-rek eta Hunsberger-rek (1992) bi jarrera horiek aztertuz honako ondorio hau atera zuten: erlijio-fundamentalismoaren eta autoritarismoaren artean lotura estua zegoela.

Galdeketan, aldagai hori honako item hauen bidez neurtu da:

| «Autoritarismoa» aldagaia neurtzen duten zazpi itemak |
|---|
| 5. Erlijio-sinismenei modu erradikalean eustea sinismen horiek zabaltzeko beste modu bat besterik ez da. |
| 13. Talde batek hartutako erabakien garrantzia balioetsi behar da, prozesu horretan zeintzuk parte hartu duten (gizonezkoak edo emakumezkoak) kontuan izan gabe. |
| 18. Hauteskunde libre eta zuzenak benetan eraginkorrak eta erabilgarriak dira gizartean aldaketa positiboak sortzeko. |
| 22. Batez ere erlijio-gaietan nik bezala pentsatzen ez duten batzuekin, hobe da zorrotza eta gogorra izatea. |
| 25. Ekialdearen eta mendebaldearen arteko desberdintasun kulturalak txokea baino gehiago aberastasuna ekar dezakete, batez ere ekialdeak pairatzen duen bidegabekeriarekin amaitzen bada. |
| 29. Jendeak ez badu onartzen erlijiosoa izatea, erlijioa indarrez ezartzeko eginkizuna dute fededunek. |
| 31. Pertsona bakoitzak bere bizitza-estiloa eramateko eta bere sinismenak izateko eskubidea du, besteen bizitza-estiloa eta sinismenekin alderatuta ezberdinak badira ere. |

# 5 Landa lana eta datuen azterketa

## 5.1. Landa-lana

Fundamentalismo-maila neurtzeko tresna diseinatu eta itzuli ondoren, EAEn bizi diren musulmanen taldearen lagin adierazgarria osatzen duten pertsonei banatu zaio.

Islam uniforme eta bakarraren ohiko irudiarekin kontraesanean, euskal gizartean txertatutako komunitate musulmana nahiko elementu eta joera heterogeneoz osatuta dago. Eta ez soilik hitzaren zentzu etniko eta kulturalean baita, erlijioaren ikuskeran eta erlijioak gizartean duen zeregina ulertzeko moduan ere. Musulman gehienek beren erlijioarekin identifikatzen badira ere, komunitate horretako kide guztiek ez dituzte berdin betetzen errituak eta erlijio-praktikak. Nabarmentzekoa da gainera, herrialde musulmanetatik etorritako etorkin batzuk beren herrialdeko erreferentzia erlijiosoetatik aldentzen direla eta termino nolabait, laikoagotan edo sekularragotan definitzen direla. Horrela, gainerako etorkinen moduan (beren kulturaren eta historiaren elementu nagusienak mantentzeko eta adierazteko talde eta elkarteetan antolatzen dira)[14], euskal gizartean bizi eta antolatu den kolektibo musulmanaren komunitate-konfigurazioak hainbat talde ordezkatzen ditu, besteak beste, soilik kultura-jarduerak eta nahiko jarduera laikoak eskaintzen dituztenak. Horren adibide on bat Eus-

---

[14] Migrazio-proiektuaren helburuak betetzeko baliabide gisa, Txinako komunitatea, esate baterako, sukaldaritza-establezimenduetan edota merkataritza-saltokietan antolatu ohi da. Pakistandarrei dagokienez, aitzitik, gehienak kebab jatetxeetan antolatzen dira, eta neurri txikiagoan, telefonotegietan edota jangai-dendetan. Latinoamerikarren (bereziki, kolonbiarrak eta ekuadortarrak) komunitatearekin ere gauza berbera gertatu ohi da, hots, normalean telefonotegietan edo beren herrialdeko elikagai-produktu tipikoen saltokietan ezartzen dira, eta neurri txikiagoan, dantza-aretoetan eta musika-lokaletan. Magrebtarren kasuan, eta zehazki, marokoarren eta algeriarren kasuan (izan ere, horiek dira ugarienak euskal gizartean bizi den komunitate musulmanaren barruan), azkenik, ohikoa da jarraibide desberdin horiei jarraitzea eta beste kolektiboen egokitze-estrategia oso antzekoak erabiltzea, baina auzoetako otoiztegi edo meskitetan ere antolatu ohi dira, berezko gurtza-toki horiek otoitz egiteko egokienak baitira ikuspegi espiritualetik.

kal Arabiar Libiar Kultur Etxea Elkargunea da. Bizkaian sortu zen 2001ean eta libiar komunitateko ordezkariek sortu zuten, elkarrekiko ezagutza eta kultura guztien arteko elkartzea sustatzeko. Eratze-estatutuetan kultura-erakunde «akonfesional» eta «apolitiko» modura definitzen da Elkargune hori. Beste adibide bat AZRAF Euskadiko Marokoar Etorkinen Elkartea da. Elkarte hori Rif-eko jatorrizko etorkin marokoar talde batek sortu zuen eta *amazigh* kultura eta hizkuntzaren aldeko nortasunaren aldarrikatzeaz gain, kanpoalderako, termino laikoetan aurkezten da, inongo erlijiozko kidetzapenik gabe.

Horrela, gaur egungo euskal gizarteari dagokionez esan daiteke gizarte horretan bizi diren musulmanak honako lau kategoria edo tipologia hauetan bil daitezkeela:

a) *Musulman fededun eta praktikatzaileak*

- Kasu horretan *Taqlid*-eko erlijiotasunaz ari gara, «imitaziokoa». Hau da, beren jatorrizko gizartean gehien praktikatzen den erlijiotasun mota eta haren edukia imitatzen dute, aurkezten zaizkien informazioa eta interpretazioak egiaztatu edo aztertu gabe, zalantza askorik gabe. Ahozko tradizioan oinarritutako Islam herritarra da.
- Musulman horiek Islamaren erlijio-erritu denak eta beti betetzeaz arduratzen dira, bereziki, otoitza, baraualdia eta janariari dagozkion aginduak.
- «Fededunen» eta «praktikatzaileen» profil hori aurkezten duten musulmanek sinismenetan eta testu erlijiosoetan oinarritutako bizitza-estiloa eramaten dute, horiek funtsezko erreferentziak direlako.

b) *Musulman fededunak baina ez-praktikatzaileak*

- Kulturalki mundu islamikoko kideak diren eta mundu horrekin identifikatzen diren musulman etorkinak biltzen dira kategoria horretan.
- Baina eguneroko bizitzan Islamean ezarritako erlijio-aginduak aldizka edo oso gutxitan betetzen dituzte.
- Alabaina, praktiketan duten behin-behinekotasun hori ez da gertatzen Islamak ezartzen dituen janariei buruzko aginduei eta Ramadanaren baraualdi-hilabeteari dagokionez. Profil hori duten musulmanek

agindu horiek errespetatzen dituzte, oinarri erlijiosoaz gain dimentsio kultural eta sozial nabarmena ere badutelako.

- Bestalde, jarrerak justifikatzerakoan ez dute testu erlijiosoetara hainbeste jotzen eta azalpen soziologikoak edo psikologikoak erabiltzen dituzte.

c) *Islamera konbertitu berriak*

- Herrialde hartzailean sortutako musulmanak dira, dagokigun kasuan, bestelako kultura eta erlijio-sinismenak izanda Islamera konbertitu diren euskaldunak. Musulman berri horien artean daude, Latinoamerikako kontinentetik etorrita, EAEn bizi diren etorkinak.
- Mendebaldeko Islama garatzen saiatzen dira, Islamaren eta mendebaldearen artean bateragarriak diren elementu batzuk daudela uste dutelako, esaterako sistema demokratikoa eta Estatuaren laikotasuna.
- Harro sentitzen dira beren nortasun berriarekin. Oro har, komunitate musulmanaren barruan eta harrera-gizartearen aurrean zeregin aktiboagoa lortzea espero dute. Arrazen arteko berdintasuneko printzipio islamikoan oinarrituta, Islama elementu arabiarrarekin ez lotzearen garrantzia azpimarratzen dute, hain zuzen ere Islama, esan dutenez, edonork edonon bere gain har dezakeen ideia delako.

d) *Musulman laikoak*

- Herrialde musulmanetatik datozenak baina Islamaren ikuskera laikoa dutenak.
- Arlo profanoaren eta arlo jainkotiarraren arteko banaketaren alde daude.
- Preskripzio eta agindu erlijiosoei ez diote garrantzi handirik ematen.

Islamari dagokionez helmugako herrialdean azaleratzen den aniztasunean Tarrések (2002) argi adierazi zuen moduan honako hauek eragiten dute: «elkarri lotutako faktore askok; batzuk, jatorrian definitzen dira eta batzuk beren migrazio-proiektuaren izaerak definitzen ditu, proiektu hori gauzatzeko baldintza objektiboak, etorkinak sortzen dituzten gizarte-harremanak eta azkenik, harrerako gizartean aurkitzen duten azpiegitura erlijiosoak».

Ikerketa honen helburua honako hau da: ezagutzea euskal gizartean bizi diren komunitate musulmaneko kideek dituzten kontzeptu erlijiosoak zenbateko neurrian duten zerikusia ideologia fundamentalistarekin; helburu hori lortzeko kontuan hartu dugu parte-hartzaileen erlijio-profila funtsezko irizpidea izan behar duela fundamentalismo erlijiosoaren maila neurtuko duen gure galdeketa erantzungo duten hautagaiak aukeratzeko. Horrela, fededun modura eta beren burua fede horren liturgia-errituen praktikatzaile modura identifikatzen diren komunitate musulmaneko kideetara mugatu dugu gure ikerketa-unibertsoa. Musulman horiek Islamaren zutabeak uneoro beteaz adierazten eta kanporatzen dute erlijiotasuna. Hori guztia dela-eta, uste dugu ondoren azaltzen ditugun komunitate musulmaneko kideek eta horiek jarduteko eremua aurretik egindako kontsiderazioetara egokitu daitekeela:

*a)* EAEko hiru Lurralde Historikoetako auzoetan kokatutako otoizleku eta meskitetako imanak.

*b)* Etika eta erlijio-ikuspegi islamikoan oinarrituta garatzen diren jarduera kulturalak gauzatzen dituzten elkarteetako ordezkariak.

*c)* Musulman fededun modura definitzen diren komunitate islamikoko kideak, erlijio musulmanak ezartzen dituen erritu-otoitzak betetzeko meskitetara sarri joaten direnak.

Dagokigun azterketa enpirikoaren bidez gai zehatzei eta aurrez ezarritakoei buruz parte hartzaileek emandako erantzunak aztertu nahi zirenez, elkarrizketa egituratuetan oinarritutako metodologia kualitatiboa garatu dugu. Gainera, aintzat hartu ditugu honako aldagai soziologiko hauek: «jatorrizko herrialdea», «adina», «sexua», «lortutako ikasketa-maila», «helmugako herrialdean bizitako denbora», «erlijiotasun-maila» eta azkenik, «elkarte erlijiosoko kide izatea».

Zehazki, banakako 121 elkarrizketa egin dira EAEn bizi den komunitate musulmaneko kideekin, lagina hautatzeko finkatu diren irizpideak betetzen dituztenak. Hautatutako pertsona bakoitzari gure galdeketaren kopia berdina aplikatu zitzaion fundamentalismo-maila neurtzeko eta arabiarrez egindako tresnaren bertsioa edo itzulpena izan da aukeratuena eta erantzunena. Elkarrizketen % 95 (azterlanaren ikertzaileak banatu zituen) Euskadiko hiru Lurralde Historikoetan kokatutako meskita eta otoizlekuetan egin ziren. Aldiz, elkarrizketen gainerako % 5ak parte-hartzaileen etxeetan egin ziren. Prozedura ho-

nako hau izan zen: aldez aurretik telefonoz zentro horietako ordezkariekin eta imanekin harremanetan jarri eta ikerketaren edukiaren eta helburuen berri eman ondoren, landa-lana beren ardurapean dauden meskitetan egiteko baimena eskatzen zitzaien, elkartzea etxean egitea aukeratzen zuten pertsonen kasuan izan ezik. Gurtza-zentroen kasuan, galdeketak banatzeko eta betetzeko ostirala aukeratu zen, egun horretan debotu musulman gehiago bertaratzen direlako meskitara, imanaren *jutba* (sermoi aholku emailea eta gidatzailea) entzuteaz gain, ostiraleko komunitatearen erritu-otoitza egiteko. Prozedura horrek ahalbidetu digu ikerketaren garapenerako behar ziren ezaugarriekin bat zetorren lagina lortzea eta aldi berean, lagin heterogeneoa lortzea, parte-hartzaileek zituzten berezitasunek agerian uzten zutelako jatorriari, kultura-mailari eta adinei dagokienez zegoen aniztasuna. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da elkarrizketatuen lankidetza eta harrera oso positiboa izan zela, uneoro parte hartzeko eta emaitzak ezagutzeko interesa agertu baitzuten.

121 parte-hartzailetako bederatzi Euskadin dauden hainbat meskitatako imanak ziren. Era berean, bederatzi imanetako bi al-Azharreko unibertsitatean graduatutako teologoak ziren. Unibertsitate hori erlijio islamiar sunita irakasten duen munduko zentro handiena eta ospetsuenetakoa da, Egipton kokatuta dago eta X. mendetik gaurko egunera arte ikasketa erlijiosoak eta sekularrak etengabe eskaintzeagatik munduko unibertsitaterik zaharrena dela onartzen da.

Era berean, lagina osatzen zuten lagun-multzoan, 23 parte-hartzaile Euskadin irekitako meskita desberdinei loturiko elkarteen arduradunak ziren. Elkarte horiek garatzen dituzten beharrak eta jarduerak antolatu eta kudeatzen dituen elkarteen lidergoa osatzen duten komunitate musulmaneko zuzendari-batzordeen kideak eta ordezkariak dira. Horrela, komunitatearen eginkizunean konprometitutako eta murgildutako buruzagi erlijiosoez osatutako elkarrizketatuen multzo bat da, betiere ikuspegi islamikotik honako hauek antolatzeko parte hartzen dutenak: kultura-jarduerak, ospakizun eta jai erlijiosoak (horretarako tokiko erakunde publiko desberdinetan baliozko solaskideak izanik), erlijioen edo kulturen arteko elkarrizketa-mahaiak, irteerak eta abar.

Zentzu horretan, hainbat ikertzaileren eskutik baliozko eta ukaezinezko informazioa aurki daiteke euskal gizartean nahiz Espainiako beste eskualdetan bizi den komunitatearen kultura- eta erlijio-jarduerei eta haren aurreikuspenei buruz. Adibide modura aipa ditzakegu Lacombak 2001ean, Martinek

2003an, Fuentesek eta Vicentek 2007an eta Etxeberriak, Setienek eta Vicentek 2008an egindako azterlanak. Lau ikerlanak komunitate musulmanari buruz garatu ziren, zehazki Magrebeko komunitateari buruz eta komunitate horrek Bartzelonan, Madrilen eta azken bi azterlanen kasuan, Euskadin izandako integrazio-prozesuari buruz. Fuentes eta Vicenteren (2007) azterlanean Magrebeko biztanleria musulmanarekiko (euskal gizartean bizi den etorkinen kolektiborik nagusiena) hurbilketa-saiakera egiten da eta «magrebtarren ikuspuntutik sakontasunez ezagutu Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi den magrebtar biztanleria osatzen duten lagunen egoera eta aurreikuspenak, batez ere, bizitza kultural propioa izateko eskubidea, erlijio propioa aitortzeko eta praktikatzekoa, hizkuntza propioa erabiltzekoa eta euskal errealitatea osatzen duten eremu pribatu eta publiko desberdinetan parte hartzekoa».

Gorago aipatutako lau azterlanetan —elkarrizketa sakon eta erdiegituratuetan oinarritutako metodologiaren bidez egindakoetan— aurkeztutako informaziotik abiatuta, ondorioztа daiteke musulmanen integrazioa eta aurreikuspenak oso estuki loturik daudela bizitza-estilo propioa eta haien erlijioaren printzipioekin —batez ere harrerako gizartearen printzipioekin bateragarriak direnekin eta bizikidetza hoberena garatzeko eragozpenik jartzen ez dutenekin— bat datorrena izateko eskubideari dagozkion zenbait aldarrikapen komunitarioekin.

Etorkin musulmanen elkarteek garatzen dituzten kultura- eta erlijio-jardueren bidez alde batetik, euskal gizartean ezezagunak diren haien kulturako alderdi ezberdinak sustatzea lortu nahi da eta bestetik, azken 10 urteetan asko hazi den kolektibo horren komunitateko behar eta aldarrikapen zehatzei erantzuna ematea. Horrela, elementu erlijiosoarekin zerikusia duten musulmanen eskaerak eta erreklamazioak komunitate musulmaneko kide kopurua handitu izanari eta euskal gizarteari egokitzeko beharrari emandako erantzun zuzena dira. Komunitatea hazi den proportzioan hazi dira hezkuntzarako beharrak nahiz behar kulturalak: meskitak, ama hizkuntzaren ikasketa, jateko ohitura islamiarrak errespetatuz egindako menuak eskatzea erakundeei, erritu musulmanaren araberako ehorzketa egiteko hilerriak eta abar.

Kasu horretan, esan daiteke gizarte tolerante bat gizarte hori osatzen duten gutxiengoen behar ezberdinak —aurretik aipatutakoen modukoak— kon-

tuan hartu eta errespetatzen dituena dela, behar horiek betetzeko gune propioak izateko eskubidea bermatuz. Horrela, gutxiengo musulmanak Europako gizartean txertatzea egiazko azterketa da demokrazia, pluralismoa eta zuzenbidezko estatuaren teoriarentzat eta haren sinesgarritasunarentzat, kanporantz funtzionatzeko gaitasuna frogatuko baitu (barruan dirudienez funtzionatzen du).

Aurretik adierazi den moduan, informazioa biltzeko elkarrizketak euskal geografia osoan banatutako komunitate musulmaneko otoizlekutan egin ziren kasu gehienetan. Gurtza-zentro horiek honako udalerri hauetan kokaturik daude:

- Araba: Gasteizko hiriaren erdialdeko hiru meskitetan.
- Gipuzkoa: Donostiako hirian (elkarrizketatu baten etxean), Errenteriako meskitan, Irungo meskitan eta Eibarko meskitan.
- Bizkaian: Bilbo, Barakaldo, Matiena eta Ermuan kokatutako meskita eta otoitz-aretoetan.

## 5.2. Aldagai soziologikoak

Jarrera fundamentalistei zegozkien erantzunak jaso eta aztertzeaz gain zenbait aldagai soziologikori buruzko datuak bildu ditugu, esanahi garrantzitsuak izan ditzaketela uste dugulako. 5. kapituluan, ondoren azaltzen diren honako aldagai soziologiko hauei buruzko azterlan enpirikoaren emaitza garrantzitsuenak azaldu nahi izan ditugu: jatorrizko herrialdea, adina, sexua, lortutako ikasketa-maila, helmugako herrialdean bizitzen daraman denbora, erlijiotasun-maila eta azkenik, elkarte erlijiosoetan parte hartzea.

Ondoren azalduko ditugun datuak aurkezterakoan, azterlanaren deskribapen-azterketako zenbakiak eta ehunekoak borobildu egin ditugu, zifrak irakurtzerakoan ematen diren nahasketak saihesteko baina tauletan, aldiz, datu originalak aurkeztu dira. Horrelako azterlanetan ohikoa den prozedura horren bidez datuen azterketan zifrak hamartarrik gabe azaldu dira; izan ere uste dugu emaitzak modu fidagarrian irudikatu daitezkeela hamartarrik gabe.

### 5.2.1. Jatorrizko herrialdea

**1. taula:** Laginaren banaketa, elkarrizketatuen jatorrizko herrialdearen arabera

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Afrika iparraldeko herrialdeak (al-Magreb) | 80 | 66,1 | 66,1 | 66,1 |
| Afrikako herrialdeak | 19 | 15,7 | 15,7 | 81,8 |
| Ekialde Hurbila | 10 | 8,3 | 8,3 | 90,1 |
| Islamera konbertitutako euskaldunak | 10 | 8,3 | 8,3 | 98,3 |
| Latinoamerikako herrialdeak | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Afrika iparraldeko herrialdeko musulmanak (80 elkarrizketa). Elkarrizketatutako guztien % 66 dira; izan ere Euskadin bizi diren musulmanen beste kolektibo batzuekin alderatuz Afrika iparraldeko herrialdetako etorkin-populazioaren kideak dira ugarienak. Parte-hartzaileen jatorrizko herrialdeak honako hauek dira: Maroko, mendebaldeko Sahara, Algeria, Tunis eta Libia.

- Afrikako herrialdetako musulmanak (19 elkarrizketa). Azterlanean parte hartu zutenak Maliko, Sudango (herrialde arabiarra, liga arabiarraren partaide delako) eta Senegalgo musulman atzerritarrak izan ziren.

- Ekialde Hurbileko herrialdetako musulmanak (10 elkarrizketa). Kolektibo hori ez da oso ugaria baina euskal gizartean esanahi handiko presentzia eta sustraitutako historia izan du; izan ere etorkin musulmanen komunitate zaharrenetarikoa da. Komunitate horretan Ekialde Hurbileko arabiar kristau ugari biltzen dira. Kolektibo horretako kideak ikasketak egitera etorri ziren Euskadira, gehien bat Bizkaira. Immigrazio hori erabat akademikotzat har dezakegu. Etorkin horiek 70. hamarkadan heldu ziren euskal unibertsitateetan unibertsitateko ikasketak egiteko eta batez ere honako bi karrera hauek egiten zituzten: Euskal Herriko Unibertsitatean, medikuntza eta Portugaleteko Nautikako Goi Eskola Teknikoan (EHUren menpekoa), nautika. Lehen immigrazio arabiar edo musulman ugari horren adibidea kontuan hartzeko modukoa da; izan ere, ezbairik gabe, integrazioko eta bizikidetzako esperientzia modura balioetsi da, kolektibo musulmanaren eta gizarte hartzailearen —kasu honetan, euskaldunaren— arteko elkarrizketa eta elkar ulertzea posible dela

zalantzan jartzen dituzten berbaldi guztiak ezeztatzen dituena. Komenigarria eta probetxugarria izango litzateke gizarte-zientzien ikertzaileek kolektibo horren ibilbidean eta Euskadin izandako esperientzian arreta jartzea, bizikidetza-esperientzia horren arrakasta ahalbidetu edo sustatu duten gakoak eta testuinguruak ikertzeko. Zentzu horretan, kontuan hartzea merezi duen beste integrazio ezin hobeko adibide bat aipa daiteke, nahiz eta oraingoan adibidea ez dagokion Ekialde Hurbileko komunitate arabiarrari Eibarren bizi den Magrebeko biztanleriari baizik. Euskadin dauden Magrebeko kolektiboen artean urte gehien daramatzanetako bat da kolektibo hori (ordezkariek diote, gehienak 70 urtetik gorakoak, laurogeiko hamarkadaren hasieran Eibarren inauguratu zuten meskita iparralde osoan musulmanek egindako lehen otoizlekua izan zela eta oso harro daude aurreratu zirelako). Edozein kasutan ere, azterlan honetan galdeketaren itemak erantzunez parte hartu duten Ekialde Hurbileko eskualdeko musulmanak honako herrialde hauetakoak dira: Siria, Palestina, Jordania, Egipto eta Libano.

- Jatorriz Euskadikoak diren musulmanak. Islamera konbertitutakoak (10 elkarrizketa).

- Latinoamerikako herrialdetako musulmanak (bi elkarrizketa). Azken urteetan erlijio musulmanera konbertitutako Argentina eta Boliviako etorkinak dira.

### 5.2.2. Adina

**2. taula:** Parte-hartzaileen adinaren araberako lagin-banaketa

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| 18-25 adin-tartea | 19 | 15,7 | 15,7 | 15,7 |
| 26-30 adin-tartea | 33 | 27,3 | 27,3 | 43,0 |
| 31-35 adin-tartea | 23 | 19,0 | 19,0 | 62,0 |
| 36-40 adin-tartea | 14 | 11,6 | 11,6 | 73,6 |
| 41-50 adin-tartea | 17 | 14,0 | 14,0 | 87,6 |
| 50 urtetik gora | 15 | 12,4 | 12,4 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Elkarrizketatuen gehiengoa 26-30 adin-tartean kokatuta dago (% 27,3). Hurbil geratzen dira 31-35 adin-tartean kokatutakoak. Bi adin-tarte horietan kokatutako elkarrizketatuak elkarrizketatu guztien ia erdia dira. Beste erdia honako hauei dagokie: 18-25 adin-tarteari (% 15); 36-40 adin-tarteari (% 11); 41-50 adin-tarteari (% 14); eta azkenik, 50 urtetik gora dituzten elkarrizketatutako musulmanei (% 12).

- Parte-hartzaile gazteez osatutako lagina da, EAEn bizi den komunitate musulmanaren —gehien bat, jende helduez osatutakoaren— kideak ordezkatzen dituena.

### 5.2.3. Sexua

**3. taula:** Sexuaren araberako lagin-banaketa

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Emakumea | 18 | 14,9 | 14,9 | 14,9 |
| Gizona | 103 | 85,1 | 85,1 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Elkarrizketatuen % 85 erlijio musulmana duten gizonak dira eta gainerako ia % 15, emakume musulmanak.

- Emakumeak kolektibo musulmanean duen ordezkaritza anitza da. EINaren eta Ikuspegiren azken datuen arabera zenbait kolektibo musulmanetan, Araban bizi diren pakistandarrenean adibidez, emakumearen presentzia oso txikia da, biztanleriaren % 6,9ra justu iristen da; Bizkaiko kolektibo senegaldarrean aldiz, guztizkoaren % 9,3 emakumeak dira. Alabaina, kolektibo magrebtarrean emakume gehiago dago, esaterako Araban bizi den komunitate aljeriarrean % 36,2 emakumeak dira, Gipuzkoan erroldatutako aljeriarren % 24,3 eta Bizkaian bizi diren marokoarren % 27,9.

- Azken urteetan emakume etorkin musulmanen kopurua hazi bada ere, egia da euskal gizartean bizi diren komunitate musulmanetan gizonen ordezkaritza emakumeena baino bi aldiz handiagoa dela.

### 5.2.4. Euskadiko bizilekua

**4. taula:** Elkarrizketatuak bizi diren probintziaren araberako lagin-banaketa

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Araba | 40 | 33,1 | 33,1 | 33,1 |
| Gipuzkoa | 20 | 16,5 | 16,5 | 49,6 |
| Bizkaia | 61 | 50,4 | 50,4 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Taulan ikus daitekeen moduan, elkarrizketatu musulman gehienak (zehazki, % 50) Bizkaian bizi dira. Bigarren tokian kokatzen dira Arabakoak, 40 elkarrizketa eta % 33ko ordezkaritza izanik. Azkenik, Gipuzkoan bizi diren musulmanekin 20 elkarrizketa egin dira, aztertutako populazio osoaren % 16ko ordezkaritza.

### 5.2.5. Gainditutako ikasketak

**5. taula:** Elkarrizketatuak gainditutako ikasketen araberako lagin-banaketa

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Batxilergoa baino gutxiago | 27 | 22,3 | 22,3 | 22,3 |
| Batxilergoa | 38 | 31,4 | 31,4 | 53,7 |
| Diplomatura | 24 | 19,8 | 19,8 | 73,6 |
| Unibertsitateko titulua | 32 | 26,4 | 26,4 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Taula horretan lagina osatzen dutenen hezkuntza-maila azaltzen da. Elkarrizketatuen % 22,3k adierazi zuten ez zutela inongo titulazio akademikorik. Gehiengoak, % 31,4k, adierazi zuen jatorrizko herrialdean gainditutako batxilergoa zuela. Ehuneko handi batek, zehazki % 26,4k unibertsitate-titulazioa zuen eta gainerakoak, % 19,8k, diplomatura.

### 5.2.6. Euskadin bizitzen daramaten denbora

**6. taula:** Euskadin bizitzen daramaten denboraren araberako lagin-banaketa

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Urtebete baino gutxiago | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Urtebete | 7 | 5,8 | 5,8 | 7,4 |
| Bi urte | 10 | 8,3 | 8,3 | 15,7 |
| Hiru urte | 20 | 16,5 | 16,5 | 32,2 |
| Lau urte | 14 | 11,6 | 11,6 | 43,8 |
| Bost urte | 9 | 7,4 | 7,4 | 51,2 |
| Bost urte baino gehiago | 49 | 40,5 | 40,5 | 91,7 |
| Hemen jaiotakoa baina | 0 | 0 | 0 | 0 |
| atzerritar jatorrikoa | 10 | 8,3 | 8,3 | 100,0 |
| Bertakoa | | | | |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Elkarrizketatuen ia erdiek bost urte baino gehiago daramate Euskadin bizitzen, zehazki % 51,2k.
- Elkarrizketatuen % 43,8k lau urte baino gutxiago daramatza Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan bizitzen.
- Elkarrizketatutako % 8,3tik gora dira Islamera konbertitutako bertakoak. Guztira, emakumeak eta gizonak batuta, 10 parte-hartzaile.

### 5.2.7. Erlijiotasun-maila

**7. taula:** Erlijiotasun-maila eta erlijio-praktikaren mailaren araberako lagin-banaketa

| | Kop. | % | Bal. % | Metat. % |
|---|---|---|---|---|
| Fededuna eta egunero praktikatzen duena | 116 | 95,9 | 95,9 | 95,9 |
| Fededuna eta astean egunen bat praktikatzen duena | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Fededuna eta soilik egun berezietan praktikatzen duena | 4 | 3,3 | 3,3 | 99,2 |
| Fededuna baina ez-praktikatzailea | 1 | 0,8 | 0,8 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 7. taularen arabera ikus daitekeenez, komunitate musulmanaren otoizlekuetan izandako elkarrizketetan parte hartu zuten parte-hartzaile ia guz-

tiek, hots, % 95etik gora, fededun eta eguneroko praktikatzaileak zirela esan zuten. Elkarrizketatuetako soilik lau lagunek adierazi zuten noizean behin eta egun berezietan soilik praktikatzen zituztela erlijio-errituak: Ramadaneko hilabetean barauldia egin, eta batzuetan ostiraletako otoitzetara eta *Eid al-Fitr* edo *Eid al-Adha* deitutako festetara —urtean behin ospatzen direnetara— joan.

### 5.2.8. Jarduerak eta erlijio-erakundeetako kide izatea

**8. taula:** Erlijio-erakundeetako kide izatearen araberako lagin-banaketa

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Bai | 50 | 41,3 | 41,3 | 43,0 |
| Ez | 69 | 57,0 | 57,0 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Elkarrizketatuen % 41 meskiten edo erlijio-erakunde modura erregistratutako elkarteen arduradunak ziren. Horien artean, aukeratutako laginean hainbat otoizleku musulmanetako bederatzi iman zeuden eta beste 23 lagun, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoetan kokatutako erlijio-elkarteetako zuzendariak, arduradunak eta aktibistak ziren.
- Bestalde, gainerako elkarrizketatuek, (% 57), ez zuten kargurik edo eginkizunik erakunde horietan eta musulman fededunak zirela zioten, eta ahal zutenetan, meskitetara joaten zirela otoitz egiteko eta komunitateko jendearekin topatzeko.

## 5.3. «Fundamentalismoa neurtzeko galdeketari» elkarrizketatuek emandako erantzunen azterketa eta eztabaida

Europara emigratzen duen musulmanak, bere nortasun kulturala eta erlijiosoa berreraikitzeko prozesu bat igaro behar izaten du, zuzenean edo zeharka. Alabaina, etorkin musulmanek desberdintasuna onartzeak eta Europako gizartean

ezarritako legediei eta legeei egokitzeak ez dakar derrigorrez haien fedearen funtsezko oinarriei uko egitea; izan ere etorkin musulmanek diote printzipio horiek Europako sistema laikoaren —erlijio-aniztasunarekin, gizarte-berdintasunarekin eta tolerantziarekin konprometitutakoaren— balioekin bateragarriak direla eta gainera printzipio horiekin estuki identifikaturik eta loturik daudela. Horri dagokionez, ikus daiteke Euskadin bizi diren eta erlijio musulmana aitortzen duten pertsonek, haien sinismen-sistemarekin eta balioekin bat egiten duten edo haiekin uztar daitezkeen elementuak hartzen dituztela Europako gizartetik: printzipio demokratikoak barneratzen ditu, pluralismoaren eta tolerantziaren alde egiten dute eta nahiz eta herrialde hartzailearen gizarteko ezaugarri denekin ez identifikatu, ezaugarri positiboak ikusi eta igartzen ditu, eta abar. Azken batean, elementu horiek dira afinitate ezberdineko kideen arteko bizikidetza eta errespetu ezin hobea lortzeko ezinbesteko elementuak.

Zentzu horretan, Tibi maisuak (2003) berak laurogeita hamargarren hamarkadan garatu zuen eta «euro-islama» izena jarri zion kontzeptu bati buruz hitz egiten du. Ideia horrek «Islamaren barietate liberala eskaini nahi du —egileak dioenez— etorkin musulmanentzat nahiz Europako gizarteentzat onargarria, demokrazia moderno bati dagozkion laizismoko eta banakako hiritartasuneko ideietara egokitzen delako». Tibi maisuak dio eredu hori posiblea dela eta Erdi Aroko pentsalari musulmanak hartzen ditu elkarrizketaren eta tolerantziaren adibide modura; izan ere, pentsalari haiek bazekiten nola konbinatu «zailtasunik gabe euren pentsamoldea eta nortasun islamikoa Aristotelesen metodo eta espirituarekin eta Aristotelesi *muallim al-awwal* izaera (lehen maisua) ere eman zioten», al-Farabiren —Islamaren filosoforik handienaren— aurretik.

Azterlan horren funtsezko hipotesiak honako oinarria hau du: aukeratutako laginean aurki daitezkeen jarrerak eta osagai erlijiosoak aztertu ondoren, euskal gizartean bizi den komunitate musulmanaren nortasun-aldarrikapenek ez dutela biltzen ez erlijio-fundamentalismorik, ez sektarismorik ezta isolatzeko eta gizarte hartzailearekiko banatzeko joerarik. Musulmanen kasuan, erlijioak ez die immigratzera bultzatzen baina migrazio-prozesuaren gorabeherak jasaten eta arintzen laguntzen die. Gainera, musulmanek uste dute haien kulturan eta gizarte hartzailearen kulturan balio erkideak daudela eta horrek lankidetza ahalbidetu eta elkar ulertzea eta bizikidetza erraztu egiten duela.

Ondoren, fundamentalismo-maila neurtzeko diseinaturiko galdeketako galderei parte-hartzaileek emandako erantzunak aurkeztuko ditugu. Erantzunen maiztasuna eta haien azterketa bost zatitan banatuko dugu. Bost zati horiek jarrera fundamentalistekin zerikusia zutelako garrantzitsutzat hartutako bost aldagaiak dira:

1. barne- eta kanpo- autokritika,
2. isolamendua,
3. erlijio-tolerantzia,
4. moderazioa, eta
5. autoritarismoa.

### 5.3.1. Barne- eta kanpo-autokritika neurtzen duten galdeketako zazpi galderak eta elkarrizketatuen erantzunak

**9 taula:** 3. Zientziak eta pentsamenduak gizartean duten zeregina sustatu behar du erlijioak

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 86 | 71,1 | 71,1 | 71,1 |
| Neurri batean ados | 8 | 6,6 | 6,6 | 77,7 |
| Ados | 27 | 22,3 | 22,3 | 100,0 |
| Desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Zientzia garatzea eta pentsamendua askatasunez gauzatzea gizarteen modernizatze-prozesuen oinarria dira. Dirudienez, bi elementu horien aurkako jarrerak adierazten dituzten pertsonek fundamentalistak izateko joera dute. Izan ere, dagokigun ikerketaren gaiari buruzko azterlan gehienak diote erlijio-fundamentalismoko mugimenduak kategorikoki antimodernistak direla eta erlijiora itzultzeko joeraren fenomenoa azken mendean mendebaldeak eta nolabait, beste kulturek (besteak beste, mundu islamikoak) izan zuten Ilustraziotik jaiotako joera aurrerakoien aurkako erreakzioa besterik ez dela. Horrela, item horren edukiari

ezezko erantzuna emateak fundamentalistatzat har litekeen jarrerari erantzuten dio.

- Zenbait egilek diote azken hamarkadetan eman den pentsamendu erlijioso literalista islamikoaren azaleratzeak zientzia suntsiarazi dutela baita herri musulmanetako zientifikoen jarduerak gutxitu ere. Alabaina, Pouris-ek (2007) zortzi herrialde islamikoen (Egipto, Tunis, Indonesia, Iran, Jordania, Malasia, Maroko eta Pakistan) garapen zientifikoan fundamentalismoak izandako eraginari buruzko artikuluan dio erlijio-mugimenduak ugaritu direla baina hala ere herrialde horietan laurogeita hamarreko hamarkadan zientzia gero eta gehiago hobetu eta aurreratu dela. Pourisek ateratako ondorioak zortzi herrialde musulman horien sistema eta ekoizpen zientifikoak aztertu zituen landa-azterketa bikain batean oinarrituta daude.

- Edozein kasutan ere, EAEn bizi den kolektibo musulmanaren lagin batekin egindako gure fundamentalismoari buruzko ikerketatik ondoriozta daiteke, 9. taulan azaltzen diren erantzunen arabera, elkarrizketatu musulmanek honako ideia honen alde daudela: erlijio musulmanaren moduko erlijio batek ez diola zientziari edo pentsamenduari aurre egin behar edo zientifikoak gizartean gauzatzen dituzten jarduerak eragotzi behar, haien ikerkuntzak gizakiaren onura bilatzen dutelako. Aitzitik, Islamaren arabera pertsona batek ekoizpenerako gaitasuna baldin badu, zeregin horretan murgiltzeko betebehar moral eta erlijiosoa du jendearen onura bilatzeko. Sinismen hori justifikatzeko musulmanek, ia beti bezala, haien erlijioaren iturrietan oinarritzen dira. Adibidez, Muhammadek, Islamaren profetak, zientifikoek eta jakitunek gizartean hartzen duten garrantzia eta zeregina balioetsi zuen eta jakintza bilatzeko eta eskuratzeko gomendioa luzatu zion jendeari. Zientifikoak eta jakitunak ekintza onak egiten dituzten gizakien mailan kokatzerakoan, bigarren mailan kokatuko dira profeten azpitik, eta profetak, lehen mailan: «Zientifikoak profeten bidezko oinordekoak dira (*alúlamá warazatú il-anbiyaá*)», dio Muhammadek.

- Horrela, gure elkarrizketatuen erantzunak oso adierazgarriak izan ziren. 9. taulak erakusten digunez, elkarrizketatu guztiek, hots, % 100ek eta salbuespenik gabe, uste dute erlijioak ez duela zientziak eta pentsamenduak gizartean duen zeregina eragotzi behar.

**10 taula:** 6. Adierazpen-askatasuna denontzat bermatu behar da, nahiz eta batzuek gainerakoak kritikatzeko erabiltzen duten

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Erabat ados | 56 | 46,3 | 46,3 | 47,9 |
| Neurri batean ados | 25 | 20,7 | 20,7 | 68,6 |
| Ados | 34 | 28,1 | 28,1 | 96,7 |
| Desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 98,3 |
| Neurri batean desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Erabat desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Iritzi horrek adierazten du pertsona batek duen jarrera adierazpen-askatasunari dagokionez eta batez ere, besteen jarrerari, ekintzei eta obrei buruz iritzi kritikoak eratzeko jendeak duen eskubideari dagokionez. Item horri modu positiboan erantzuteak adierazten du elkarrizketatuak gauzak erlatibizatzeko gaitasuna duela eta besteek plantea ditzaketen kritiken aurrean malgutasunez jokatzeko gai dela.

- Zentzu horretan elkarrizketatuen gehiengo osoak —zehazki, % 96k— erantzun zuen planteamendu horrekin ados zegoela (10. taulan ondo ikusten da).

- Xehetasun azpimarragarria eta kontuan hartzekoa da ehuneko nahiko adierazgarri batek, % 20,7k, «neurri batean» ados zegoela erantzun izana. Askok, beraz, partzialtasun hori justifikatzeko zioten kritika onartuko dela besteak makurrarazteko, iraintzeko edo laidotzeko ez denean. Horrela, azpimarratzen zuten kritikak eraikitzeko egin behar direla eta ez epaitutako pertsonak zapuzteko. Era berean, argitzen zuten erlijioei buruz egindako kritikek espiritu eraikitzailea izan behar dutela eta adierazten zuten adierazpen-askatasunerako eskubidea ez litzatekeela neurrigabe erabili behar *Jayllands-Posten* egunkari daniarrak Islamaren profetaren irudiari buruz argitaratu zituen karikatura satiriko ospetsuen kasuan egin zen moduan, hau da, profeta hori barregarri utziz eta bineten bidez, indarkeriarekin eta terrorismoarekin erlazionatuz. Elkarrizketatu horientzat, adierazpen-askatasuna eta prentsa-askatasunaren eta difamazio eta libeloaren artean alde handia dago.

- Horrela, elkarrizketatuen % 3,4k soilik erantzun zuten item horren edukiarekin ez zeudela ados, besteen aurka zuzentzen den kritika gaitzesten baitzuten.

- 9. galdera hau aurrekoarekin oso erlazionatuta dago eta pertsonak bere eguneroko bizitzan kritika erabiltzea onartzeko duen gaitasuna neurtzen du; izan ere besteekiko harremanak —talde bateko kideen eta konfiantzazko autoritate-irudien artekoak— ondo funtzionatzeko oso elementu garrantzitsutzat hartzen da.

- Item horri baiezko erantzuna emateak obedientzia osoa aitortzen zaien autoritate-irudienganako miresmeneko eta baldintzarik gabeko gorespeneko jarrera adierazi dezake. Aldiz, galdera horrekin ados ez egoteak, hau da, kritikak egitea nahiz jasotzea onartzeak adierazten du elkarrizketatua pertsona gardena, zintzoa, eta besteen eta bere buruaren mugetaz jabetzen dena dela.

- Galdera horretan ere elkarrizketatuek azpimarratzen zuten kritika ez litzatekeela erabili behar besteei desohore edo iseka egiteko. Elkarrizketatuen iritziz pertsonek huts egin dezakete, baina pertsonarekiko errespetua funtsezkoa da.

**11. taula:** 9. Bere taldekideen kritika toleratzen duen taldeak ez du asko iraungo

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Erabat ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 5,0 |
| Neurri batean ados | 5 | 4,1 | 4,1 | 9,1 |
| Ados | 8 | 6,6 | 6,6 | 15,7 |
| Desados | 54 | 44,6 | 44,6 | 60,3 |
| Neurri batean desados | 10 | 8,3 | 8,3 | 68,6 |
| Erabat desados | 38 | 31,4 | 31,4 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 11. taulan argi ikus daitekeenez elkarrizketatuek azken iritzi honi buruz emandako erantzunaren eta aurreko iritziari buruzko erantzunaren arteko koherentzia dago. Horrela, elkarrizketatuen ia % 85ek dio pentsamendu kritikoa garrantzitsua dela.

- Aldiz, elkarrizketatu musulmanen % 14k zioen talde batek eraginkortasunez funtzionatzeko kritika ez zela beharrezkoa.

- Galdera horrek islatzen du pertsonen gaitasuna honako hau onartzeko: arrazoimena askatasunez gauzatzeko eta pentsamendu kritikoa erabiltzeko ez dagoela gai taburik. Horrela, erlijioari edo beste arlo bati dagokion edozein gai edo zalantza debekurik eta murrizketarik gabe planteatu eta aztertu behar da.
- Aurreko galderei emandako erantzunekin koherentzian elkarrizketatu musulmanen % 13,2k zioten «neurri batean» ados zeudela. Elkarrizketatuek adierazten zuten buruzagiek erantzuna eman beharko dutela planteatutako gaiak ondo ezagutzen badituzte eta zalantzak errespetuaren mugak —aurretik aipatutakoak— gainditzen ez badituzte.

**12. taula:** 14. Erlijio-buruzagiek erlijioari buruz planteatzen diren galderak eta zalantzak onartu eta erantzun behar dituzte

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 70 | 57,9 | 57,9 | 57,9 |
| Neurri batean ados | 16 | 13,2 | 13,2 | 71,1 |
| Ados | 32 | 26,4 | 26,4 | 97,5 |
| Desados | 1 | 0,8 | 0,8 | 98,3 |
| Neurri batean desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Erabat desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

**13. taula:** 21. Fededun batek aurrekoak guztiz imitatu behar ditu, asko saiatuta ere ezin izango baitu ekarpen berririk egin

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 26 | 21,5 | 21,5 | 21,5 |
| Neurri batean ados | 17 | 14,0 | 14,0 | 35,5 |
| Ados | 16 | 13,2 | 13,2 | 48,8 |
| Desados | 30 | 24,8 | 24,8 | 73,6 |
| Neurri batean desados | 23 | 19,0 | 19,0 | 92,6 |
| Erabat desados | 9 | 7,4 | 7,4 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 12. taulan ikus daitekeenez, 121 elkarrizketatuetatik % 97k baino gehiagok baiezko erantzuna eman zuten, hau da, erlijio-buruzagiek irekiak

izatearen alde eta funtsezkoak diren gaiei buruz plantea daitezkeen galderak nahiz zalantzak onartzearen alde.

- Fundamentalistak bere federako eta historiarako sakratutzat dituen oinarrietara itzuli nahi du eta oinarri horiek bere horretan utzi. Hori horrela izanik, iraganari eta iraganaren irudiei estimu eta atxikimendu handia ematen die eta mito bihurtzen ditu. Era beran, badirudi ez duela nahiko estimua bere buruarekiko eta ez dela gai aurreko garaietako kultura eta erlijio-legatua berriz interpretatzeko edo berrikuntzak gehitzeko. Aurrekoak beti bera baino hobeagoak eta bere garaikoak baino hobeagoak izan dira. Erlijioak egungo bizitzari egokitzeko egiten diren eraldaketen eta berrikuntzen beldur da. Izan ere, bere erlijioaren oinarritzat hartzen dituenak jokoan daude.

- Kasu horretan, parte-hartzaileen % 48,8k erantzun zuten ados zeudela fededun batek iraganeko pertsona garrantzitsuak imitatu behar izatearekin, haien pentsamenduei eta ondorioei ekarpen berririk zertan egin gabe.

- Horietatik, %14k esan zuten soilik «neurri batean» zeudela ados. Pertsona mota horrek uste du teologia islamikoa oinarritzat hartuta, erlijio musulmana honako bi alderdi nagusi hauetan bana daitekeela: lehenengo alderdia erlijioaren oinarri eta aginduei dagokie baita gizakia eta Jainkoaren arteko bitartekorik gabeko harreman pribatuari ere (*Ibadat*); bigarren alderdia, aldiz, eguneroko gorabeherei dagokie, gizakiaren egungo bizitzak funtziona dezan eta bizitza hori antolatzeko behar diren gizarte-akordio eta -itun guztiei (*Muámalat*). Lehen alderdia, erlijio-printzipioei eta -jarraibideei dagokiena, uste dute —zuzenbide islamikoaren arabera— ez dela aldatu behar, bertan kokatzen direlako haien erlijio-nortasunaren ezaugarri nagusiak, haien Karta Magna, haien muina. Bigarren alderdia, aldiz, gizakien arteko harremanari dagokiona, uste dute aldatu egin behar litzatekeela eta une bakoitzera egokitu jendearen bizitza errazteko eta bizitzako zirkunstantzietara egokitzeko.

- Elkarrizketatuen erdiak baino gehiagok erlijioa berritzearen aldeko iritzia azaldu zuten.

**14. taula:** 26. Nire kulturaren historia berrikusterakoan batzuek iraganean egindako hutsegiteak aurkitzen ditut

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Erabat ados | 27 | 22,3 | 22,3 | 24,0 |
| Neurri batean ados | 12 | 9,9 | 9,9 | 33,9 |
| Ados | 59 | 48,8 | 48,8 | 82,6 |
| Desados | 12 | 9,9 | 9,9 | 92,6 |
| Neurri batean desados | 5 | 4,1 | 4,1 | 96,7 |
| Erabat desados | 4 | 3,3 | 3,3 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Fundamentalistak mitifikatzen dituzten haien arbasoek iraganean hutsegiteak egin zituztela aitortzea zaila egiten zaie. Haientzat, arbasoek egindako guztia perfektua eta ezin hobea da. Horrela, galdeketaren 26. galderak neurtzen zuen pertsonaren gaitasuna honako hau aitortzeko: bera identifikatzen den historian zehar ez zirela soilik argiak izan, ilunak ere bai.
- Musulmanentzat orokorrean, Islamaren historiaren garai bat portaerako eta gobernatzeko eredu perfektua izan zen: Muhammad profetaren eta haren lau lehen ondorengo Ongi Gidatuen (*al-Julafaá al-Rashidún*) garaia, hain zuzen ere.
- Horri dagokionez, elkarrizketatuen % 80k baino gehiagok adierazi zuten arbasoek hutsegiteak egin zituztela.

**15. taula**: 35. Nire erlijioaren liburu sakratuari puntuazio-markak (koma, galdera-markak eta abar) jartzea urrats egokia da liburua hobeto ulertzeko

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 11 | 9,1 | 9,1 | 9,1 |
| Erabat ados | 9 | 7,4 | 7,4 | 16,5 |
| Neurri batean ados | 22 | 18,2 | 18,2 | 34,7 |
| Ados | 12 | 9,9 | 9,9 | 44,6 |
| Desados | 34 | 28,1 | 28,1 | 72,7 |
| Neurri batean desados | 7 | 5,8 | 5,8 | 78,5 |
| Erabat desados | 26 | 21,5 | 21,5 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Horrela bada, seguruenik garai horretaz gogoratuko ziren elkarrizketatuen % 17,3ak item horren edukiarekin ados ez zeudela erantzuterakoan.

- Beste galdera batek, autokritika neurtzeko azkenak, fedearen testu sakratuen aurrean pertsonak hartzen duen jarrera aztertzen du. Gorago aipatu denez, fundamentalismoak Jainkoaren Hitzaren —inolaz ere aldatu behar ez den jainko-errebelazioaren— infalibilitatea gogor defendatzen du.

- Kristautasunean Jesukristok betetzen duen garrantzizko tokia Islamean Koranak —musulmanen oinarrizko ideiak biltzen dituen liburuak— betetzen du eta ez Muhammad profetak. Liburu sakratu hori Gabriel arkanjeluak errebelatu zion oso-osorik Muhammad profetari VII. Mendean. Testu hori lehen aldiz bildu eta transkribatu zenean ez ziren erabili gaur egun ezagutzen eta erabiltzen ditugun ortografia-zeinuak, esaterako *puntua* (.), *koma* (,), *galdera-marka* (?), eta abar. Arabieraz idatzitako Koranean beste mota bateko puntuazio-markak azaltzen dira eta horiek ideiak antolatu eta hierarkizatzeko eta anbiguotasunak ekiditeko derrigorrezko edo gomendatutako geldialdiak adierazten dituzte baina musulman denek ez dute Koraneko puntuazio-marka horien esanahia eta funtzioa ondo ezagutzen. Nahiko jakintza izan behar da horiek bereizteko. Horrela, galdeketako 35. galderarekin jakin nahi zen gaur egun erabiltzen dugun Koranaren testu originalari puntuazio-markak gehitzeko aukerarekin zenbateraino zeuden ados elkarrizketatuak.

- Hori nahiko galdera polemikoa da. Ikusi zen iritzi garbirik ez zuten elkarrizketatuek erantzun aurretik erlijioaren ulemak eta jakitunak gai horri buruz duten iritzia ezagutzen saiatzen zirela. Haientzat oso gai garrantzitsua da, Korana haien liburu sakratua delako. Beraz, aldez aurretik galderaren dimentsio guztiak ezagutu gabe erantzuteko beldur ziren. Izan ere, galdera hau erantzun nahi ez zuten edo galdera honi zein erantzun aukeratu ez zekiten pertsonen ehunekoa beste edozein galderatan baino altuagoa zen, elkarrizketatuen ia %10.

- Koranari buruz jakitun musulman askok egindako irakurketak eta azterlanak metodo historiko-kritiko modernoei egokitzen dira. Garai musulmanaren II. eta III. mendeen artean (VIII-IX K.o), Koranari buruzko zenbait azterlan eta interpretazio landu ziren ikuspegi kritiko-historikotik, adibidez honako hauek: «Errebelazioaren zirkunstantziak» (*Asbab al-Nouzul*); «Indargabetzen duena eta indargabetutakoa» (*al-Nasej wa*

*al-Mansouj*). Lehen lanak Koraneko bertsoen errebelazioaren arrazoien eta zirkunstantzien inguruko alderdiak aztertzen ditu, esaterako une horretako gizartearen egoera, Koranaren terminologiaren azterketa filologikoa, errebelazioaren data, lekua, balioa eta abar. Bigarren lanak, aldiz, bestelako txatalak aztertzen ditu, hain zuzen ere beranduago errebelatu ziren beste txatal batzuek indartutakoak edo baliogabetuak. Azpimarragarria den beste adibidea IX. mendeko (K.o.) pentsalari mutaziliak egiten zuten Koranaren irakurketa da: horiek, gainerako musulmanen antzera, Jainkoaren batasunaren eta bakartasunaren alde egiten zuten baita Jainkoaren mezuaren transzendentziaren alde ere. Alabaina, pentsalari horientzat Koranaren testua «sortutako» errealitate bat da, hots, giza arrazoiaren legeen arabera irakurri, aztertu eta interpretatu behar da.

- Zalantzarik gabe, liburu sakratu baten okergabetasunean sinisteak eta liburu hori hitzez hitz irakurtzeak jarrera fundamentalistak sorraraztea dakar, aurreko orrialdetan adierazi den moduan. Dena den, azaldu beharreko da, Sleat-ek (2006) dioenez, testu kanonikoak hitzez hitz irakurtzeak ez dela testu horietan biltzen den egia besteei inposatu nahi izatearen sinonimoa. Hau da, erlijio-fededun ugari aurki daitezke testu kanonikoak hitzez hitz irakurtzen dituztenak baina hala ere sinisten duten egia hori besteei inposatzen hasi nahi ez dutenak. Horiek beharbada, «dogmatikotzat» edo «puristatzat» har daitezke baina ez fundamentalistatzat. Sleatek (2006) dioenez literalismoak, berez, ezin du argitu fundamentalisten eta erlijio-fededun baketsuen artean dagoen aldea.

- Nolanahi ere eta gure azterlanari dagokionez, galdeketa erantzun duten EAEn bizi diren musulmanek azken item horren aurrean ez dute jarrera bakarra azaltzen. Hori ikus daiteke 15. taulan. Horietako % 36k adierazi zuten ados zeudela puntuazio-marka modernoak gehitzeko aukerarekin, baina Koraneko hitzen esanahiak eta konnotazioak ez aldatzeko baldintza azpimarratzen zuten. Gainerakoek, % 50 baino zertxobait gehiagok aukera hori baztertu egin zuten. Hortaz, elkarrizketatuen ehuneko handiak adierazi zuen aukera horrek testuan aldaketak eragiteko beldur zirela.

### 5.3.2. Galdeketako «isolamendua» aldagaiari buruzko zazpi galderak

**16 taula**: 2. Gaur egun hemengo eskoletan irakasten dutena ikusita, hobe da gure seme-alabak etxean geratzea

| | Kop. | % | baliozko % | metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Erabat ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 5,0 |
| Neurri batean ados | 16 | 13,2 | 13,2 | 18,2 |
| Ados | 8 | 6,6 | 6,6 | 24,8 |
| Desados | 30 | 24,8 | 24,8 | 49,6 |
| Neurri batean desados | 22 | 18,2 | 18,2 | 67,8 |
| Erabat desados | 39 | 32,2 | 32,2 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Fundamentalisten arrazoibideei erreparatzen badiegu, konturatuko gara norbanakoaren isolamenduaren edota isolamendu kolektiboaren ideia maiz errepikatzen dela eta ideia horrek garrantzi handia hartzen duela haien azalpenetan. Fundamentalistak bitxiak, bereziak eta zenbaitetan bikainak sentitzen dira. Ingurukoekiko harremanak murriztea nahiago dute, batez ere ingurukoek ez badute erlijiozko betekizunei dagokienez haien portaera berdina. Muturreko kasuetan desberdinak diren pertsonekin harremanak amaitu ditzakete eta haragikoitzat eta zintzotasun gabekotzat hartzen dituztenez, haien aurkako jarrera azaldu.

- Metroscopiak Espainian kokatuta dagoen biztanleria musulman etorkinari buruz egindako iritzi-inkestan adierazten da «etorkinen eskolatutako hamar seme-alabetatik bederatzi (% 90) zentro publikoetara joaten direla, % 5, ikastetxe pribatuetara eta % 3 itunpeko ikastetxeetara. Neska-mutil horien % 17k ikastetxean jasotzen dute erlijio-hezkuntza baina horietatik soilik % 10ek dio erlijio-hezkuntza hori eskatu duenik. Kasu gehienetan (% 58), familia da seme-alabak arlo horretan hezteko ardura hartzen duena eta horietako % 10 soilik joaten da meskitara edo imanarengana». Bestalde, Trinidad Vicente-k (2008) 2005/06 ikasturteari dagokion azterlanean eskainitako datuak kontuan hartuta, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sisteman sartuta dauden ikasle marokoarrak (EAEn bizi diren musulmanen artean ordezkaritza handiena duen biztanleria) ikasle etorkin guztien % 9 dira. EAEko ikasle etorkinen nazionali-

tate-rankinga alderatuta, jatorri hori duten ikasleen garrantzi erlatiboak Gipuzkoako eta Arabako ikasle-talde ugariena izatera eraman ditu, Araban eskolatutako Kolonbiako ikasleen atzetik eta Gipuzkoan eskolatutako Ekuadorreko ikasleen atzetik. Bizkaian, aldiz, ikasle marokoarrak bosgarren postuan kokatzen dira, Kolonbiako, Boliviako, Ekuadorreko eta Errumaniako ikasleak nagusitu direlako.

- Galdera horretan, galdeketako bigarrenean, elkarrizketatuei honako hau eskatzen zaie: edozein arrazoi dela medio haien seme-alabek, anai-arrebek edo senitartekoek eskola uzteko eta EAEko ikastetxeek ezarritako ikaskuntza-prozesua ez jarraitzeko erabakiaren aurrean iritzia emateko eta erabaki hori balioesteko, hots, egokitzat jotzen duten edo nahiago duten eskola-adina duten senitartekoak gizarte hartzaileko ikastetxeek proposatutako prestakuntza-prozesuarekin jarraitzea. Euskal ikastetxe publikoetan erlijio islamikoko klaseak jasotzeko ikasle musulmanek duten eskubidea aurreko ikasturtean aplikatu zela kontuan hartuta, item horren bidez jakin nahi da elkarrizketatuak, horietako batzuk eskolatutako neska-mutilen aitak eta amak direnez, ikastetxe publikoetan eskaintzen den heziketari uko egitearen alde edo aurka dauden, edozein arrazoi dela medio (adibidez, erlijio islamikoko klaserik ez ematea).

- Elkarrizketatu musulmanek emandako informazioaren arabera (16. taula) horietako % 75 baino gehiago haien seme-alabak euskal ikastetxeetan garatzen diren gaiak, ikasketak eta balioak ikastearen alde eta adin bereko ikasleekin gune hori konpartitzearen alde azaldu zen.

**17 taula:** 10. Erlijio-komunitate bateko ordezkariek gutxiago parte hartu beharko lukete komunikabideetan, horietara jo gabe

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 3,3 |
| Ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 6,6 |
| Desados | 50 | 41,3 | 41,3 | 47,9 |
| Neurri batean desados | 18 | 14,9 | 14,9 | 62,8 |
| Erabat desados | 45 | 37,2 | 37,2 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Gainerako elkarrizketatuen % 23 senitartekoak eskolara ez joatearen alde agertu zen baina ehuneko hori % 10 baino gutxiagora jaisten da kontuan hartzen bada % 23 horretan bildutako erdiek baino gehiagok, zehazki % 13,2k, «neurri batean ados» zioen aukera hartu zutela. Hau da, onartzen zuten eskolatzeko oinarrizko eskubidea eta haien senitartekoak euskal ikastetxe batera joateko beharra baina denbora berean, nahiago zuten erakunde publikoek beren kulturaren ñabardura aintzat hartuta, erlijio musulmanaren historiari, hizkuntzari, hezkuntzari eta balioei buruzko heziketa jasotzeko aukera ahalbidetzea.

- «Isolamendua» aldagaiarekin zerikusia duen beste galdera bat da azken hori. Galdera horren bidez jakin nahi da Euskadin bizi den komunitate musulmaneko ordezkariek komunikabideetara jotzearen eta haiekin lankidetzan jardutearen alde ote dauden elkarrizketatuak eta zein neurritaraino.

- Ehuneko txiki batek, 121 elkarrizketatuen % 3,3k hain zuzen ere, «ados» zioen aukera hautatu zuten. Era berean, beste lau elkarrizketatuek (% 3,3) hautatu zuten «neurri batean ados». Adierazi zuten komunikabide batzuk ez direla hain zintzoak eta iristen zaien informazioa manipulatu egiten dutela. Hori dela-eta hartzen zuten komunikabideekin elkarlan gutxi egiteko jarrera.

- Gainerako parte-hartzaileek (% 93tik gora), aldiz, ia aho batez erantzun zuten komunikabideen gonbiteei erantzutearen alde eta proposatzen dizkien jardueretan parte hartzearen alde daudela.

**18. taula:** 12. Gaur egun, erlijioari eutsi nahi dionak hobe du mundu honetatik isolatzea pertsona aratza izateko eta bizirik irauteko

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean ados | 6 | 5,0 | 5,0 | 5,0 |
| Ados | 6 | 5,0 | 5,0 | 9,9 |
| Desados | 45 | 37,2 | 37,2 | 47,1 |
| Neurri batean desados | 13 | 10,7 | 10,7 | 57,9 |
| Erabat desados | 51 | 42,1 | 42,1 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Galdera horri baiezko erantzuna emateak, aurreko itemetan adierazi den moduan, banantzeko eta isolatzeko jarrera egiaztatzen du, fundamentalismoari atxiki dakiokeen ezaugarria, hain zuzen ere. Jakin nahi dena zera da, erlijioari eta nortasun-ezaugarriei eustea lortzeko pertsona bere gizarte- eta kultura-testuingurutik isolatzera heldu daitekeen.

- Elkarrizketatuen erantzunetik ondoriozta daiteke gehiengoak (% 90etik gora) galderarekiko desadostasuna adierazi duela, hau da, erlijioari eutsi daitekeela mundu honetatik isolatu gabe eta besteekiko harremanak galdu gabe.

- Horrela, parte-hartzaileen % 10 baino gutxiagok agertu zuten inguratzen dituen munduak pairatzen dituen ukaezinezko aldaketa eta eraldaketen aurrean nortasun aratzari eusteko joera; izan ere aldaketa horiek oso nahasgarritzat hartzen dituzte kultura gehienek.

**19. taula:** 15. «Bestearen» hizkuntza eta haren kulturaren beste hainbat alderdi ikasteko behar den ahalegina egitea garrantzitsua da, elkar ezagutzeko bide egokia delako

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 79 | 65,3 | 65,3 | 65,3 |
| Neurri batean ados | 12 | 9,9 | 9,9 | 75,2 |
| Ados | 28 | 23,1 | 23,1 | 98,3 |
| Desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Erabat desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- «Bestearen» hizkuntza eta haren kulturaren beste hainbat alderdi ikasteko interesa izateak elkarrizketarako, ikasketarako eta aberastasunerako hurbilketazko eta prestasunezko jarrera adierazten du.

- Zentzu horretan, 19. taulan azaltzen diren zenbakiak argiak dira: elkarrizketatuen ia % 100ek onartzen dute ikasketa mota hori baliozkoa dela egokitzea, ulertzea eta bizikidetza errazteko tresna gisa.

- Alabaina, nabarmentzekoa da elkarrizketatutako meskitetako iman batzuek gaztelaniaren oso oinarrizko jakintza besterik ez zutela (eta euskararena, gutxiago) baina beste batzuek, aldiz, adierazi zutela gaztelaniako

klaseetara joaten zirela eta hizkuntza hori ikasteko benetako interesa zutela. Funtsezko gaia da hori; izan ere, gizarte hartzaileak askotan gidari espiritual eta erlijioso horiek Islamaren alderdi desberdinei buruz duten iritzia eta elkarrizketari eta gizarte-bizikidetzari buruz duten ikuspegia ezagutzeko interes handia agertzen du. Horrela, komunitate musulmaneko irudi horiek ez badute helmugako herrialdearen hizkuntza ikasteko interesik agertzen edo herrialde horrek ez badu ordezkari horietara hurbiltzeko eta horiek ezagutzeko interesik agertzen, bi alderdien arteko komunikaziorako funtsezko elementu bat galtzea izango litzateke lehen ondorioa. Lehenengoek ezin izango dituzte beren beharrak eta kezkak modu eraginkorrean transmititu edo haiei buruz dauden gaizkiulertuak eta estereotipoak argitu eta bigarrenek ezin izango dituzte euren balio positiboak transmititu eta topaketak, beharrezko elkarrizketa eta bizikidetza ahalbidetu.

**20. taula:** 19. Komunitate erlijiosoek gizarteko jardueretan parte hartu beharko lukete, nahiz eta horretarako erlijioz kanpoko erakundeekin harremanetan jarri behar izan

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 50 | 41,3 | 41,3 | 41,3 |
| Neurri batean ados | 17 | 14,0 | 14,0 | 55,4 |
| Ados | 48 | 39,7 | 39,7 | 95,0 |
| Desados | 6 | 5,0 | 5,0 | 100,0 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Galdeketako 19. galdera Euskadin bizi diren elkarrizketatu musulmanen isolamendu-maila neurtzeko diseinatu zen. Izan ere, inguratzen digun moduko gizarte plural batean, oso garrantzitsua da sentsibilitate guztiek askatasunez existitzeko eta adierazteko eskubidea dutela aintzat hartzea. Aniztasun horrekiko errespetua gizartea osatzen duten emakume eta gizon guztien arteko lankidetzaren bidez gauzatu daiteke. Gizarte- eta erlijio-sentsibilitate desberdinetako erakundeek antolatutako jarduerak onartzea eta horietan laguntzeak eta parte hartzeak esan nahi du «besteen» ekarpenak norberarenak bezain bidezkotzat eta baliodunt zat hartzen direla.

- 20. taulan ikus daitekeenez, elkarrizketatuek ia aho batez (% 95) erantzun zuten euskal gizartea osatzen duten talde desberdinekin elkarrekiko laguntza eta lankidetza gauzatzearen alde zeudela, talde horien ikuspegiak eta planteamenduak alde batera utzita.

- Hori da «isolamendua» aldagaia neurtzen duen azkenaurreko galdera. Honako hau jakin nahi da: elkarrizketatuek zenbateraino dituzten joera egoistak edo besteei bizkarra emanez —besteetaz eta haien premietaz arduratu gabe— bizitzea bilatzen duten. Item horrekin ados egoteak gizakiaren eta gizakiak gizartean betetzen duen zereginaren ikuspegi pesimista agerian uzten du. Nik pesimista izan nahi badut, gainerakoak faltsutzat eta arduragabetzat hartzen ditudalako izango da. Horrela, besteak egiazko mehatxu bihurtzen dira, haiengandik defendatzea eskatzen duena haiekiko harremanak murriztuz edo saihestuz.

**21. taula:** 23. Bizi garen garai hauetan hoberena da egoista izatea eta norberaren premiez soilik arduratzea

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean ados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Ados | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Desados | 52 | 43,0 | 43,0 | 44,6 |
| Neurri batean desados | 6 | 5,0 | 5,0 | 49,6 |
| Erabat desados | 61 | 50,4 | 50,4 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Musulman gehienak gizarte kolektiboen kide dira, hots, ez dute arreta indibiduoan jartzen eta taldearen eta pertsonen arteko harremanen garrantzia independentziaren eta indibidualizazioaren balioari nagusitzen zaio. Komunikazioa eta gizarte-harremanak indartzen dituzten kulturak dira, besteek pentsatzen dutenari arreta handia jarriz eta beti gustura uzten saiatuz, bestearen iritziak eta onarpenak zuzeneko eragina dutelako norberaren autoestimuan.

- Hori guztia kontuan hartuta, galdeketa osatu duten parte-hartzaileen erantzuna ezin argiagoa da. Izan ere, elkarrizketatutako musulmanen % 100ek altruista izatea, besteekiko interesa agertzea eta haiekin emozio- eta gizarte-lotura sortzea garrantzitsutzat jotzen dute.

**22. taula:** 34. Erakunde eta elkarte desberdinen arteko zenbait elkarrizketa-topaketa serioak badira ere, hobe da horietara ez bertaratzea

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 3,3 |
| Ados | 6 | 5,0 | 5,0 | 8,3 |
| Desados | 70 | 57,9 | 57,9 | 66,1 |
| Neurri batean desados | 17 | 14,0 | 14,0 | 80,2 |
| Erabat desados | 24 | 19,8 | 19,8 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 34. itema «isolamendurako» joera neurtzen duen galdeketako azken itema da. Horri esker jakin nahi da elkarrizketatuak nahiago ote duen nor bere barnera bildu eta gizarte- eta erlijio-elkarte desberdinen arteko topaketetara —elkarrekiko elkarrizketa eta ezagutza sustatzeko egiten direnetara— ez bertaratzea.

- Azken urteetan, topaketa eta kulturen eta erlijioen arteko elkarrizketa bultzatzea xede nagusitzat hartzen duten ekimen asko (erakundeenak nahiz zibilak) gauzatu dira euskal gizartean. Elkarrizketa-bilera horietan euskal gizartean ezarritako erlijio-sentsibilitate eta —erakunde desberdinetako kideak parte hartzen dute. Komunitate musulmaneko ordezkariek erlijio-esperientziak elkartrukatzeko mahai horietan parte hartzen dute eta erregulartasunez joaten dira hitzordu horietara. UNESCO Etxea gobernuz kanpoko erakundearen lokaletan egiten diren erlijio arteko topaketetara bertaratzen dira. Era berean, 2009. urtearen hasieran, euskal gizarte zibileko hainbat erakundetako ordezkariekin batera, Palestinarekin Elkartasunerako Bizkaitar Plataformaren sorrera eragin zuten bileretan parte hartu zuten. Plataforma horrek hogeitik gora gizarte-elkarte eta sindikatu biltzen ditu, hain zuzen ere, Palestinako giza eskubideen aldeko sentsibilizazio-jarduerak garatzen dituztenak eta Israelgo errepresiozko politiken aurkako eta 2009an 1.500 biktima zibiletik gora eragin zituzten Gazaren aurkako erasoen aurka.

- Kasu horretan ere, elkarrizketatuen gehiengoa (ia % 92) gonbidatzen dituzten elkarrizketa-topaketetara eta -mahaietara joatearen alde agertu zen.

### 5.3.3. «Erlijio-tolerantzia» aldagaiari buruzko zazpi iritziak

- Erlijio-intolerantzia fundamentalismoarekin askotan erlazionatu den terminoa izan da, norberarena ez den kultura- edo erlijio-tradizioak dituzten pertsona edo taldeekiko aurkako jarreratzat edo deslegitimaziotzat ulertu-ta. Elkarrizketatuak item horren edukia modu negatiboan balioetsi badu uler daiteke norberaren jarrerekiko jarrera desberdinak dituzten pertsonetatik datorren informazioa gutxiesten dela. «Bestearekin» elkarrizketan jarduteko gaitasuna tolerantziarekin —pertsonen eta kulturen arteko bizikidetza eta bakea garatzeko hain beharrezkoa denarekin— estu loturik dagoen bertutea da. Tolerantzia gizartean sustatzeko modu asko daude eta horietako batek «bestearekin» elkarrizketan jarduteko eta komunikatzeko prestasunean du oinarria. Baina zein elkarrizketa motetaz ari gara? Tamalez, erlijioen arteko topaketa- eta elkarrizketa-mahai askok ez zuten arrakastarik izan eta bertan behera utzi behar izan ziren ulermena, seriotasuna eta pazientzia falta izan zirelako. «Bestearen» ikuspuntua ulertzeko benetako borondaterik ez dagoenean, hurbilpen faltsua eta zentzurik gabeko bakarrizketa bihurtzen da elkarrizketa. Aldiz, gorago aipatutako borondate hori edukitzeak honako hauetarako prestasuna dakar: enpatizatzeko, besteek sentitzen dutena hautemateko, besteek sinisten dituzten ideiei jaramon egiteko eta norberaren sinismenak absolututzat ez hartzeko.

**23. taula:** 1. Erlijio-gaietan norbaitekin ez banago ados uste dut bestearen ikuspegia ulertzeko borondate argia dutela

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 45 | 37,2 | 37,2 | 37,2 |
| Neurri batean ados | 41 | 33,9 | 33,9 | 71,1 |
| Ados | 31 | 25,6 | 25,6 | 96,7 |
| Desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 98,3 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Galdeketako lehen galderarekin jakin nahi dena da elkarrizketatuek «bestearen» jarrerekin eta ikuspegiekin enpatizatzeko gaitasunik ote duten. 23. taulan ikus daitekeenez, parte-hartzaileen ia % 100ek item horre-

kiko adostasuna adierazi zuten. Hortaz, norberaren ideiak konpartitzen ez dituztenekin elkarrizketan jarduteko premia eta besteen planteamenduak eta ikuspuntuak bereganatzekoa onartzen dute.

- Zer pentsatzen dute fededunek «bestearen» erlijioei buruz? Nola definitzen dituzte eta nola kokatzen dira horien aurrean? Pertsona erlijioso batek bere ikuspegietaz eta beste taldeek dituzten erlijio-sinismenetaz duen pertzepzioarekin zerikusia duten galderei erantzuna eman nahi die item horrek. Horrelako galderaren aurrean ez da harritzekoa fededunek erantzutea norberaren erlijio-sinismenak direla egokienak eta besteenak daudela oker. Izan ere, joera harro eta arranditsu hori (nire erlijio-atxikimendua da Jainkoak sarituko duen bakarra) oso ohikoa da hainbat erlijio-nortasun desberdinetan, hala nola judutarrean, kristauan, islamikoan, hinduan eta abar Baina nola gauzatzen da egiaztapen hori? Derrigorrez, ustez egiaren bidea dena jarraitzen ez duen «bestearen» ezereztea al dakar?

**24. taula:** 7. Esan dezakegu nirea ez den erlijioan sinisten dutenak oker daudela

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **Metatutako %** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 4 | 3,3 | 3,3 | 3,3 |
| Erabat ados | 39 | 32,2 | 32,2 | 35,5 |
| Neurri batean ados | 9 | 7,4 | 7,4 | 43,0 |
| Ados | 40 | 33,1 | 33,1 | 76,0 |
| Desados | 17 | 14,0 | 14,0 | 90,1 |
| Neurri batean desados | 5 | 4,1 | 4,1 | 94,2 |
| Erabat desados | 7 | 5,8 | 5,8 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Ikuspegi islamikoaren barruan dauden zenbait erlijio-kontzeptu musulmanek interpretatzen dituzten moduan aztertzen direnean, nolabaiteko ikuspegi esklusibista ikusten da (soilik nire erlijio-atxikimenduak darama Jainkoaren egiara eta gainerakoek, benetako errebelazioak izanda ere, egiazko mezua indargabetu zuten eta bide zuzenetik aldendu ziren) baina egia da ideia horiek ez dutela ahultzen «besteak» bere sinismen propioak izateko, mantentzeko eta praktikatzeko duen legitimitatearekiko sinismena. Uste tolerante hori Koranean oinarritzen da; izan ere Koranaren txatal ugarietan kontzientzia-askatasuna pertsonaren funtsezko eta bortxaezinezko eskubi-

de modura finkatzen dute: «ezin da behartu inor Adorazioa Praktikatzera», agintzen du esanbidez Koranak (2. kapitulua, 256. txatala).

- Esan beharra dago musulmanek judaismoa eta kristautasunaren historiari eta erlijio horietako sinismenen jatorriari buruz ezagutza zabala dutela. Izan ere, Islama ez da aurkezten erlijio bereizi eta ospetsu modura eta ez da ezagutzera eman beste sinismenak baliogabetzeko baizik eta horiekin batzeko eta horien kautotasuna berresteko eta judaismoaren eta kristautasunaren Jainko bakarraren mezuarekin jarraitzeko proposatzen da, beste sinismen monoteistekiko esanbidezko onarpena azalduz. Koranak tradizio horiei, profetei eta haien liburu sakratuei buruzko aipamen eta testu asko biltzen ditu; izan ere, horiek guztiak, gutxi gorabehera, herrialde berean sortu ziren. Horren adibide on bat dira honako hauei buruzko aipamenak: Pentateukoa (*al-Taura*), Ebanjelioak (*al-Inyil*) eta Daviden Salmoak (*al-Zabour*). Aipamen horietan jainkozko jatorria aditzera ematen da eta gida, argia eta zuzentasun-eredu modura duen balioa aitortzen da. Koranean honako hauek biltzen dira: «Adorazioaren Praktikan, legea eman dizue [musulmanentzat], Nuhri gomendatu ziona […], Ibrahimi, Musari eta Isari gomendatu geniena: ezar zezatela sendo Adorazioaren praktika eta ez zinteztela banatu hartan» (Korana, 42. kapitulua, 13. txatala). Alabaina, Islama ez dator bat kristautasunarekin hainbat dogmatan, adibidez, dotrina hirukoiztarrari dagozkionetan, dogma horrek Jainkoaren batasuna eta bakartasuna arriskuan jartzen duela uste dutelako.

- Koraneko beste txatal batean honako hau irakur daiteke: «Eta haien ondoren, haien arrastoei jarraituz, Isa, Maryamen semea, etorrarazi genuen, Toran jadanik zegoena berretsiz. Eta Inyil (ebanjelioa) eman genion, gida, argia eta Toran jadanik zegoena zekartzana, baita gida eta oharpena ere beldur direnentzat». Koranaren —musulmanentzat balioak eta aukera moralak eskaintzen dituen harrobi-liburuaren— 5. kapituluan, 46. aleian, azaltzen den baieztapen hori gorabehera, harrigarria bada ere, 24. taulan horren aurkako iritzia ikus daiteke: elkarrizketatutako hamarretik zazpik, ehuneko handiak, aipatutako galderarekin adostasuna adierazten zuen. Uste dugu erantzun horrek eztabaida honen 2. puntuan azaldu dugun ideiarekin zerikusi handia duela. Edozein kasutan ere, galdeketa bete zuten elkarrizketatuen soilik % 25ek adierazi zuten ez zeudela ados, hau da, uste zutela norberarekiko desberdinak diren erlijio-tradizioetan sinisten duen jendea ez dagoela oker.

- Egia osoa berak duela uste duenak gainerakoen berezitasunak ez toleratzeko joera hartzen du baita besteak, desberdinak, eskubide oinarrizkoenetaz gabetzekoa ere. Fundamentalista ez da bere buruaren eta «bestearen» arteko desberdintasuna markatzen duena, —desberdintasuna hor dago eta jakin behar da nola ulertu eta tratatu aberastasuna bihurtzeko— baizik eta desberdintasun kultural, etniko edo erlijioso hori «bestetzat» hartzen diren taldeek pairatzen dituzten intolerantzia, desberdintasun-baldintzak eta askatasun-falta justifikatzeko erabiltzen duena.

**25. taula:** 11. Edozein gizarteko erlijio-komunitateek, gutxiengoan egonda ere, beren festa propioak ospatzeko eskubidea izan beharko lukete

| | Kop. | % | Baliozko % | Metatutako % |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 68 | 56,2 | 56,2 | 56,2 |
| Neurri batean ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 59,5 |
| Ados | 45 | 37,2 | 37,2 | 96,7 |
| Desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean desados | 4 | 3,3 | 3,3 | 100,0 |
| Erabat desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 11. galderaren bidez ikertu nahi zen euskal gizartean bizi diren kolektibo musulmaneko kide elkarrizketatuek zein neurritaraino begi onez ikusten duten beste komunitateek duten eskubidea, helmugako herrialdean nahiz elkarrizketatuaren jatorrizko herrialdean, beren festak eta liturgia-ospakizunak askatasunez eta baldintza-berdintasunean praktikatzeko. Eskubide hori kontuan hartzea eta aitortzea, pluraltasunarekiko eta pertsonaren duintasunarekiko errespetua gordetzen duen gizarte bat eraikitzeko funtsezko eta ezin besteko elementua da.

- Hala, 25. taulan ikus daitekeen moduan, elkarrizketatutakoen ia % 97 tolerantziaren eta erlijio-askatasunaren alde azaldu zen.

- Aurreko galdearekin bat etorriz, item honek erlijio-tolerantziarekin lotutako aldagai berbera aztertzen du. Oraingoan, helburua da jakitea parte-hartzaileak ados dauden ala ez gainerako komunitateek auren gurtzarako lekuak eraikitzearekin edo horiek edukitzearekin ofizioak askatasunez eta independentziarekin bertan egiteko.

**26. taula:** 16. Bidezkoa da erlijio-komunitate guztiek otoiztegi propioak izatea beren errituak eta ofizioak egiteko

| | Kop. | % | Baliozko % | % metatua |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 76 | 62,8 | 62,8 | 62,8 |
| Neurri batean ados | 12 | 9,9 | 9,9 | 72,7 |
| Ados | 33 | 27,3 | 27,3 | 100,0 |
| Desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Kulturanitzeko edo kulturarteko gizarte honetan, erlijio-tolerantziaren gaia funtsezko elementua da gizarte hau osatzen duten kultura-taldeen arteko bizikidetza harmoniko bat antolatzeko. Tolerantzia hori egiazkoa eta eraginkorra izan daiteke soilik gizabanako eta talde guztiek kontzientzia-askatasuna izateko, erlijioa askatasunez hautatzeko (edo sinismenik ez hautatzeko eskubidea izateko, ateoak edo agnostikoak izateko) eta publikoki gauzatzeko aukera lortzen badute, hori aldatzeko zuzeneko edo zeharkako inposiziorik edo inposatzeko ahaleginik jasan gabe.

- Kulturaniztasunari eta kulturartekotasunari dagokienez, ohikoa da bi eredu horiek hirurogeiko hamarkadan Estatu Batuetan, Kanadan eta Britainia Handian eta hogeita hamarreko hamarkadan Frantzian, hurrenez hurren, sortu zirela baieztatzen duten iritziak entzutea. Foroetan eta literatura espezializatuan behin eta berriz errepikatu dira iritzi horiek. Baina, gure ustez, iritzi hori pentsatu gabea eta okerra da. Egia da izendapenak herrialde horietan sortu zirela (haien gizarteetako kultura aniztasuna kudeatzeko landutako immigrazio-politikei erreferentzia eginez), baina herrialde horiek ez dira kultura-taldeen arteko bizikidetza- edo koexistentzia-eredu horiek jaio ziren lekua. Izan ere, giza esperientzia eta topaketak kulturaniztasun anglosaxoniarra eta Europako kulturartekotasuna kokatzen diren hamarkadak baino askoz zaharragoak dira. Eta ez dugu hitz egiten kultura desberdinetako giza taldeen arteko topaketa iragankorrei buruz, baizik eta gizakiaren historian neurri handiagoan edo txikiagoan izandako ulermen eta bizikidetzako mendeei buruz. Hala, mundu arabiar eta islamikoaren kasuan, azterlan honen gaia izanik, hainbat adibide daude adierazi berri duguna erakus-

ten dutenak: horietako bat, VII. mendean gertatu zena, Muhammad profetaren adibidea da, Medinako juduekin, kristauekin eta politeistekin Itun Orria (*al-Ssahifa*) —antolamendu juridiko, sozial eta erlijiosoko lehen itunetako bat da, eta Medinako hirian bizi ziren hiritarren eta taldeen eskubideak eta betebeharrak jasotzen ditu— sinatu zuenean; itunak komunitate partikularreko (*Umma*) estatusa aitortu zien, baita beren sinismenak, ondasunak, auzoak eta tenpluak mantentzeko eskubidea ere. Beste adibide bat dugu Omar Kalifak 637. urtean «Omari Ituna» sinatu zuenean Sophronius-ekin (560 Damasko-638 Jerusalem), hau da, garai hartako Jarusalemgo patriarkarekin; itunak xedatu zuenez «Jerusalemgo hiriko biztanleak babestuak izango dira, beren buruarentzako babesa bermatua izango dute, baita beren ondasunentzat, elizentzat, gurutzeentzat, gaixoentzat eta osasuntsuentzat, eta beren komunitateko pertsona guztientzat ere. Beren elizak ez dira aldatu nahiz suntsituko, ez da horien eraikuntza nahiz lurrak murriztuko [...], eta ez zaie beren erlijioa aldatzera behartuko...». Jerusalemgo hiriak juduen, kristauen eta musulmanen arteko bake eta bizikidetzako aldi bat bizi izan zuen une horretatik aurrera, XI. mendean aldi hori amaitu zen arte, hau da, lehen gurutzatuak iritsi ziren arte.

- Istorio eta esperientzia horiek ezagutzen dituzten musulmanak asko dira, eta gainerako erlijio-tradizioek gurtzeko leku eta zentro propioak izateko eskubidea dutela babesten dute, eta horien aldeko jarrera justifikatzeko, hainbat testu koraniko erabiltzen dituzte erreferentzia gisa. Horietako bat da honako testu hau: «Allah gizon batzuen kontra borroka egiteko beste batzuez baliatu izan ez balitz, suntsituak geratuko ziren ermitak [fraideenak], sinagogak, otoizlekuak eta meskitak, non ugari aipatzen baita Allahren izena » (Korana, 22. kapitulua, 40. txatala).

- Hala, 26. taulan ikusten denez, elkarrizketaturiko musulman guztiek (% 100) adierazi zuten erlijio-tolerantziari buruzko item horren planteamenduarekin ados zeudela.

- Elkarrizketaren garrantziaren eta tolerantziaren arteko harremanari buruzko adierazi dugun moduan, baiezta daiteke ezinezkoa dela tolerantea izatea elkarrizketaren printzipioa onartu gabe, eta ezinezkoa da elkarrizketa emankor eta egiazko bat garatzea «bestearekin» bat ditugun oinarriak eta alderdiak ezagutu gabe. Horrela, 27. galderan elkarrizketatuaren erlijio-tolerantziako maila ondoriozta daiteke, «bestearekin»

elkarrekiko dituen alderdiak atzemateko eta hitz egiteko duen gogo-maila neurtuz. Item honen edukiari erantzun positiboa emateak gogo hori adierazten du.

**27. taula:** 27. Norbaiten erlijio-sinismen berberak ez baditut, horrek ez nau oztopatzen pertsona horrekin hitz egiten saiatzeko eta bion artean izan daitezkeen baterako puntuak bilatzeko

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 55 | 45,5 | 45,5 | 45,5 |
| Neurri batean ados | 10 | 8,3 | 8,3 | 53,7 |
| Ados | 52 | 43,0 | 43,0 | 96,7 |
| Desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 98,3 |
| Erabat desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 27. taulan agerian jartzen da ia elkarrizketatu guztiek (% 96,7) elkarrizketarekiko konpromisoa eta interesa adierazi zutela, baita «bestearekin» elkarrekiko dituzten edo izan ditzaketen ikuspuntuekiko konpromisoa eta interesa ere.

**28. taula:** 30. Pertsona erlijioso baten betekizunetako bat da erlijioaren balioak jendeari gogoratzea eta informatzea. Ez du besteen gaineko kontrolik eragin behar

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 60 | 49,6 | 49,6 | 49,6 |
| Neurri batean ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 52,9 |
| Ados | 49 | 40,5 | 40,5 | 93,4 |
| Desados | 8 | 6,6 | 6,6 | 100,0 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Proselitismoa zabaltzeko eta egiteko moduak eta motak lotura estua dute erlijio-tolerantziarekin. Jakina, proselitismo mota guztiak ez dira bidezkoak askatasunaren eta giza eskubideen ikuspegitik. Gauza bat da

besteek gure kredoa hartzea nahi izatea, eta beste gauza oso desberdina da horretan itsutzea eta predikari konpultsiboa bihurtzea. Gauza bat da jendea gonbidatzea zure egia ezagutzera, eta beste gauza oso desberdina da pertsona horiek pairatzen dituzten hondamenak aprobetxatu eta dirua eta opariak (edo Europan sartzeko bisatua) eskaintzea beren sinismenetatik askatu eta «saltzen» zaien fede berria hartzearen truke. Erlijiosoek arrazoi asko dituzte —bidezkoak, batez ere erlijioa merkatuko beste «produktu» bat dela adierazten duten teorietan oinarrituta— beren mezua zabaltzeko:

1. Jainkoaren zioa defendatzen dutela uste dute,
2. zio hori hain bidezkoa eta ona dela uste dute, non besteekin partekatu nahi duten,
3. jendearentzako erremedioa, panazea eta benetako salbazioa dela uste dute,
4. beren zereginetako bat (batzuentzat betebeharra da) Jainkoaren Hitza iragartzea dela uste dute, eta
5. azkenik, fededun batentzat, pertsona berri bat bihurtzea oso indargarria da, azken batean bide onean gaudeneko ia erabateko berrespena delako.

- Erlijio guztien grinetako bat da (batzuetan obsesioa da) proselitoak irabaztea; hala ere, agian judaismoaren kasua salbuetsi dezakegu, horren adierazpen-jardueraren oinarrian bere jarduerak eta politikak babesteko jendeari eskatzea dagoelako, eta ez hainbeste jendea bihurtzea. Islamaren kasuan, proselitismoaren termino baliokide arabiarra *Daáwa* da, hitzez hitz «gonbidapen bat egitea» esan nahi duena. Erlijio-instituzio edo erlijio-erakunde bateko kide gisa edo borondatezko jarduera gisa, *Daáwa* praktikatzen duen musulman bati *Da'í* deitzen zaio, hau da, «gonbidatzen edo deitzen duena». Horren mezua jendeari zuzentzen zaio, musulmanak diren ala ez, Islama eta horren oinarriak eta ikuspegia ulertzeko. Baina, nola egiten da *Daáwa*? Zein erreminta erabiltzen du eta zeintzuk dira *Daáwa*ren etika-oinarriak? Testu koranikoan hainbat txatal aurkitzen ditugu Muhammad *Da'í* gisa aurkezten dutenak, edo Jainkoaren Hitzari buruz jendeari hitz egiten dion predikari gisa. Horietako bat da honako testu hau: «Dei egiozu jendeari zeure jaunaren bidera, jakinduriaz, aholku onak emanez eta erarik hoberenean konbentziaraziz. Benetan, zure Jaunak ezagutzen du Haren bidetik desbideratzen dena eta ezagutzen ditu

gidatuak» (Korana, 16. kapitulua, 125. txatala). Beste testu batean liburuko jendea gonbidatzen du (juduak eta kristauak) hiru alderdien arteko baterako puntuei buruzko akordio bat lortzera, esanez: «Esazu: Zuek liburuaren jendea! Zatozte denentzako den hitz komun batera: Adora dezagun Allah bakarrik, Hari ezer erantsi gabe, eta ez dezagun bata bestea jaunak hartu. Eta bizkar ematen badute, esazu: Izan zaitezte lekuko gu musulman garela!» (Korana, 3. kapitulua, 64. txatala). Era berean, Koranaren arabera, predikariaren zeregina honako honetara mugatzen da: «Eztabaidatzen bazaituzte, esazu: Allahren esku jarri dut neure aurpegia, nire jarraitzaileek bezala . Esaiezu Liburua jaso zutenei [juduak eta kristauak] eta ezjakinei: «Ez ote zarete meneko egingo? Meneko badira, gidatuak izango dira, baina apartatzen badira....Hau da egia: Zuri agindutakoa eskualdatzea bakarrik dagokizula» (3. kapitulua, 20. txatala).

- Horrela, 28. taulan ikus dezakegunez, ia parte-hartzaile guztiek (% 93) gure galdesortan aurkezten dugun 30. galderarekin ados zeudela adierazi zuten, fededunaren helburua elkarrizketaren eta molde onen bitartez bere egiaren testigantza ematera mugatzen dela oinarritzat hartuta.

**29. taula:** 33. Besteei laguntzen dien, ondo jarduten duen eta onbera den pertsonak Jainkoaren saria jasoko du, duen kredoa edozein izanik

| | Kop. | % | Baliozko % | % metatua |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 10 | 8,3 | 8,3 | 8,3 |
| Erabat ados | 22 | 18,2 | 18,2 | 26,4 |
| Neurri batean ados | 27 | 22,3 | 22,3 | 48,8 |
| Ados | 19 | 15,7 | 15,7 | 64,5 |
| Desados | 23 | 19,0 | 19,0 | 83,5 |
| Neurri batean desados | 3 | 2,5 | 2,5 | 86,0 |
| Erabat desados | 17 | 14,0 | 14,0 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Hauxe da erlijio-tolerantziako maila aztertzeko azken galdera. Arestian adierazi dugu tolerantea izatea hitz egitea dela, eta hitz egitea besteekin parteka daitezkeen elkarrekiko gauza asko daudela onartzea da. Era berean, tolerantea izatea bide desberdinak jarraitzen dituztenek beren ekintza onengatik Jainkoaren ohorea eta mesedea jaso dezaketela onartzea da. Galdera honi baiezko erantzuna emateak esan nahi du elkarrizketatuak Jainkoari gurtza egiteko eta gizadiarentzat ongia egiteko beste modu batzuekiko onarpen-adierazpenak egiten dituela.

- 29. taulan, galderari erantzuten ez zekiten edo erantzun nahi ez zuten elkarrizketatuen ehuneko handi bat ikus daiteke (% 8,3). Izan ere, adierazi zutenez, ez zuten horri buruzko ideia argirik, ez zekiten kasu horretan Jainkoak ekintza onengatik pertsonak saritzen dituen edo benetako erlijioa ez izateagatik zigortzen dituen. Horrela, beste ezer baino gehiago hermeneutikotzat eta teologikotzat jotzen zuten gai horri buruz hausnartu ondoren, beren zalantzak adierazten zituzten honako hau esanez: *Allahu A'lam*, hau da, «Jainkoak gehiago daki».

- Kontuan hartuta musulmanaren jarrera Koranak esaten duenera egokitzen saiatzen dela, hainbat txatal daude, alabaina, Jainkoak gizakiaren merezimendu-ekintzak ahaztuko ez dituela eta sarituak eta estimatuak izan daitezkeen ekintzak babestuko dituela adierazten dutenak. Hori gorabehera, 33. galderari buruz elkarrizketatuek emandako erantzuna ez dirudi txatal koraniko horiekin guztiz bat datorrenik. Horrela, testu sakratua bera da argudiatzen duena —Jainkoaren grazia jaso eta paradisuan sartzeko aukera soilik kristautasuna eta judaismoa jarraitzen zutenek gozatuko dutela defendatzen zuten Muhammaden garaiko judu eta kristau batzuen aurka—, Jainkoaren izenean (eta ez garai hartan gurtzen ziren idoloen izenean) ongia eginez gero, edozein pertsonak izango duela babesa: «Diote: «judu eta kristau dena bakarrik sartuko da Baratzean». Haien gezurrezko uste huts dira horiek. Esazu: Diozuena egia bada, ekar ezazue horren froga! Baina ez! Allahren aurrean bere aurpegia apaldu eta zuzen jokatzen duenak.... ...ez du izango zertan beldur izan, eta ez da atsekabetuko» (Korana, 2. kapitulua, 111-112. txatala). Era berean, beste testu koraniko batean baieztatzen da komunitate desberdinetako kideen arteko lehia ekintza onen esparruan gauzatu behar dela: «Zuetako bakoitzari bide bat eta metodo bat, propioak, ezarri dizkiogu [juduei, kristauei eta musulmanei erreferentzia eginez]. Allahk nahi izan balu, komunitate bakar bat osatuko zukeen zuekin; halaz guztiz, gauzak horrela egin ditu, eman zaizuen horretan zuek aztertzeko. Eta lehia zaitezte egintza onetan! Guztiok Allahngana itzuli beharra duzue. Hark jakinaraziko baitizue eztabaidagarri zenituzten egiez» (Korana, 5. kapitulua, 48 txatala). Bada beste ikuspegi koraniko bat azpimarratu behar dena, gizon baten nahiz emakume baten ekintza onak berdin aitortzen dituena: «Zuzen jokatu duenari, gizonezkoa nahiz emakumea izan, sinestun bada, bizi-modu ona egiteko modu emango diogu eta dagokion saria, egina duen ongiaren arabera» (Korana, 19. kapitulua, 97. txatala).

- Horrela, erlijioen arteko elkarrizketa eraginkor bat izateko, mendebaldeko gizartea bere aurreiritziez libratu behar dela eta erlijio musulmanaren benetako oinarri eta ikuspuntuetara hurbildu behar dela egia bada ere, parte-hartzaileek 33. galderari egindako erantzuna kontuan hartuta, egia da musulmanak ere batzuetan Islamaren oinarrietara hurbildu beharko liratekeela, horien irakurketa berri bat egin eta horren espiritua eta balioak hobeto ezagutu.

- Edozein kasutan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren musulmanen komunitatearen jarrerari buruz egin dugun azterlanean ikus daitekeenez, elkarrizketaturikoen erdiak baino pixka bat gehiagok (% 56,2) onartu zuten «beste» pertsonek, jarraitzen dituzten aukera espiritualak edozein izanik, zintzoak izanez gero eta bizitzan ongia eginez gero, Jainkoaren babesa izango dutela.

- Gainerako parte-hartzaileek (zehazki, % 35,5) item horren planteamenduarekiko desadostasuna adierazi zuten, eta zehaztu zuten musulmana ez den pertsona batek ekintza onak egiten badituela (hurrengo taulan, 30. taulan, elkarrizketatuek zehaztu dute jende zintzoa eta ona dagoela erlijio eta kultura guztietan), Jainkoak bizitza mundutarrean sarituko diola eta bere balioak aitortuko dizkiola, baina Kontuetako Egunean erlijio musulmana aitortu ez izanagatik galdetuko diola.

### 5.3.4. Elkarrizketetan parte-hartzaileen «neurritasun» maila neurtzen duten zazpi iritziak

- Galdesortaren 4. galdera, baita beste sei item ere, gure azterlanerako elkarrizketatutakoen neurritasun-maila egiaztatzeko egin da. Neurrizko ideiak eta jarrerak izatea kontuan hartu beharreko aldagai oso garrantzitsua da fundamentalismoa neurtzeko. Izan ere, neurritasuna bertute bat da, zuhurtzia, gizalegea eta zentzutasuna biltzen dituena. Neurritasuna da prebentzio-tresna onean eta eraginkorrena jarrera erradikal, makiaveliko eta fundamentalistak izateko tentaldien aurka. Horrela, 4. galderan ikus daitekeenez, elkarrizketatuak bere buruarekiko eta besteekiko ikuspegi orekatua eta inpartziala izateko duen gaitasuna jakin nahi da, betiere kontuan hartuta ikuspegi lasai eta inpartzial horrek besteekiko nagusitasun- eta gaitzespen-sinismen guztiak ezabatzen dituela.

**30. taula:** 4. Normala da aitortzea beste erlijioetako pertsonen artean jende zintzoa eta ona dagoela, baita nire erlijioan jende ez zintzoa eta okerra dagoela aitortzea ere

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 74 | 61,2 | 61,2 | 61,2 |
| Neurri batean ados | 20 | 16,5 | 16,5 | 77,7 |
| Ados | 25 | 20,7 | 20,7 | 98,3 |
| Desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 30. taulak adierazten duenez, galdesorta bete zuten elkarrizketatu musulmanek horri buruzko erantzun argia zuten; izan ere, ia guztiek (% 98,3) «bestearen» ezaugarri positiboak ikusten dituzte eta horren merezimenduak eta gaitasunak aitortzen dituzte.

**31. taula:** 8. Niretzat nire erlijio-sinismenak praktikatzea ez da oztopoa gizarte honetan elkarbizitzeko

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat ados | 53 | 43,8 | 43,8 | 43,8 |
| Neurri batean ados | 25 | 20,7 | 20,7 | 64,5 |
| Ados | 39 | 32,2 | 32,2 | 96,7 |
| Desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 98,3 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Erabat desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Gizarte sekularizatu eta postmoderno baten testuinguruan, erlijio-adierazpenak normalean eremu pribatura eta esparru pertsonalera baztertzen dira (herriaren erlijioaren kasuan izan ezik, «modernitatearen» hazkundearen aurka irauten duela baitirudi). Era berean, etorkin musulmanen taldearen erlijio-jardunak ere salbuetsi daitezke, azken hamarkadetan haien erlijio-adierazpenak ugaritu egin baitira, erlijiotasunerako itzulera-fenomeno unibertsalarekin bat etorriz. Baina, nola ikusten du musulman fededun

batek bere erlijiotasuna? Harrera-gizartean bizikidetza errazten duen edo zailtzen duen faktore gisa ikusten du?

- 31. taulan argi ikus daitekeenez, elkarrizketatutako gizon eta emakume musulmanen % 98 baino gehiagok baieztatu du beren erlijio-jardunak (otoitza, baraua Ramadan hilabetean, eta abar) ez direla muga bat euren eta harrera-gizartearen artean.

- Elkarrizketatutakoen ehuneko handi batek (% 20,7) adierazi zuen item horrekin «neurri batean» ados zeudela; izan ere, haien iritziz, zailtasunak sortzen dira harrera-gizarteak, kultura aniztasunaz ohartu gabe, eredu politiko, sozial eta hezitzaile asimilazionista bat ezartzen duenean, gizarte horretan bizi diren gutxiengo taldeen kultura-berezitasunak xurgatu eta desagerrarazi nahian. Errealitate berri hori kudeatzea eta kultura aniztasunean oinarrituta eraikitzea ez da lan erraza. Borondate segurua behar da, elkarrekiko errespetua eta errekonozimendua nahi den bizikidetzarako bermeak direneko sinismen sakonean oinarrituta. Azpimarratu behar da bizikidetza ez dela «hegemoniaren» sinonimoa. Lehenak harmonia esan nahi du, eta bigarrenak, aldiz, talka eta gatazka gaitzesgarriak ekar ditzake.

**32. taula:** 17. Mendebaldearen eta ekialdearen artean talka bat baldin badago, horren arrazoi nagusia mendebaldeko herritarren aurkako bidegabekeria izango litzateke

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 3 | 2,5 | 2,5 | 2,5 |
| Erabat ados | 28 | 23,1 | 23,1 | 25,6 |
| Neurri batean ados | 35 | 28,9 | 28,9 | 54,5 |
| Ados | 37 | 30,6 | 30,6 | 85,1 |
| Desados | 9 | 7,4 | 7,4 | 92,6 |
| Neurri batean desados | 5 | 4,1 | 4,1 | 96,7 |
| Erabat desados | 4 | 3,3 | 3,3 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Asko hitz egiten da, gehiegi agian, kulturen arteko edo erlijioen arteko talkari buruz. Izan ere, Estatu Batuetako Samuel Huntington politologoak teoria bat proposatu zuen 1993. urtean, kulturen arteko eta erlijioen arteko harremanari buruzko ikuspegi nahiko makabro batean oinarritua. Zientzia

politikoen irakasle horrek defendatzen zuen zibilizazioen arteko talka oso larria eta saihestezina izango zela, bereziki «Mendebaldearen» eta «Islamaren» artean. Horrela, kulturen arteko harremana lankidetzan eta aberastean oinarritu ikusi ordez, etengabeko susmoan eta mehatxuan oinarrituta ikusten duten diskurtso subertsibo guztiei babesa ematea lortu zuen. Egia da teoria hori ez dela azken urteetan Estatu Batuen eta herrialde musulman batzuen artean ugaritutako gerren arrazoi nagusia, baina egia da ere, zalantzarik gabe, gerra eta okupazio horiek justifikatzeko ideologia-oinarriak ekarri zituela, hala nola Afganistanen, Iraken, Libanoren aurkako bonbardaketan, Gazako Zerrendaren aurkako bonbardaketan, etab. Horrela, eta gure azterlanera itzuliz, 17. galderarekin elkarrizketatutako musulmanek Mendebaldearen eta Islamaren arteko harremanari buruz pentsatzen dutena jakin nahi da. Zein da talkaren arrazoia haien ustez? Kulturen arteko desberdintasuna edo Mendebaldeak eta herrialde musulmanetako gobernu diktatorialek gauzatutako politika bidegabeak?

- 32. taulan ikus daitekeenez, elkarrizketatutakoen % 80 baino gehiagok gizarte musulmanetan biztanleriak pairatzen dituen politika suntsitzaileei egozten diete Mendebaldearen eta Islamaren arteko talka hipotetikoa.

**33. taula:** 20. Nire ustez, beste erlijioek, hala nola judaismoak eta kristautasunak, bakea lortzeko benetako nahia dute

| | Kop. | % | Baliozko % | % metatua |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Erabat ados | 13 | 10,7 | 10,7 | 12,4 |
| Neurri batean ados | 27 | 22,3 | 22,3 | 34,7 |
| Ados | 20 | 16,5 | 16,5 | 51,2 |
| Desados | 21 | 17,4 | 17,4 | 68,6 |
| Neurri batean desados | 14 | 11,6 | 11,6 | 80,2 |
| Erabat desados | 24 | 19,8 | 19,8 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Islamak judaismoaren eta kristautasunaren profeta guztien mezuaren egiazkotasuna aitortzen du. Horien errebelazioak ere aitortzen dituzte, gida, jakituria eta bake gisa definituta. Korana oso argia izan da ildo horretan: «Esan: Jainkoan eta haren errebelazioan sinisten dugu, Abrahami, Ismaeli, Isaaci, Jacobi eta [hamabi] tribuei egindako errebelazio-

an, Moisesek, Jesusek eta profetek Jaunaren eskutik jaso zutenean. Ez dugu bereizketarik egiten horien artean eta Haren mende jartzen dugu geure burua». Hala ere, gaur egun bi erlijio-tradizio horien eta Islamaren arteko harremanak ez daude une onenean. Horien eta Islamaren artean beldurra eta mesfidantza nagusitzen dira, eta elkarrizketa-ahalegin txikiak harea oso mugikorren gainean mugitzen dira. Horrela, 20. galderaren bitartez, bi erlijio horietako ordezkariek deitutako topaketarako deiei eta bake-ekimenei buruz gizon eta emakume musulmanek egiten duten balioespena jakin nahi genuen, bereziki kristautasunaren kasuan.

- 33. taulan ikus daitekeenez, inkestatutakoen ia erdiak modu positiboan aitortzen eta balioesten ditu judaismoaren eta kristautasunaren bakea lortzeko nahiak. Hala ere, azken urteetan Mendebaldearen eta mundu islamikoaren artean sortu diren gatazkak kontuan hartuta, parte-hartzaileen beste erdiak zalantzan jartzen ditu erlijio horietako ordezkarien topaketarako eta ulermenerako asmoak. Gure ustez, Irakeko gerraren moduko gertakariek, herrialde horretako ustezko suntsipen handiko armei buruzko gezurretan eta manipulazioetan oinarrituta sortu zenak, nazioarteko zuzenbidea urratuz eta munduko iritzi publikoaren aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarrizketatutako gizon eta emakume musulmanen erantzunean eragin handia izan dute. Horrela, erantzutean adierazi zutenez, azken urteetan Mendebaldearen eta gizarte musulmanaren artean elkarrizketarako eta topaketara aukerak zaildu zituzten polemikak gogora etorri zitzaizkien, izan ere Benedikto XVI. Aita Santuak 2006. urtean Ratisbonako Unibertsitatean egindako hitzaldia aipatu baitzuten; hitzaldi horretan, Aita Santuak adierazi zuen indarkeriaren aurkako txatal koranikoa («Ezin da behartu inor Adorazio Praktikatzera». Korana, 2,256) Islamaren lehen aldian errebelatu zela: Muhammadek «oraindik boterea ez zuenean eta mehatxatua zegoenean». Hala ere, historia ez zen horrelakoa izan. Edozein historialari itzul daiteke Islamaren iturri primarioetara eta informazio hori egiaztatu, eta bertan aurkitu du «erlijio-gaietako indarkeriarik ezaren» printzipioaren oinarriak ezartzen dituen txatal hori Islamaren bigarren aldikoa dela, Muhammadek jada Estatua eratua eta ondo sendotua zuen garaikoa, eta ez lehen aldikoa, oraindik ahula zenekoa, Ratzingerrek aipatutako «adituek» defendatu zutenaren arabera. Era berean, Aita Santuak jada famatua den topaketa bati buruz hitz egin zuen hitzaldian, hots, Manuel II. Paleologo enperadore bizantziarraren eta Per-

tsiako musulman ospetsu baten arteko topaketari buruz. Agian, XVI. mendean izandako topaketa horretan benetako elkarrizketa bat izan zen, baina ez da hori adierazten enperadore bizantziarrak gero idatzi zituen oharretan. Enperadorearen iruzkinek adierazten dutenez, topaketa bakarrizketa bat izan zen, eta ez benetako elkarrizketa bat. Izan ere, Manuel II.ak bere ikuspuntua eta bere planteamenduak jaso zituen bakarrik, eta ez zizkigun transmititu beste hizlari musulmanaren arrazoibideak, horiek debekatu edo zentsuratu egin baitziren.

- Nolanahi ere, gure azterlanean azpimarratzekoa da parte-hartzaileen zati handi batek (guztizkoaren % 22,3) emandako erantzuna; izan ere, «neurri batean» ados zeudela adierazi zuten, kristautasunak bakea lortu nahi izatearekin ados zeudela argituz, baina judaismoari dagokionez, 2009an Gazan egindako masakrea oraindik oso berriki gertatutakoa zela kontuan hartuta, parte-hartzaile musulmanek zalantza handiak zituzten.

**34. taula:** 24. Erlijio-gai bati buruz kontrako iritziak baldin badaude, ni bitarteko aukera hartzen saiatzen naiz

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztiz ados | 24 | 19,8 | 19,8 | 19,8 |
| Neurri batean ados | 33 | 27,3 | 27,3 | 47,1 |
| Ados | 49 | 40,5 | 40,5 | 87,6 |
| Desados | 14 | 11,6 | 11,6 | 99,2 |
| Neurri batean desados | 1 | 0,8 | 0,8 | 100,0 |
| Guztiz desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Neurritasun-maila neurtzeko beste galdera bat. Izan ere, item hau egiteko, musulmanek beren erlijioari buruz hitz egiteko erabiltzen duten izendapenetako bat kontuan hartu zen. Islam izenaz gain, *Din al-Wasat* ere deitzen diote beren fedea, hau da, erdiko terminoen erlijioa. Hau da, gizakiaren bizitzako alderdi eta egoera desberdinen aurrean muturretatik aldentzea eta erdian kokatzea erabakitzen duen kredoa. *Din al-Wasat* goitizena Koranetik dator, erlijio musulmanaren autoritate handienetik: «Horrela erdiko komunitate egin zaituztegu [*Wasata*], gizakien testigantza egin dezazuen eta Mezulariak [Muhammad] zuetaz egin dezan» (Ko-

rana, 2,143). Islamaren doktrina-testuen arabera, «erdiko terminoen» erlijioa izatea «*Tanatto'a*» deitutakoaren kontrakoa da, hau da, estremismoaren eta fanatismoaren kontrakoa. Era berean, Muhammaden esaera berretsietako batek musulmanak ohartarazten ditu fanatismoan eror ez daitezen, eklipsearen eta desagertzearen bezpera omen delako: «Erlijioa fanatizatzearen arriskuaz ohartzen zaituztet, zuen aurreko beste herri batzuk itzali egin baitziren beren erlijioa fanatizatzeagatik». Horrela, *al-Wasat* Islama mugarik gabeko askatasuna eta, aldi berean, askatasunak mugatzea aldarrikatzen duten erlijioen artean kokatzen dela defendatzen dute; kultura-ondarea mitifikatzen dutenen eta kultura-ondare hori guztiz baliogabetzen dutenen artean.

- 24. galderarekin jakin nahi dena da euskal gizartean finkatutako musulmanek *Din al-Wasat* kontzeptua balioetsi eta horretan inspiratzen diren edo horretatik aldentzen diren. Item honen edukiarekin ados ez egoteak neurritasun eta oreka gutxiko ikuspegia adierazten du.
- 34. taulan ikus daitekeenez, elkarrizketatutakoen % 87,6k erlijio-gaietan bitarteko jarrera hautatzen zuten pertsona gisa definitu zuten euren burua. Hala ere, horien % 27,3k adierazi zuen «neurri batean» ados zeudela, Islamak agintzen duenarekin bat datorren aukera hautatzen zutela azalduz, eta Islama erdiko terminoen erlijioa denez gero, agintzen diena muturretatik urrun egongo da.

**35. taula:** 28. Nire ustez herrialde honetako legeak eta epaitegiak nahiko bidezkoak eta zuzenak dira, horien iturriak edozein izanik

| | Kop. | % | Baliozko % | % metatua |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 1 | 0,8 | 0,8 | 0,8 |
| Guztiz ados | 38 | 31,4 | 31,4 | 32,2 |
| Neurri batean ados | 29 | 24,0 | 24,0 | 56,2 |
| Ados | 49 | 40,5 | 40,5 | 96,7 |
| Desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Neurri batean desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 98,3 |
| Guztiz desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Hau da neurritasun-maila neurtzeko seigarren galdera. Neurritasuna izatea besteen errealitateen eta ekintzen gaineko ikuspegi orekatua eta la-

saia izatearen sinonimoa da, nire errealitateen eta ekintzen desberdinak diren arren. «Bestearen» bertuteak errekonozimendu zintzoan eta estimuan oinarrituta ikustea, eta ez susmoan eta zalantzan oinarrituta. «Bestearen» alderdi positiboak ez ikustea eta ez errekonozitzea horien bidezkotasuna ukatzea da. Hori kontuan hartuta, 28. galderarekin jakin nahi dena da zein den musulmanen iritzia herrialde bateko botere garrantzitsuenetako baten funtzionamenduari, zereginei eta erabakiei buruz, hots, sistema judizialari buruz. Justizia administratzeko eta gatazkak harrera-gizartearen teorietan eta printzipioetan oinarrituta ebazteko ardura duen Estatuaren organo da.

- 35. taulan ikus daitekeenez, azterlaneko ia parte-hartzaile guztiek positiboki balioesten zuten harrera-herrialdeko botere judizialaren inpartzialtasuna, autonomia eta zuzentasuna.

**36. taula:** 32. Fededun batek bere fedearen oinarriak mantendu nahi baditu, hobe izango litzateke bizitza modernora ez egokitzea

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztiz ados | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Neurri batean ados | 19 | 15,7 | 15,7 | 17,4 |
| Ados | 2 | 1,7 | 1,7 | 19,0 |
| Desados | 38 | 31,4 | 31,4 | 50,4 |
| Neurri batean desados | 15 | 12,4 | 12,4 | 62,8 |
| Guztiz desados | 45 | 37,2 | 37,2 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Neurritasun-maila neurtzeko azken galdera. Azterlan asko egin dira fundamentalismoaren eta bizitza modernoari eta gizarte-bizitzari begiratzeko moduaren arteko harremana aztertzeko (De Yung 1996; Bendroth 1999; Coreno 2002; Gallagher 2003). Item honen edukiarekin ados dagoela adierazten duen pertsonak bere sinismenak babesteko joera adierazten du, egungo bizitzaren baldintzetara egokitze aldera horiek berriztatzeko interesik izan gabe. Pertsona horren ustez, bizitza modernoak ez du garrantzirik, sinisten duen etorkizun perfektua lortzea saihesten duen desbideratutako bide bat baino ez da. Horrela, 32. galderaren bitartez, jakin nahi dena da EAEn finkatutako musulman fededunek be-

ren fedearen oinarriak neurritasunez ikusten dituzten eta bizitza modernora egokitzea onartzen duten ala ez.

- 36. taulan ongi ikus daitekeenez, elkarrizketatutakoen % 80 baino gehiagok adierazi zuten fededuna bizitza modernora egokitzearen alde zeudela, eta egokitze horrek ez duela zertan eraginik izan euren sinismenak eta erlijio-printzipioak mantentzean. Azpimarra daiteke elkarrizketatutakoen ehuneko oso handi batek (guztizkoaren % 16) item honekin «neurri batean» ados zegoela erantzun zuela, bizitza modernora egokitzeko premiaren alde zeudela argituz, baina aitortu zuten bizitza moderno honek biltzen duen guztia ez dela positiboa eta onuragarria gizakiarentzat.

### 5.3.5. «Autoritarismo» aldagaiari buruzko zazpi iritziak

**37. taula:** 5. Erlijio-sinismenak modu erradikalean mantentzea horiek hedatzeko beste modu bat da

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Guztiz ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 5,0 |
| Neurri batean ados | 16 | 13,2 | 13,2 | 18,2 |
| Ados | 10 | 8,3 | 8,3 | 26,4 |
| Desados | 41 | 33,9 | 33,9 | 60,3 |
| Neurri batean desados | 16 | 13,2 | 13,2 | 73,6 |
| Guztiz desados | 32 | 26,4 | 26,4 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Hauxe da autoritarismo-maila aztertzeko lehen itema. Horren formulazioak jarduteko modu erradikalak, autoritarioak eta intoleranteak adierazten ditu. Arestian adierazi dugunez, baldintzarik gabeko miresmena adierazten dien eta agintaritza aitortzen dien figura batzuei edo sinismen batzuei eusteko joera trinkoa duen pertsona da autoritarioa, eta bere ideiekin identifikatzen ez duen jendeari etsaitasunez bere eredua edo ikuspuntua inposatzen saiatzen da. Aldaketak egiteko, edo horiek gertatzea saihesteko, indarra erabiltzea justifikatzera ere iristen da. Hainbat autorek beren azterlanetan baieztatu dute erlijio-arloko autoritarismoaren eta fundamentalismoaren artean lotura estua zegoela aurkitu zutela. Iruz-

kin honen edukiari baiezko erantzuna emateak joera autoritarioak izan ditzakeen nortasuna adierazten du.

- 37. taulan argi ikus daitekeenez, elkarrizketatutakoen % 3k eta % 8k itemaren edukiarekin «guztiz ados» edo «ados» zeudela erantzun zuten, hurrenez hurren. Elkarrizketatutakoen guztizkoaren % 13k «neurri batean» ados zegoela adierazi zuen, itemaren lehen zatia bakarrik onartzen zutela adieraziz, hau da, Islamaren erlijio-agindu guztiak kontuan hartzen saiatzen dira, baina beren ikuspegia besteei inposatu gabe. Bestalde, elkarrizketatutakoen guztizkoaren ia % 75ak itemaren edukiarekiko desadostasuna adierazi zuen.

**38. taula:** 13. Talde batek hartzen dituen erabakien garrantzia balioetsi behar da, erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzen duena gizona edo emakumea den alde batera utzita

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Guztiz ados | 45 | 37,2 | 37,2 | 38,8 |
| Neurri batean ados | 18 | 14,9 | 14,9 | 53,7 |
| Ados | 44 | 36,4 | 36,4 | 90,1 |
| Desados | 6 | 5,0 | 5,0 | 95,0 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztiz desados | 6 | 5,0 | 5,0 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Fundamentalismoa tradizionalismoaren sinonimotzat hartu da. Eta tradizionalismoak jarrera kontserbadorea biltzen du, besteak beste, familia-arloetan eta genero-harremanetan. Autoritario baten ezaugarri nagusiak dira bere ideia sexistak, gizonen eta emakumeen rolei buruzko kezka handiegia izanik, emakume guztiek ezaugarri homogeneoak dituztela pentsatuta eta gizartean duten zeregina gutxietsita. Item honen edukiarekin ados ez egoteak autoritarismorako joera argia adierazten du.

- Ez da zuzena pentsatzea emakumearen aurkako diskriminazioa soilik kanpoko gizarte edo kulturetan gertatzen dela. Hori pentsatzea oso jarrera erosoa da, eta, gainera, herrialde propioko emakumeen ageriko edo ezkutuko baztertzea iraunarazten du. Horrela, generoen arteko des-

berdintasuna herrialde askotan emakumeek neurri handiagoan edo txikiagoan pairatzen duten bidegabekeria da, herrialdeen sistemak erlijiosoak, ateoak edo laikoak izan, eta herrialde aberatsak edo pobreak izan. Kasu batzuetan, herrialdeek lege diskriminatzaileak ezartzen dituzte, baina beste kasu batzuetan, ez dira herrialdearen legeak, baizik eta emakumearen desabantaila eta kalterako errealitate sozialak eta lanekoak. Bestela esanda, herrialde batzuetan emakumea *ahalduntzera* bideratutako berdintasunerako konstituzio eta politikak dauden aurren, «diskriminazio zinikoa eta ezkutukoa» dei dezakeguna gertatzen da, emakumeak gizon batek baino soldata baxuagoa kobratzea ahalbidetzen denean adibidez, lan eta zeregin berberak egiten dituen arren. Amnesty International erakundeak argitaratutako hainbat txostenen arabera, eta bertan baieztatzen denez, Japoniaren edo Errumaniaren moduko herrialde oso desberdinetan gizonak ezin dira ezkondu 18 urte bete arte, baina legez onartuta dago emakumeek adin horren aurretik egitea. Guatemalan, Lege Penalak emakume bat bortxatu duen gizonari erruduntasunetik salbuesten dio emakumearekin ezkontzea onartzen badu. Saudi Arabian, emakumea sistema politikotik kanpo uzten dute, eta automobil bat gidatzea ere debekatzen zaio[15]. Filipinetan, prostituzioa soilik emakumeen delitu gisa definitzen da. Israelen, emakume judu batek ez du dibortziatzeko eskubiderik, baina gizon judu batek, aldiz, badu horretarako eskubidea. Danimarkan, drogak hartzeagatik edo gaixo egoteagatik, bere burua defendatu ezin duen emakume bat bortxatzearen zigorra txikiagoa da eta bortxaketaren biktima izan den emakumearentzako babes gutxiago dakar.

- Aitortu beharra dago aipatu berri ditugun lege diskriminatzaileak, hezkuntza matxista edo lan-arloko errealitateak, kasu askotan, erlijio-tradizioek legitimatu eta bultzatu dituztela. Baieztapen moral sexistak justifikatzeko, gizon nahiz emakume fededun asko testu sakratuetan oinarritzen dira, eta, batzuetan, honako testu hauen interpretazioetan: le-

---

[15] Gaur egun, saudi gizarte osoa automobil bat gidatzeko emakumeak duen eskubideari buruzko aurrekaririk gabeko gizarte-eztabaida oso garrantzitsuetan parte hartzen ari da, eta uste dugu laster horren inguruko aldaketak izan daitezkeela, lege diskriminatzaile hori ezabatzearen aldekoak. Era berean, Saudi Arabiako hainbat ulema eta jakitunen adibidea ere azpimarra daiteke, hala nola Ahmad ben Qasim al-Gamidi, emakumeak baztertzen dituzten arauak inposatzen dituzten teoria tradizionalistak zalantzan jartzen baitituzte, balioztatutako eta baimendutako erlijio-testuetan oinarrituta, eta teoria horiek apetaren araberakoak eta testuingurutik kanpokoak direla uste dute.

henik gizona sortu zela, emakumea gizonaren saiheski baten emaitza izan zela, emakumea tentazioaren eta ahuleziaren enkartazioa dela, Lorategitik kanporatu izanaren errua emakumearen izan zela, iruzurra hari egin zitzaiolako, etab.

- Islamaren kasuan, jakina, emakumeari eta gizartean duen posizioari erreferentzia egiten dioten adierazpen asko aurki daitezke. Musulmanen liburu sakratuak (Korana) Eva eta Adanen sorrerari buruz eta paradisuan izandako zoritxarreko istorioari buruz aipatu ditugu kontakizun horiek guztiak biltzen ditu. Musulman askok sinisten dituzte kontakizun horiek. Hala ere, ikus dezagun Islamaren liburu sakratuak (Korana) kontakizun horiei buruz esaten duena. Asteko, esan beharra dugu dagokion pasarte koranekoak ez duela inon esaten Eva gizonaren saiheskitik sortu zela, sorreraren jatorria arima bat izan zela baitio: «Gizakiok! Izan zeuen jaunaren beldur, Hark kreatu baitzintuzten izaki bakar batetik, hartatik bikote-kidea kreatuz, eta bi horiengandik gizaseme eta emakume asko sortuz» (Korana, 4. kapitulua, 1. txatala). Beste testu koraniko batean, era berean, paradisutik kanporatu izanaren errua ez zaio emakumeari egozten, erantzukizuna biengan ezartzen baitu, gizonaren eta emakumearen gainean, elkarrekin: «Shaytanek belarrira hitz egin zien […] eta zin eginez ziurtatu zien […] eta engainuz limurtu zituen…» (Korana, 7. kapitulua, 20., 21., 22. txatalak).

- Euskal gizartean finkatutako komunitate musulmanaren erlijio-kontzeptuen inguruan egin dugun gure azterlanaren 38. taulan argi ikus daitekeenez, elkarrizketatuen ia % 90ek itemaren edukiarekin ados daudela adierazi zuen, emakumeak taldearen erabakietan parte hartzearen ideia eta eskubidea onartuz.

- Autoritarismo terminoak botere politiko, erlijioso edo sozial bat modu irrazional eta autoritarioan egikaritu eta kontserbatzeari egiten dio erreferentzia. Zientzia politikoetan, autoritarioaren ezaugarri nagusia da gobernatzeko modu absolutua eta zapaltzailea defendatzen duela, eta hauteskunde libre eta demokratikoetan oinarritutako sistema politikoen aurkakotasun irekia defendatzen duela. Horrela, fundamentalismo-maila neurtzera bideratutako galdesortaren 18. galderaren helburua da jakitea elkarrizketatutako gizon eta emakume musulmanek zein jarrera duten antolamendu demokratikoei buruz, non erabakiak talde bateko kide guz-

tien baterako borondatearen arabera hartzen diren. Item honen edukiarekin desadostasuna adierazteak jarrera autoritarioetara eraman dezakeen joera bat adierazten du.

**39. taula:** 18. Hauteskunde libreak eta zuzenak benetan eraginkorrak eta erabilgarriak dira gizarte batean aldaketa positiboak egiteko

| | **Kop.** | **%** | **Baliozko %** | **% metatua** |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztiz ados | 68 | 56,2 | 56,2 | 56,2 |
| Neurri batean ados | 18 | 14,9 | 14,9 | 71,1 |
| Ados | 33 | 27,3 | 27,3 | 98,3 |
| Desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Neurri batean desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztiz desados | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Gizarte musulmanak gaur egun demokrazia-gosez daude, hauteskontzietan beren botoa jartzearen eta ordezkariak askatasunez hautatzeko goseti. Biztanleria musulmanek hamarkadak daramate boterea monopolizatzen duten gobernu autoritarioen mende, pertsona gehienak baztertuz eta politika- eta gizarte-arloko gaien kudeaketan eta erabakietan parte hartzeko eskubideaz gabetuz. Baina, «demokraziak» eta «sekularismoak» mendebaldeko politika-tradizioan landutako sistema bati eta pentsamendu-korronte bati egiten diote erreferentzia, hurrenez hurren. Hortaz, zer neurritaraino estrapola daitezke gizarte islamikoen testuingurura? Zertan dute antza Islamarekin eta zertan dira desberdinak? Zer pentsatzen dute eta zer jarrera dute musulmanek mendebaldeko historiaren eta filosofiaren bi kontzeptu propio, edo ia propio, horiei dagokienez? Egia esan, neurri handi batean, sekularismoa definitzen dugun moduaren eta demokrazia aplikatzen dugun moduaren araberakoa izango da erantzuna. Laizismoa kontzientzia-askatasunean eta talde baten erlijio-balio partikularrak beste talde bati ez inposatzean oinarritzen bada, kasu honetan, laizismoa oso ondo egokituko da ikuspegi islamikoaren barruan (Koranaren 2:256 txatalak honako hau ezartzen du: «Ezin da behartu inor Adorazioa Praktikatzera»). Laizismoak *desklerikalizazio*-prozesua bat gauzatu nahi baldin badu, erlijio-erakundeen profezia- eta doktrina-funtzio guztiak baliogabetuta, kasu honetan ere erlijio musulmanarekin bat

etorriko da, hain zuzen ere teoria islamikoak ez duelako inolaz ere onartzen Jainkoaren lurreko bitartekaria edo ordezkaria den elizgizon baten ideia. Laizismoa antolamendu politiko eta sozialerako bide gisa hauteskunde demokratikoak egitea baldin bada, orduan antzekotasun handia izango luke islamaren *Xhura* teoriarekin, hau da, hitzez hitz, erabakirik hartu aurretik euren gaiei buruz hausnartzeko komunitate musulmaneko kideen arteko «kontsulta» edo «eztabaida» esan nahi duen kontzeptu koranikoarekin. Aldiz, laizismoaren helburua bizitzaren eta aurrerabidearen mendebaldeko, eta soilik mendebaldeko, antolamendu eta ulermen batera zuzendutako erreforma sakon bat baldin bada, orduan ikuspegi islamikoaren guztiz kontrakoa izango litzateke.

- Alderdi askotan bat etor daitezkeen arren, laizismoaren eta Islamaren arteko alde nagusia da bi konstituzio desberdinen mende daudela. Lehenak ilustrazioaren postulatuetan du sorburua, eta bigarrenak, aldiz, Korana erabiltzen du lehen iturri gisa, Muhammaden esperientzia bigarren iturri gisa, eta ulemek eta *al-Fouqahaá* (jurista islamikoak) deitutakoek egungo bizitzara egokitzeko egiten duten interpretazio- eta adimen-ahalegina (*al-lytihad*) hirugarren iturri gisa. Horrela, gure ustez ez du axola konstituzio bat zertan inspiratzen den bere xedapenak egiteko, benetan ardura duena inspirazio horren edukia baita, hau da, eduki hori nola interpretatzen den eta nola aplikatzen den.

- Musulmanen erlijio-esperientzia propioa kontuan hartuta, alderdi askotan eta mende askotan barrena nahiko ona izan dena, musulmanek uste dute ez dutela Europako gizarteetan egin zen sekularizazio-prozesu berbera egi behar; ez dituzte Bastillako hormak hautsi behar gai espiritualak denboratik bereizteko, baizik eta gobernu bidegabeen, autoritarioen eta, batzuetan, sekularismoaren izenean gobernatzen dutenen hormak.

- Nolanahi ere, garatu dugun azterketan, 39. taulan argi ikusten da elkarrizketatutako gizon eta emakume musulmanen % 100 hauteskunde politikoen alde dagoela gizartean aldaketak egiteko baliozko mekanismo gisa.

- Autoritarismoan boterea miresteko eta beste modu batean pentsatzen duten gainerakoak menderatzeko joera ikus daiteke. Gainerakoak kondenatu eta zigortzeko joera. Horrela, faktore horrek norberaren erlijio-planteamenduak defendatu edo inposatzeko gogortasuna edo indarra

erabiltzea justifikatzeko ahalegin bat adierazten du. Item horri positiboki erantzuteak erradikaltasunerako eta autoritarismorako joera argia adierazten du.

**40. taula:** 22. Nire iritzi berbera ez dutenen kasuan, batez ere erlijio-gaietan, batzuekin hobe da zorrotza eta gogorra izatea

| | Kop. | % | Baliozko % | % metatua |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Guztiz ados | 3 | 2,5 | 2,5 | 4,1 |
| Neurri batean ados | 7 | 5,8 | 5,8 | 9,9 |
| Ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 13,2 |
| Desados | 71 | 58,7 | 58,7 | 71,9 |
| Neurri batean desados | 7 | 5,8 | 5,8 | 77,7 |
| Guztiz desados | 27 | 22,3 | 22,3 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 40. taulan argi ikus daitekeenez, galdesorta bete duten eta EAEn finkatutako musulmanen taldekoak diren elkarrizketatutakoen ia % 90ek desadostasuna adierazi zuten erlijio-sinismen desberdinak dituzten pertsonekin portaera zakarrak, zorrotzak eta intoleranteak erabiltzeari dagokionez.

**41. taula:** 25. Ekialdearen eta mendebaldearen arteko kultura-desberdintasunek talka baino aberastea ekar dezakete, bereziki Ekialdeak pairatzen duen bidegabekeria amaitzen bada

| | Kop. | % | Baliozko % | % metatua |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 3 | 2,5 | 2,5 | 2,5 |
| Guztiz ados | 26 | 21,5 | 21,5 | 24,0 |
| Neurri batean ados | 36 | 29,8 | 29,8 | 53,7 |
| Ados | 39 | 32,2 | 32,2 | 86,0 |
| Desados | 12 | 9,9 | 9,9 | 95,9 |
| Neurri batean desados | 3 | 2,5 | 2,5 | 98,3 |
| Guztiz desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Autore askok ziurtatzen dute munduan bakea ezinezkoa izango dela erlijioen artean bakea ez badago. Guztiz egia da hori. Baina, egia da ere

esatea bakea munduan ezinezkoa izango dela Ekialdearen eta mundu islamikoaren artean bakerik ez badago. Bi gizarteak elkarri hurbiltzen badira eta modu zintzo eta egokian elkarrekin lan egiten badute, munduarentzako lorpenak eta aurrerabidea askoz handiagoak izango lirateke. Mendebaldeak, herrialde musulmanetan agintzen duten gobernu edo familiekin elkartu ordez, bere begirada biztanleria musulmanari, eta bereziki mundu arabiarrari, zuzentzen badio, eta kanpoko esku-sartzerik nahiz inposaketarik gabe haien askatasunerako eta autodeterminaziorako eskubidea aitortzen badu, biak uztartzeko aukera askoz handiagoa izango litzateke. Mendebaldeak, bere politika- eta kultura-eredua mundu islamikora hedatzeko ahaleginak egin ordez, aukera ematen badu gizarte musulmanek beren testuinguruetara egokitutako formulak garatzeko, talka eta gerra defendatzen dutenei argudio asko kenduko dizkiegu. Eta modu berean, Ekialdea, bere gaitzak mendebaldeko politikei egotzi ordez, bere gizarteek ordena guztietan pairatzen duten immobilismoarekin eta geldialdiarekin lotutako arazoez benetan kezkatzen bada, orduan ulermenerako eta lankidetzarako aukerari buruz hitz egin ahal izango genuke. Azaldu berri dugunean oinarrituta, 25. galdera egin dugu jakiteko zein modutan ikusten duten elkarrizketatutakoek mendebaldeko munduaren eta gizarte musulmanaren arteko harremana. Helburua da jakitea elkarrizketatutakoek bi mundu horien arteko egungo tirabirak iragankorrak eta unean unekoak direla uste duten, edo betirako eta saihestezinak direla uste duten.

- 41. taulan ikus daitekeenez, elkarrizketatutakoen ia % 85ek uste du Mendebaldearen eta mundu islamikoaren arteko harremanak, eremu bakoitzaren kultura eta ikuspegi desberdinak gorabehera, aberaste eta lankidetza gehiago ekar dezakeela, talkaren eta borrokaren ordez, bereziki Mendebaldeak ez baditu abusuzko politika bidegabe gehiago aplikatzen herrialde islamikoetan.

- Autoritarismoan boterea miresteko eta besteak menderatzeko, kondenatzeko eta zigortzeko joera ikus daiteke, bereziki beste modu batean pentsatzen dutenak. Horrela, faktore horrek norberaren erlijio-planteamenduak defendatu edo inposatzeko gogortasuna edo indarra erabiltzea justifikatzeko ahalegin bat adierazten du. Item horri positiboki erantzuteak erradikaltasunerako eta autoritarismorako joera argia adierazten du.

**42. taula:** 29. Jendeak ez badu onartzen erlijiosoa izatea, fededunek erlijiotasuna indarrez inposatu behar dute

| | Kop. | % | Baliozko % | % metatua |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Guztiz ados | 2 | 1,7 | 1,7 | 1,7 |
| Neurri batean ados | 8 | 6,6 | 6,6 | 8,3 |
| Ados | 4 | 3,3 | 3,3 | 11,6 |
| Desados | 43 | 35,5 | 35,5 | 47,1 |
| Neurri batean desados | 6 | 5,0 | 5,0 | 52,1 |
| Guztiz desados | 58 | 47,9 | 47,9 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- 42. taulan argi ikus daitekeenez, elkarrizketatutako musulmanen ia % 90ek item honen edukiarekiko desadostasuna adierazi zuen, kredoak eta sinismenak inposatzeko joerak gaitzetsiz.

**43. taula:** 31. Pertsona guztiek dute eskubidea bizimodu propioa izateko eta sinismen propioak edukitzeko, gainerakoen bizimodu eta sinismenen desberdinak badira ere

| | Kop. | % | Baliozko % | % metatua |
|---|---|---|---|---|
| Ez du erantzun | 1 | 0,8 | 0,8 | 0,8 |
| Guztiz ados | 46 | 38,0 | 38,0 | 38,8 |
| Neurri batean ados | 14 | 11,6 | 11,6 | 50,4 |
| Ados | 42 | 34,7 | 34,7 | 85,1 |
| Desados | 8 | 6,6 | 6,6 | 91,7 |
| Neurri batean desados | 2 | 1,7 | 1,7 | 93,4 |
| Guztiz desados | 8 | 6,6 | 6,6 | 100,0 |
| Guztira | 121 | 100,0 | 100,0 | |

- Autoritarioak ez du ulertzen nola litekeen beste pertsonek beste modu batean pentsatzea, eta berak defendatzen duenarekiko desberdina den bizimodua izatea. Uste du bere iritziak eta interesak nagusitu eta gailendu behar direla, gizarte-, kultura- eta politika-aniztasunarekiko mespretxua adieraziz. Era berean, bere talde etnikoa, kulturala edo politikoa garrantzitsuena dela eta beste talde batzuen gainetik dagoela uste duen pertsona definitzen duen ezaugarria da autoritarismoa. Horrela, autoritarismoa

egozentrismoaren eta etnozentrismoaren nahaste bitxi bat da. Autoritarismo-maila neurtzeko azken galdera horrekin ados egoteak gauzak egiteko eta ikusteko norberarenak ez diren moduak dituztenekiko intolerantzia eta amoregaiztasunerako ageriko jarrera adierazten du.

- 43. galderan ikus daitekeenez, elkarrizketatutakoen % 85 baino gehiago item honen edukiarekin ados daude, gainerako pertsonek bidezkotzat eta egokitzat jotzen duten bizimodua izateko askatasuna eta eskubidea izan behar dutela onartuz, bizimodu hori aldatzeko betebeharrik izan gabe.

# 6 Azken kontsiderazioak

Lanaren azken zati honetan, eta ikerlanean aztertutako guztia kontuan hartuta, gure ustez oso esanguratsuak diren alderdiak eta alderdi garrantzitsuenak azalduko ditugu. Horren ildotik, azterlan honen zati teorikoan planteatutako hipotesi eta galdera guztiei, funtsean, gure ustez erantzuten dieten tratamendu enpirikoko emaitzak azalduko ditugu jarraian:

- Lehenik, azpimarratu nahi dugu etorkinek euren jatorrizko herrialdeetatik alde egiten dutenean, gogoaz eta desio onez gain, tradizio, sinbolo eta balio propio batzuk ekartzen dituztela, eta horiek dira haien kultura- eta gizarte-nortasun propioa osatzen eta batzen duten elementuak. Jakinduria hori informaziorako eta ikaskuntzarako baliozko iturri bat da, eta pertsonek eta familiek, etorkinak izan ala ez, bertatik edaten dute euren nortasun indibidualak eta kolektiboak lantzeko. Hortaz, ulergarria da, baita zentzuzkoa ere, pentsatzea elementu horiek etorkinekin batera joango direla, neurri handiagoan edo txikiagoan, immigratzeko eta harrera-gizarteetan finkatzeko proiektu osoan zehar.

- Migrazioek Europako gizartearen kontzientzia piztu dute —baita euskal gizartearena ere, landa-lana egin dugun tokia izanik— erlijio askotako dibertsitateari buruz, erlijioak bizitza publikoan duen paperari buruz, praktikatzen den erlijiotasun motari buruz, eta gizartea gehiengoaren ikuspegi bakar batean oinarrituta kudeatu eta eraiki ordez, gutxiengo etnikoen edo erlijiosoen berdintasunerako eta diskriminaziorik ezarako eskubidearekiko sentiberak diren jarraibideen arabera kudeatu eta eraikitzeko premiari buruz.

- Adierazi beharra dago jomugako Europako gizarteek, normalean, ez dutela erlijioa ikusten etorkinak gizarte horietan txertatzea erraztera eta ulermena ahalbidetzera iritsi daitekeen dimentsio gisa. Ikus daitekeenez, etorkinen kolektiboen erlijioa, batez ere harrera-gizartean nagusitzen direnen desberdinak diren sinismenak eta erlijio-praktikak dituztenen ka-

suan, gizarte horretan askatasun eta berdintasun sozialen arloan izandako lorpenen eta aurrerapenen atzera-egite gisa ikusten da. Hortaz, erlijio-adierazpenak gizartean integrazioa eta kohesio ona garatzea oztopatzen duen balazta gisa ikusten dira. Are gehiago, gai horren inguruan sortutako diskurtsoetan, etorkin talde batzuk integratzea beste batzuk baino errazagoa dela baieztatzera iristen da, atxikitako erlijioaren arabera. Hau da, uste denez, harrera-gizartekoen kideko edo antzeko erlijio-sinismenak dituzten taldeek integrazioaren azterketa gainditzeko gaitasun handiagoa izango lukete. Erretorika hori aitzakia gisa erabiltzen da hain hurbilekoak ez diren, edo ez direla uste den, kolektiboen aurka zuzendutako xenofobia-jarrerak eta segregazio-neurriak justifikatzeko.

- Baiezta daiteke, gaur egun, immigrazioan erlijio-faktoreari buruz hitz egitea immigratutako Islamari buruz hitz egitearen ia sinonimoa dela. Musulmanen komunitateko kideak subjektu oso erlijioso gisa eta beren fedeari oso loturiko subjektu gisa ikusten dira harrera-gizartean, eta, horregatik guztiagatik, askotan asimilaezinenak edo digeriezinenak direla uste da. Hori ez da gertatzen beste etorkin talde batzuk hain erlijiosoak ez direlako, ezta etorkin musulmanen taldea estatistikoki handiagoa delako, baizik eta azken horien presentzia azken urteetan, egia esan, Europako memoria kolektibo bat berpizten duelako, Islama eta mundu islamikoa modu erredukzionistan eta arbitrarioan irudikatzen duten irudiez betea. Ikuspegi negatibo hori oso bizia, indartsua eta aginte botere handikoa bilakatu da, eta ez du uzten aurkako beste irudirik ikustea, «bestearekin», musulmanarekin, esperientzia pertsonala emankorra den arren eta horri buruz egindako irudiak faltsuak eta desitxuratuak direla egiaztatzen duen arren.

- Normalean esaten denaren aurka, komunitate musulmanaren integrazioak harrera-gizartean ez ditu uste bezain beste erronka ekartzen. Edo, agian esan dezakegunez, ekartzen dituen ustezko erronkak, neurri handiagoan edo txikiagoan, kulturen arteko edozein topaketan agertzen dira, dagokion berezitasunekin eta ñabardurekin. Izan ere, soilik desberdina izateagatik nahitaez bateraezina eta elkartezina ez duela izan behar hartzen dugu oinarri gisa. Gainera, benetako arazoa ez da desberdintasuna, baizik eta horren inguruan sortzen dugun ikuskera.

- Komunitate musulmana harrera-gizartean txertatzeak aurre egin behar duen benetako erronka da iristen direnen nahiz jasotzen dituztenen gaita-

